



| 26

| 12

Albistegi eta Iturrino aurrez aurre
izango dira futbol derbian

| 28

'Bergarako mugarren buelta'
sortu du Pol-Pol elkarteak

| 19

Disko festen 'boom'-a, baita gurean
ere: Bergaran eta Oñatin

| 31



URA ETORRI ETA... ZORIONEZ, URA JOAN

Alertan izateaz gain, larri ere ibili gara asteen
euri-urei begira; putzu, errepide mozketak, luizi eta
beste eragin arren, etorritako bidetik joan dira urak

| 5

San Juan erreka hazi-hazita, Bergaratik Elgetarako bide hasieran.

| ENKO AZKARATE



Oñatiko Nemesio Zubian luiziak eragindakoa konpontzen.

| JULEN IRIONDO



Bergaran, San Lorentzon, erreka gainezka, oinezkoen bidean.

| E.A.

Ariketa fisikoa egitea ona da, baina etengabeko kontrola beharrezkoa da

Urte hasieran, bereziki, kirola
egiten hasten da jende asko. Hori
ona den arren, modu kontrolatuan
eta planifikatuan egin behar da,
eta nork bere gorputza ondo eza-
gututa; hori gomendatzen digu
Arrasateko Alberto Garai kirol
medikuak. Bestela, osasunaren-
dako kaltegarria da.

| 2

SINADURAK

Saudi Araba? | 6
IÑAKI PEÑA

6 | Jende talde txiki batendako
IBAN ARANTZABAL

Lan eta lan | 22
ANJEL BERGARETXE

40 | Plastilina
IDOIA ETXEBERRIA

ASTEKO GAIA 2 | DEBAGOIENA 4 | IRITZIA 6
ELKARRIZKETA 11 | HERRIAK 12 | KIROLA 28
| KULTURA 31 | ZURE IRAGARKIAK 35
TELEBISTA-IRRATIA 36 | EZKONTZAK 37
ESKELAK 37 | NON-ZER 38

1.000
modelo
baino gehiago

57€
graduaturiko
kristalak barne

J. Carlos Guerra, 1
Tel.: 943 79 29 95
ARRASATE

Ibargarai, 16
Tel.: 943 76 15 75
BERGARA

mó
zuretzat sortuak

MULTIOPTICAS
lehen zerbiztu optikoetan



WOK zabaldur berria Arrasaten!

Menua, postrea barne.
10 menu hartuta, 1 DOAN

BEREZITASUNAK

- Itsaski-janak
- Frijituak
- Plantxa
- Sushia
- Parrilladak



943 79 90 29 / 629 41 59 58
Mugarrieta industrialdea 10, C-B pab.
San Andres auzoa.
ARRASATE

Kirolik ez egitea edo kontrol barik egitea, biak dira kaltegarriak

- Ariketa fisikoa egitea ona da, ondo planifikatuta baldin bada
- Arrasateko kirol-medikuntza zerbitzuak 25 urte ditu Arrasaten

LEIRE KORTABARRIA | ARRASATE

Gorputza mugitzea osasungarria da: kolesterola, hipertentsioa, diabetesa, estresa eta ondorez psikologikoa, loditasuna eta bihotzekoak prebenitzeko balio dezake, eta bihotzeko pazienteen tratamenduaren zati bat da, ondorioz haien bizi-kalitatea handituz eta urte gehiago hartzen lagunduz. Hala, 50eko hamarkadan Inglaterran egindako ikerketa batek, bere motan lehenengoetarikoa, autobus-gidariak eta autobusetako zainatzaileak jarraitu zituen, eta beti jesarrita zeuden gidariak autobusetik gora eta behera ibiltzen ziren guardiek baino %35 bihotzeko gehiago izan zituztela topatu zuen.

Beste muturrean, ordea, neurri kanpo eta mediku-kontrolik gabe egiten bada, ariketa fisikoa muskuluetako, tendoietako eta hezurretako lesioak, tentsio-jaitzierak, hipogluzemiak eta bihotzekoak ekar ditzake.

Gakoa hau da, Alberto Garai kirol medikuak dioenez: "Oso garrantzitsua da pertsonak bere ezaugarriak ezagutzea, gorputza ezagutzea, bere mugak. Eta garrantzitsuena, prebentzioa". Horretarako, kirola egiten dutenei zein kirola egin ez baina

egiteko asmotan dabiltzanei mediku espezializatuarengana jotzea gomendatzen die.

Dena dela, oro har, debagoien-darrok ariketa fisikoa ondo egiten dutela esaten du Garaik: "Nik uste dut orokorrean horrela dela; gure bailaran, bai. Gero eta garrantzia gehiago ematen diogu beroketari, luzaketari, hidratazioari, elikadurari, plangintzari eta atsedenari.

Kirola ondo planifikatuta egiten badugu onuragarria da. Onura fisiko eta psikikoak lortuko ditugu".

Oraindik, desinformazioa

Athlon kirol medikuntza zerbitzuko medikua da Alberto Garai. Arrasaten, kirol medikuntzak 25 urte bete ditu, azken urte eta erdia Loramendiko instalazio

berrietan. Handik, Debagoieneko 2.000 lagun inguru pasatzen dira urtero; tartean daude kirolari federatu asko, eta baita federatuta ez daudenak ere.

Azterketa medikuak egiteaz gain, lesioak tratatzera eta aholku bila ere jende asko joaten da Athlonera. "Galdera askorekin datoz: lesioak nola ekidin, kirolean nola hasi, nola planifikatu denboraldia, ze taupadetan, ze iraupen eta ze intentsitatean, ze kirol komeni zaion, nola elikatu, nola hidratatu kirolean, luzaketak egokiak diren... Eta baita bestelakoak ere: kirol arroparen inguruan ere galdetzen digute, ze zapatila, plantillak, protesiak, ze makina erosi etxean kirola egiteko..." Hortaz, jendea lehen baino informatuago dago, baina "desinformatuago" ere bai, Alberto Garairen esanetan: "Honelakoak gertatzen zaizkigu: bateren batek errotula azpiko kartilagoan desgastetxoak dauka; bizikletan ibiltzeko, lauan ibiltzeko eta 15 egunera bueltatzeko esaten diogu; bada, handik gutxira, Interneten begira egon dela -eta deitzen digu, ebakuntza beharrezkoa dela irakurri duelako... Baina ebakuntza noiz behar da? Bizimodu normala egiten badu, ez du behar izango. Hau da; askotan ez dakigu kritikoak izaten hainbeste informazio jasotzen dugunean".

Dena dela, Garairen iritziz, oraindik ohitura onak ez dira behar adina zabaldu: "Kirola eta ekintza fisikoa uztartuz, osasuna mantentzea eta hobetzea da gure helburua. Kontutan izan behar dugu gaur egun gaixotasun garrantzitsuenetariko bat sedentarisismoa



Ariketa fisikoa egiterakoan, garrantzitsua da irak

dela". Sedentarioa da "ekintza fisikoa egiten ez duena: lanera oinez bazoaz eta asteburuan paseatzera edo mendira joaten bazara, ez zara sedentarioa. Sedentarioa eguneroko gauzetarako justu-justu mugitzen da, eta askotan herri erdialdera erostera autoz joaten da". Batere ekintza fisikorik ez egiteak gaixotasun asko ekar ditzake.

Azterketa, oso garrantzitsua

Athlonera joaten direnei eta kirola egiten dutenei zein hasi nahi dutenei azterketa medikua egiten diete. Hori oso garrantzitsua da, Garairen ustez: "Hasierako puntua da pertsona ezagutzeko, helburuak, dudak, ilusioak...". Norberak bere gorputza ezagutzeko eta, "garrantzitsuena", prebenitzeko balio du azterketa horrek.

Izan ere, denon gogoan daude bihotzekoak izan dituzten kirolarien kasuak; horietako bat Sevilla futbol taldeko Antonio Puerta jokalaria izan zen, 22 urterekin hil zena.

Denetarik gaixotasun "isilak", ordura arte antzeman ez direnak antzemateko balio du azterketak: "Patologiaren bat aurkitzen badugu ondo baloratu, eta gaixotasunen bat balego, kirolaren bitartez

GAH, arazoak prebenitzeko

Zoru pelbikoa, abdomen aldeko organoak eusten dituen muskulu sorta, nasaitu egin daiteke eta organoak mugitu egin daitezke. Saioa Baena fisioterapeutak Arrasaten, Abian zentroan irakasten du gimnasia abdominal hipopresiboa (GAH). Bere esanetan, erditzearekin, menopausiarekin edo abdomena asko presionatzearen ondorioz, kaltetu egin daiteke zoru pelbikoa: "Korrika, aerobika... egin daitezke, baina GAHe kin konpentsatuta". Prebentzioaren garrantzia azpimarratzen du.



Saioa Baena, gimnasia abdominal hipopresibo eskola ematen. | L.K.

ARRASATEKO BASERRIKO
PRODUKTUEN AZOKA

09:00-14:00 Seber Altube Plaza

HILEKO 3. ZAPATUAN

2013
urtarrilak 19

Otsailak 16
Martxoak 16
Apirilak 20
Maiatzak 18
Ekainak 15
Uztailak 20
Irailak 21
Urriak 19
Azaroak 16

Antolatzailea:



ARRASATEKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE MONDRAGON
Enplegu eta Garapen
Ekonomikoaren Saila

Laguntzailea:



Arrasateko baserriak eta merkatariak konfiantza, hurbiltasuna eta kalitatea eskaintzen dizkizute.





asleari edo prestatzaileari kasu egitea. | JULIO CALLEJA

gaixotasun horri nola aurre egin aztertuko dugu". Azterketa medikuaren zati bat ahalegin-proba da. Orain ez hainbeste, proba hori bakarrik helduak zirenei egiten zieten; bada, gaur egun, 13-14 urtetik gorako guztiei egiten diete. "Gau-

za gehiago agertzen dira. Kasuan kasu, kardiologoarengana bidaltzen dugu". Berri txarrak ematea ere tokatzen zaie: "Urtean zehar hiru-lau pertsonak bihotzetik operatu beharra izaten dute eta beste hiruzpalau pertsonari

konpetizioa edo intentsitate handiko kirola egitea debekatzen zaie. Eta beste batzuei, aldiz, bakoitzaren ezaugarriak aztertu ondoren, kirolez aldatzea aholkatzen zaie". Kirol aldaketa hori "batzuetan" ez dute ondo hartzen: "Adibide bat jarriko dizut: hemen mendizale asko dugu, eta adinarekin hainbeste aldapa gora eta behera belaunak hondatu egiten dira. Orduan belaunak indartzeko, giltzadurak babesteko, konpentsazio lana jartzen dugu lesioa gainditzeko edo ekiditeko. Eta txip aldaketa hori asko kostatzen da". Baina medikuari kasu egin da, seguru asko kalte handiak prebenitu daitezke.

"Bakoitzak bere mugak ditu"
Ariketa fisikoa egitera animatzen du Alberto Garaik: "Mugitu egin behar gara, sofatik altxa eta zapatilak jarri. Bizitza luzea da, helmuga urrun dago; gauzak progresio batekin egin ditzagun, jarrera aktibo, ohitura egoki eta bizimodu osasungarriarekin". Baina gogoratu "bakoitzak bere mugak, bere genetika" daukala, eta muturrean gabiltzanean gure burua arriskuan jartzen dugu: "Denok ez gara jaio Everestera igotzeko, batzuk Pirinioekin konformatu beharko dira, beste batzuk Kurtzebarri eta Besaiderekin, eta besteok trenbidean paseatzen ibili beharko gara".



ALBERTO GARAI
KIROL MEDIKUA

"Kirolari eta ez kirolari, denondako zabalik dago zerbitzua"

Kirol medikuntza zerbitzua bakarrik kirolariendakodela pentsatzen du askok...

Hau guztientzako zabaldua dago, kirolari eta ez kirolari. Kirolik egiten ez baduzu, baina hasteko asmoarekin bazabiltza, leku aproposa da hau. Edo zalantza asko duzula, nola hasi, zer egin, ze kirol, nola jarraitu; gainpisua duzula edo tentsio arteriala altu, eta familiako sendagileak kirola egiteko aholkatu dizu, hemen gaudelaguntzeko prest! Ateak zabalik ditugu, duda guztiak erantzuten saiatuko gara.

Nola antolatu kirola?
Guk aholkuak eta planifikazio orokorra ematen dugu. Planifikazio zehatza egiteko, onurak lortzeko eboluzioa kontutan eduki behar da. Horregatik prestatzaile fisikoarekin jartzen dugu jendea harremanetan.



Utzi lehia lehiaketarako

"HORREK EGITEN BADU, NEUK ERE BAI"
Informazioaren gizarte honetan ere, uste oker askok irauten dute: edozeinek edozer ariketa egin dezakegula; nekatuta edo izerditan blai ez bagaude kirola txarto egiten gabiltzala edo ez digula onik egingo... Zentzuzkoena gorputzari entzutea da, norberaren mugak errespetatzea.

SEDENTARISMOA
OMSk heriotzaren laugarren arrisku-faktoretzat du sedentarismoa. 18 eta 64 urte artekoendako, astean gutxienez 150 minutuan ariketa erritmo neurrikoan edo bizian egitea gomendatzen du; eta astean hiru bat aldiz egitea, dena asteburuan pilatu ordez.

ADI BIHOTZAREKIN!
Kontrol barik kirola egiteak kalte egin diezaguke: hezurrak apurtzea, tendinitisa, giharrek eta tendoiek sufritzea eta bihotzekoak. Urteko bihotzeko guztietatik %5 larregiko ahaleginarekin daude lotuta.

LEHEN

ORAIN

LEHEN

ORAIN

LEHEN

ORAIN

LEHEN

ORAIN

LEHEN

ORAIN

LEHEN

ORAIN

Zure bainuontzia kendu eta dutxa jartzen dizugu

EGUN BATEAN

hori guztia kalitate eta zerbitzu onena emanda.

Dei egiguzu konpromiso barik eta dituzun zalantza guztiak argituko dizkizugu.

Iturgintza, gasa, kalefakzioa eta eguzki-plaka termikoen instalazioa etxeko urarendako
Mitarte 5 behea - Tel.: 943 71 52 51 - 605 71 66 92 - ARETXABALETA



Aretxabaletako Korrika Batzordeko kideak, aurtengo Korrika iragartzen duen kartelarekin. | KORRIKA

Korrika 18 ate joka daukagun arren, hona iristeko laguntasuna behar du

Korrika Laguntzaile eta Korrika Lagun egiteko bideak zabaldu dituzte

UBANE MADERA | DEBAGOIENA

Arrasaten, Bergaran, Oñatin, Aretxabaletan, Eskoriatzan, Antzuolan, Elgetan eta Gatzagan martxan daude Korrika batzordeak. Eta horren isla da dagoe-

neko abiarazi dutela makina bat ekimen euskararen aldeko hitzordu garrantzitsu horri behar duen besteko babesa emateko.

Batetik, Korrika Laguntzaile egin gura duenak jakin beza 12

euoren truke aipatutako herri guztietan eman dezakeela izena eta gero, txartela eta pina etxean jasoko dituztela. Txartelak "eskualdeko hainbat komertziotan deskontuak egiteko balio izango" du,

ekarri dute gogora Debagoieneko Korrikatik.

Horrekin batera, jakinarazi dute ibarreko komertzio eta den-detatik pasako direla tokian tokiko Korrika Batzordeetako kideak, saltzaileei gutuna eskaini eta borondatearen truke, Korrika Laguntzaile egin daitezen. Ohi den moduan, gero, hori adierazten duen pegatina jasoko dute Korrika Laguntzaile egiten direnek, saltokietan jar dezaten.

Korrika Txotx

Bestalde, iragarri dute urtarilaren 26an Korrika Txotx ospatuko dutela Usurbilen.

"Behar den moduko omenaldia" egin gura dute modu horretan; hain justu ere, aurtengo Korrikak "euskara ikasleak zein horiei euskara ikasteko guneak eskaintzen dizkien euskaldun zaharrak" omendu behar ditu.

Hala, parte hartu gura dutenek, 10 euoren truke Usurbilera joateko autobusa, bazkaria eta sagardoa eskuratuko dute. "Baita Esne Beltzaren kontzertua ere". Sarre-
rok honako lekuetan eros daitezke: Bergaran (Jardun), Arrasaten (AEK eta AED), Aretxabaletan (Loramendi elkarteak) eta Eskoriatzan (kultura etxean).

Kilometroak eta materiala

Bukatzeke, kilometroak ere salagidaude, gutxienez, 400 euoren truke (500 euro udalen kasuan). Helbidea: Korrika18debagoiena@gmail.com. Eta materiala ere laster iritsiko da gure herrietara.

2013ko gida komertziala bereziki digitala da aurtan

Interneten erakusleihoa zabaldu dute eta mugikorretan ere izango da erabilgarri

U.M. | DEBAGOIENA

Papereko formatuan ezagutzen dugu batik bat Goienak argitaratzen duen gida komertziala (telefonoen gida). Eta paperean ikusten segiko dugu, datorren

martitzenean, urtarilaren 22an, hasiko dira-eta banatzen Debagoieneko bederatzi herrietan. Guztira, 20.700 ale.

Goiena papereko harpidedunek eta publizitatea egin duten

negozio eta zerbitzuek jasoko dute hori.

Interneteko erakusleihoa

Edozelan ere, formatu digitalak indarra hartuko du baita Goienaren gidan ere.

Batetik, Interneteko gidak "presentzia" handiagoa izango du, negozio bakoitzari orri bana emanda. Besteak beste, oinarritzko informazioaz gainera, argazkiak eta bideoak eransteko aukera izango dute negozioek. Helbidea: www.goiena.net/gida.

Mugikorretan

Bestetik, paper eta Interneteko informazioa mugikorretan ere egongo da. Zerbitzuak ahalbidetuko du gidatik bertatik deitu ahal izatea aukeratutako negozioari. Eta horrez gain, geolokalizazioari esker "Nola joan" aukera ere izango da. Hau da, kale jakin batean egon eta gertuko jatetxeak zeintzuk diren jakin nahiez gero, bilaketa egin eta informazio hori ere eskuratu ahal izango da. Helbidea: m.goiena.net/gida.html (Goiena.net aplikazioa izan ezean).

Arrasateko eta Oñatiko txakolin berria, gertu eta gozo

J. DOMINGO | DEBAGOIENA

San Anton egunaren bueltan, txakolinaren egun handia egin zuten atzo, eguena, Getarian. Gipuzkoako jatorrizko deitura duten 27 upategi ezberdinetako txakolina izan zen bertan dastatzeko. Tartean, gure ibarreko bi: Kataingoa eta Upaingoa.

Hain justu ere, aurtengo txakolinaz gehiago jakiteko, Kataideko Jabier Arregirekin izan gara, eta hark usain onekoa eta garbia dela azpimarratu du. Aurtengo mahats produkzioa oso ona izan da, eta horrek eragin zuzena izan du ardo zuri honen produkzioan. Udako eguraldia oso lagungarria izan dela dio Arregik, eta beste urte batzuetan baino askoz ere gutxiago tratatu behar izan dute mahatsa; hori dela eta, uzta ona eta oparoa izan da.

Getarian izandakoez gainera, baina, gurean beste ekoizle batzuk ere badaude: adibidez, Arrasaten, Artazubia baserriko Otxia, eta Oñatin, Murgialdai, Belaskuena eta Ditosuena baserrikoak.

Debagoiendar gazteak 'Berdeago' azokan, Durangon

U.M. | DEBAGOIENA

Urtarrilaren 25ean eta 26an ingurumena ardatz duen azoka egingo dute Durangon, *Berdeago* izena duena. Goizetik iluntzera arteko jardunaldiak izango dira. Eta bertan izango direnen artean, gureko ordezkariak ere izango da: Mondragon Unibertsitateko Leinn graduondoko Jump In eta Snatuko kideez osatutako taldeak parte hartuko du.

"Ingurumena denon arduraz piztu beharko lukeen gaia da, baina zoritxarrez egunerokotasunean oso kontuan hartzen ez duguna; hargatik, egitasmo honekin lortu nahi dugun helburua alor honetan lan egitea da, hiru zutabe hauetan lan eginez: alde batetik, herritarrei eraginkortasun energetikoaren, mugikortasunaren zein etxebizitzaren inguruan gaur egungo merkatuan aurkitzen dena azaltzea gustatuko litzaiguke", zehaztu dute. Hori abiapuntu, besteak beste, energia berriztagarriak, aurrezpena, kutsaduraren eragina, berriztapen arkitektonikoak, herritar urbanismoa... izango dituzte langaien artean.

Ausolaneko garbitzaileak ere kalera, protestara

Ausolan enpresako garbitasun saileko 30 bat langilek protesta egin zuten astelehenean. Asmoa zen Arrasaten Euskadiko Kutzako eta Ipar Kutzako bulegoen garbiketan egongo diren murrizketen aurka egitea.



JAGOBA DOMINGO



Kurtzetan gertatutako luizia konpontzeko lanetan. | MIRIAN BITERI

Arriskua gertu-gertuan izan arren, oraingoan ez du gure ibarra "ito"

Krisi mahaia aktibatu egin zuen Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Sailak

UBANE MADERA | DEBAGOIENA
Errekek zenbait puntutan gainezka egin zuten. Luiziak gertatu ziren, errepide mozketak ere bai. Alertan egon ginen, alerta ofizialean. Eta jakina, ia guztiok (guztiok ez esatearren), errekei begira ibili ginen, haien egoerarekin kezkatuta eta haien ur-mari ikusgarriarekin txundituta. Oraingo asteko martitzenean izan zen hori guztia.

Zorionez, baina, azkenean hortxe hasi eta bukatu zen guztia, nahiz eta atzo goizean (eguen) oraindik ere euripean segi.

Datu curioso batzuk: euria
Kontuak kontu, irudi ikusgarriak eta lagunen arteko berriketaldiak emateaz gainera, datu esanguratsuak ere utzi dizkigu oraingo astean izandako etengabeko euri-jasak.

DATUA

77

METRO KUBIKO SEGUNDOKO

Segundoko 77,252 metro kubikoko ur-emaria neurtu zuten martitzenean errekan.

Adibidez, Euskalmetek dituen estazio meteorologikoen artean Arrasatekoak (Makatzenatik gora dagoenak) jasotako datuaren arabera, martitzenean, batez beste, metro karratuko 67 litro bota zituen. Deigarriagoa da, baita ere, jakitea hamar minutuan, 2,1 litro bota zituela (11:40). Eta baita ere, euri kantitaterik handie-

na 12:20an bota zuela: ordubetea, 10,5 litro.

Datuak: erreka ur kopurua
Eta duda barik, beste datu deigarri bat da jakitea halakoetan errekek zenbateko ur-emaria daramaten. Bada, Gipuzkoako Diputazioak batutako informazio hidrologikoaren arabera, Oñatin, adibidez, gehien-gehien segunduko 77,252 m³ ur eraman zuten errekek. 16:00etan neurtu zuten kopuru hori. Datu benetan ikusgarria dela erakusten du iazko urtarrilean izandako ur-emari handienarekin konparatzen badugu: segundoko 8,956 m³ eraman zituen (urtarrilaren 6an).



Oñatin, Otadui zuhaitzian, putzu ikusgarria. | MIREIA BIKUÑA



Zakuekin bideratu zuten ura Aramaion. | JOKIN BEREZIARTUA



Erreka Bergarako ortuetaraino ere iritsi zen. | ENEKO AZKARATE



Makina hondeatzailea Kurtzeta garbitzen. | JULEN IRIONDO

Evarist Kone | Oñatin bizi den maliarra

"Maliko gizarteak ez du nahi islamiar erradikalek ezarri gura duten 'sharia' legerik"

Oñatin bizi da Evarist Kone maliarra, baina gerra dela-eta, jaioterrian du burua egunotan

UBANE MADERA | OÑATI
Evarist Konek (Manini, 1984) bost urte daramatza Euskadin, azken biak Oñatin. Oñatiko Pastoral Barrutiko Misisio Taldeak Maliko Togo herriko Saint Paul ikastetxerekin elkarlanean dihardu, eta Kone bertan ikasitakoa izateaz gainera, bere osaba apaiza eta hango Caritasko buru da. Zehazki, Mali Elkartasuna elkar-tearen bitartez lortu du Euskadira etortzea. Edozelan ere, egunotan bere begi, buru eta pentsamenduak jaioterrian ditu, hango gerra dela-eta.

Baduzu zure senideen berri?

Gaur bertan [martitzena] egon naiz eurekin. Telefonoz edo Skype bitartez egoten naiz. Gurasoak ondo daude. Egia esan, ez dute ezeren berririk izan. Maliren iparraldea bonbardatu dute, eta eurak Bamakon (hiriburuan) bizi dira.

Iparraldean baduzu lagunik?

Bai, baina Bamakora joanda daude, iparraldean lan egiten duten eta Bamakokoak diren ia guztien moduan.

Bonbardaketak mesedegarriak direla uste duzu?

Horiei esker okupatuta zegoen ia guztia berreskuratu dute. Nire ustez, egoera hobetzen doa egunetik egunera.

Posible duzu laburtzea zer den han gertatzen dabilena?

Iaz hasi zen. Iparraldean urre, petrolio eta uranio asko dago. Eta, justu, haren independentzia aldarrikatu zuten tuaregek. Maliko gobernuak, berriz, ez zegoen ados. Hala ere, presidentearen ama tuarega zen, eta presidenteak (Amadou Toumani Toure) ez zuen interbentziarik agindu. Horrekin ados ez, eta militarrek altxatu egin ziren martxoan, Haya Sanogo buru zutela. Estatu kolpea eman, eta presidente berria ezarri zuten: Dioncounda Traore. Orain, presidente horrek eskatuta, Frantzia Mali bonbardatzen dabil.

Nik, aldiz, ulertuta nuen Maliko gerraren jatorria erlijioa zela, islamiar erradikalek euren erlijioa inposatu nahi dutelako?

Bai, islamiar erradikalak tartean sartu dira, eta tuaregek eurekin



Evarist Kone. | JOXAN LARRAÑAGA

bat egin zuten inbasioa gauzatzeko, nahiz eta inbasioaren ostean islamiarrek eurek tuaregak baztertu egin dituzten.

Zein da Maliko gizarte zibilaren pentsamendua?

Ni kristaua naiz, eta Maliko bizilagunen %3 kristauak dira. Gainontzeko %97ak, berriz, musulmanak. Hala ere, ez dira erradikalak. Oraingoek nahi dute *sharia* legea ezarri. Horren arabera, adibidez, emakumeek ezin izango lukete gorputzeko atalik erakutsi; gizonak ezin izango lukete emakumerik agurtu; emakumeek ezin izango lukete ikasi, lanik egin... Hori ez da Maliko gizarteak gura duena.

Zeintzuk dira bertakoen behar nagusiak gaur egun?

Jana, jantziak eta medizina. Oñatin batuko ditugu; norbaitek lagundu gura badu, parrokiarekin harremanetan jar dadila.

Zuk zeuk baduzu Malira bueltatzeko asmorik?

Familiak esaten dit hemen ondo hartu banaute ez dela ezer gertatzen hemen geratzen banaiz. Nik erantzuten diet emaztea lortzen badut hemen geratuko naizela... kar-kar-kar. Oso jatorrak zarete. Lagun-taldea eta guzti daukat. Oso ondo hartu naute, benetan.

"Oñatin jana, jantziak eta medizina batuko ditugu"

Atzegik boluntarioak behar ditu Alemaniara apirilaren hasieran egingo duen bidaiari laguntzeko

Bi boluntario behar ditu Atzegi elkarteak Alemaniako bidaiariako: "Bata, farmazia edo mediku ikasketak dituen, medizinen kargu egiteko; eta bestea, alemana dakien pertsona bat, itzulpenak egiteko", zehaztu du Aitor Binaiek, Atzegi elkartearen kidea. Harremanetarako honako telefono zenbakira deitu behar da: 943 42 39 42, "eta Franengatik galdetu. Urgentea da". Izena emateko epea ere zehaztu dute: otsailaren 19tik martxoaren 10era.

ZABALIK

IÑAKI PEÑA

<http://goiena.net/iritzia/>

Saudi Araba?

Ipar Baskistan exotikotasun handiko hiru lurralde txikik osatzen dabe, hego baskistandar askok sekula bisitau ez dabenak. Hego Baskistanen bestela alkarren aurka borrokan sarritan dagozan bi probintzia ditugu itsas ondoan, turista guztiek ezagutzen dituztenak. Eta barnealdean alkarregaz oso antzekoak diran beste bi ditugu, kilometro karratuei jagokienez bi handienak eta euri prezipitazioak kontuan hartuta legorrenak. Alde batetik desioaren objektu iluna deukogu, eta bestetik ahaztutako alaba.

Azken hau basamortua da Kantauri isurialdetik begiratuta, Aramaixoko oasia eta ur putzu batzuk kenduta. Egia da behintzat euskaldun kopururik txikiena Gorbeia, Elgea eta Urkilla mendilerroetatik hegoalderuntz bizi dala. Uriburuan etorkin mordoa bizi da, eta horietatik heren bat musulmanak dira. Uriko ikurrak dira Katedral Zaharra, San Migel, San Pedro eta San Bizente eleak, baina gaur egun zortzi meskita be badituzte, Annur izenekoa handiena izanik. Halaber, gaztelania ez diran beste hizkuntzak (arabiera barne) euskara baino gehiago mintzatzen dira. Baina horixe bera gertatzen da Gasteizen ez ezik Bilbon eta Iruñean be.

Izan be, Ibaizabalgo uriburua eta Zadorrakoa ez dira hain desbardinak hizkuntza kontuetan. Elebidunen portzentajeak eta bestelako datuak oso antzekoak dira uri bietan gaur egun, harrigarria benetan, blog honetan ikusi dezakezuen legez: <http://allartean.blogspot.com.es/2012/10/euskal-hiriak-bilbo-vs-gasteiz.html>.

Hamengoa munduko onena izendatu daben arren, hango eta hamengo alkateak erdaldunak dira. Eta geuk Kafe Antzokia badeukogu, baina laster eurek be edukiko dabe. Probintzia osoan elebidunak hirukoiztu egin dira 1991tik 2011ra. Eta nahiz gehienak erdaldunak izan, gehienak euskaldunak sentitzen dira. Bitxia. Azkenean ez dira hain "mairuak" izango...

USTEAK USTE

IBAN ARANTZABAL | iarantzabal@goiena.com

Jende talde txiki batendako

Gero eta euskal kantu gutxiago. Seguruenik agendan ere gutxiago daude, eta kezagarria bada ere, kezkatzekoagoa da antolatzen diren horietan egoten den jende kopurua. Askok aurreratu dugu musikarien kalitatean, asko ekipamenduetan, zabalpenean... eta entzuleak falta! Kerobiako Xabi Bandiniri irakurri diot *Badok.info*-n: "Ikusi dugu jende talde txiki batendako musika dela gurea". Izena jarriko nioke horri: sorkuntza doitua. Sorkuntza doituan gakoak jarraitzen du izaten musika zaindua, letra pentsatuak, binilo edo CDak gutizia objektu izatea... kalitatea eta kalitatea. Gustatzen zait. Oinarria sendo behar dugu emaitzak jaso eta kopuruak biderkatuko badira.

MARRAZKIZ

UNAI BUSTURIA | <http://goiena.net/iritzia/>

HANDIK ETA HEMENDIK

Eusalgintzaren Confebaskizazioa

Erramun Turutarena

<http://goiena.net/blogak/turutene/>

Hizkuntza bitxi bat da euskara, bitxi bat. Txokolatezko txanpona da euskara enpresetako normalizazio planen emaitzetako dibidenduetan.

Google Translaten Tobin tasa ordaindu gabe trukutzen den dibisa.

Etengabeko ezarpena duten haurren aurrezte libretak dira ikastolak eta euskaltegiak desesperatuen Cash Converterrak.

Euskaraz hitzegite oro da urre.

Ikasi dugu bertsolariaren hamarrek handiak euskaldunberriaren akatsak beste balio duela.

Pixka bat da asko.

Kapital honen inguruan bada baina proletalgo gaizto bat, euskara bere aukeren azpitik erabiltzen duena.

Hiztun txarra du euskarak, hizdun alperra batzuen ustetan.

Eta euskararen oligarkiak lobby bezala topatu du aurki bere burua, gizarte zibilari eta botere publikoari parez pare

errieta egiteko gunea. Alderdi politikoen gainetik.

Eusalgintzaren zati batek daconfebaski, era trinkoan.

Oligarkiaren nagusitasun moralaren monopolio elebakarraren gainetik, teknokraten moldatze zientzietatik haratago, baliteke euskararen loraldi ekonomikoa gizartearen eraldaketatik etortzea.

Besterik gabe euskararen likidezia mugitzen duen gizarte antolaketa utopiko bat, historiaurreko komunismoaren pareko osotasun eleanitza dakarrena.

Iraultzailea da etorkizuneko euskalduna.

Zutik aditzean kondenuatu / indazu albiriztea / euskararen langile tristea. Entzuteko dugu bertsolaritzaren deshumanizazioa.

Bizitzeko Goierri, Sakana eta Arratiatik, besteak beste, erbesteratutako seme-alaba japoniar, txinatar eta kanadiarren Pazifikoko phyle euskalduna. Borrokatzeko estatu eta aberrien deskonposaketa. Berehalako ahots itzultzaile automatikoak. Ametsak hitz eta hitzak amets. Epika berriak.

Baina, beno. Agian ni ere ekintzaile zikin bat besterik ez naiz.

Catalònia

Anjel Lertxundi Esnal

<http://berria.info/blogak/lertxundi/>

Orain laurogeita zortzi urte, katalanentzat mitikoa izan den liburu-denda bat jaio zen Bartzelonako hiriaren bihotz-bihotzean. Modernitatea eta katalantasuna uztartu nahi zituen *Llibreria Catalònia* sortu berriak, eta inauguratu zutenean, idazpuru handi bat jarri zuten sarreran: *El món és governat pels llibres*. Mundua liburuek gobernatzen dutela sinesterrainokoa zen liburu-denda sortu zuteneren erromantizismoa, baina laurogeita zotzi urteren ondoren, diktaduraren oldarrak larrutik sufrituta (*Casa del Libro* deitu behar izan zioten frankismoan), sute izugarri bati buelta eman osten eta eraikuntza harrapakeriaren atzaparretatik libratu eta gero, krisiak liburu-denda itxi du. Katalunia bere buruaren jabe izateko ahaleginean dabilen garaiotan, Catalònia liburu-denda mitikoaren desagerpenak letraz letra gezurtatzen du mundua liburuek gobernatzen dutela diotenen ustea: McDonald's batek hartuko du liburu-dendaren tokia.

goiena
KOMUNIKAZIO TALDEA

Argitaratzailea Goiena Komunikazio Taldea Kooperatiboa Elkartea
E05 Basabe Poligonoa,
20550 ARETXABALETA
Lehendakaria Estepan Plazaola
Zuzendari nagusia Iban Arantzabal

Zuzendaria Eneko Azkarate
Erredaktore burua Uliane Madera
Sailletako arduraunak Xabi Urtzelai (Kirola), Iñaki Iturbe (Disenua), Mireia Larrañaga (Publizitatea)

Maketazioa Iñaki Iturbe, Imanol Soriano, Kepa Martelo
Publizitatea Mireia Larrañaga, Amaia Mundiriano, Ziortza Martin, Imanol Elortza
Testuen zuzenketa Sergio Azkarate.
Harpidetza eta banaketa Marta Leturia.
Administrazioa Agurtzane Gaintzarain, Ane Berebizar, Iratxe Bengoa

EGOTZA NAGUSIA - GOIENA PAPER
ARRASATE 20500:
Otalora Lizenziaduna 31 | 132 posta-kutxa
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 00


ORDEZKARITZA
ARETXABALETA 20550:
E05 Basabe Poligonoa
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 09

Publizitatea Aretxabaleta 20550
E05 Basabe Poligonoa | Tel.: 943 25 05 05
Faxa: 943 25 05 09 | publi@goiena.com

Harpidetza Aretxabaleta 20550
E05 Basabe Poligonoa | Tel.: 943 25 05 05
harpidetza@goiena.com

Legu Gordailua: NA-3329/2000
ISSN: 2174-369X
Tirada: 20.100 ale
Difusioa: 19.951 ale

GOIENAK ez du bere gain hartzen IRITZIA eta GUTUNAK orrialdeetan, edo bestelako orrialdeetako kolaboratzaileek, adierazitako initzen erantzukizunik.

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak diruz lagundutako aldizkaria

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Praktika demokratikoa

Iñigo Louvelli Nieves
(Aretxabaletako Bilduko zinegotzien babesarekin)
Aretxabaleta

Iñigo Louvelli Nieves dut, bai, izena eta izana. Gaztetan gazte-mugimendu independentistari lotua, bide horretatik hasita preso politikoen aldeko mugimenduan eta euskalgintzan jorratu dut, besteak beste, herri honekiko nire konpromisoa. Beraz, ezagutzen nauen orok badaki ezkertiarra eta abertzalea naizela, ezker abertzalekoa. Haatik, ez dut "komisario politiko" adjektibo hori gustuko; izango da nire belarrietara komisario hitz horrek "komisaldegitik" kutsu gehiago duelako, eta jakingo duzue, zuen eskutan egon baitira haietako batzuk 30 urte luzez, nik bezala pentsatzen dugunok esperientzia oso atseginak ez ditugula izaten horrelakoetatik pasatzean.

Baina egin dezagun berba etika demokratikoaz. Diozue, eta arrazoi duzue horretan, nire izena ez zela Bilduko zerrendatan agertzen eta, ondorioz, iruzur egin omen diogula aretxabaletarrei. Baina, beharbada, aretxabaletarrek jakin beharko lukete benetan non egon den iruzurra eta zergatik ni bezala beste milaka euskal herritarrek ezin izan ginen aurkeztu zerrenda horietara (eta, bai, proposamena jaso eta onartuta neukan zerrendan joateko). Hain zuzen ere, zeuen eta zeuen modukoen etika demokratiko horregatik eskubide zibil eta politikoez desjabetu nauzuelako, "ilegal", "kutsatu", "kontaminatu" eta "zikin" bihurtu gaituzuelako ni moduko hainbat euskal herritar. Horren jakitun, orain guri iruzurra aurpegiratzea, zuen etika demokratikoaz asko esateaz gain, apartheid politiko horren erantzule ere bilakatzen zaituztete.

Izan ere, ezker abertzalea erakundeetatik kanpo edukitzerakoan eroso sentitu zarete (eta hala ere, erakundeetan ez egotea kritikatu izan diguzue). Orain, erakundeetara bueltatu garela, urduri zaudete eta nago, faltan botatzen dituzuela zuen neurrira diseinatutako "demokrazia" garai horiek; Kutxabankekin gertatutakoa joko arauak zuen erara manipulatzearen azken adibidea da. Hara PNVren etika demokratikoa!

Jakizue 2007ko Foru Hauteskundeetan ANV-EAEko Deba-Urolako zerrendatik aukeratua izan nintzela batzarkide gisa. Gipuzkoan, guztira, 72.000 bozka baino

GUTUNAK

Atal honetan argitaratzeko diren gutunek, gehienez izan behar dituzte 1.900 karaktere (hutsuneak barne). GOIENAK eskubidea du gutuna laburtzeko.

Gutunarekin batera bidali beharrekoak dira: egilearen izena eta abizena, herria eta harremanetarako telefonoa.
Gutuna helarazteko bideak dira: Otalora Lizentziaduna, 20500 Arrasate | gutunak@goiena.com | Faxa: 943 25 05 00

gehiago jaso genituen. Baina, orduan ere, zuen etika demokratiko horretaz baliatuz, zegozkigun eserlekuak lapurtu egin zenizkiguten, Gipuzkoako "pastela" zuen artean banatu eta zuen *txantxulleo* guztiak oztopo barik egin ahal izateko (gogora ekarri besterik ez dugu Bravo kasua, AP-leko "gainkostu" guztiak, e.a.). Bide batez, ni zinegotzi izendatzeko erabilitako formula LOREG legearen 182.2 artikulua aplikatzea izan da; formula hau bera da borondate politikoa izan bazenute aplikatu ahal izan zenutena, ezker abertzaleari zegokion ordezkaritza politikoa ziurtatzeko hainbat udalerrri eta erakundetan (besteak beste, Lizartzan, PNVko Egibar jaunak lapurtutako alkatetzan). Formula erabat legala da espainiar legediaren baitan, horregatik harritzen nau nire izendapen eguneko osoko bilkuran PNVko zinegotziak inongo azalpenik eskatu ez izanak, gerora, atzetik, medioetan horren inguruko zalantzak azalarazteko modu oso desatseginean. Azkenaldian Gipuzkoan nagusiki martxan jarritako gerra mediatikoaren estrategia honek erakundeetan oposizioa egiteko duzuen gabezia agerian jartzea besterik ez du egiten.

Ni, nire aldetik, Bilduk lehenengo eta EH Bilduk ondoren sortutako ilusio horri eusten saiatuko naiz, apaltasunean, nire mugen barruan, herrigintzan ikasitakoa ahal den neurrian udaletxera eramanez eta alderantziz, udaletxea herrigintzara ekarriz. Ez da erronka makala, are gehiago bizi dugun garai zail honetan, baina hala ere gogotsu eta arduraz hartzen dut zinegotzi izendapena.

Amaitzeko, komeni zaizue zuen zinegotziekin duzuen komunikazioa, edukitzekotan, hobetzea. Zuen gutunaren amaieran esaten duzuenari buruz ari naiz. Dena den, guk aspaldi egina dugu apustua: izan bedi azken legealdia Espainiako erregearen izenean gure karguak hartzera behartuak gaudena. Guk, EH Bilduk, Euskal Herri independente eta errepublikaren hautua egin dugu eta gure esku dauden pauso guztiak ematera goaz.

Eta zuek independentziarena Alderdi Eguneko eslogan merke izatetik haratago joateko prest al zaudete, ala Juan Carlos I.a erregeak emandako autonomia estatutu berri baten aldeko apustuarekin jarraituko al duzue? Horixe al da zuen etika demokratikoa?

Udalak ahalmen handiagoa

Josu Garitaonandia
(Equo Bergara)
Bergara

Udaletik hasi eta nazioarteko erakundeetaraino (NBE/ONU, adibidez), tartean instituzio politiko dezente daude, probintziak, komunitateak, estatuak, e.a. Gehienak historian zehar indarkeriaren ondorioz sortutakoak dira; mundu zabalean kasu gutxi ikusiko ditugu herritarrek zuzenean parte hartutako instituzio politiko bat sortu izana. Bi instituzio ikusten ditut beharrezkoenak: alde batetik, mundu mailan giza eskubideak eta planetaren iraunkortasuna bermatuko duena (NBE erreformatu bat: orain daukagunak kriterio ekonomikoak defenditzen ditu, eta ez pertsonak); eta bestetik, udalak, herritarrengandik gertuen daudenak eta ahalmen handiagoa eduki beharko luketenak zerbitzu hobeak emateko, baita ere haien gainetik dauden beste erakundeekin edukiko dituzten harremanak erabakitzeko aukera. Laburtuz, tarteko erakundeek (probintziak, komunitate autonomoak, estatuak...) herritarren borondatearen arabera aldakorrak izan beharko lukete.

Herriak ez du ahaztuko

Ander Lizarralde Lizarralde
Oñati

Herriak ez du ahaztuko aurreko asteko GOIENA paperean Alex Ugaldek egin zuen komiki tristea (*La Razon*-en ere holakorik!). Herriak ez du ahaztuko komiki hori GOIENako erredakzioak baimendu eta

argitaratu zuela, azken finean. GOIENAk linea editorialaren ondorio bat besterik ez da. Gehiago ere badira. Eta aurrerantzean ere izango dira GOIENaren linea editoriala aldatzen ez bada.

Zenbat ama gehiago?

Eñaut Portuondo
Arrasate

Azkenaldian harriduraz ikusten dugu galtzailea elkarrizketa erregutzen. Behingoz, historia pixka bat ikasi beharko luke ETAk. Galtzaileak baldintzarik gabeko errendizioa aurkezten du eta ondoren, irabazleak erabakitzen du jarraitu beharreko pausoak zeintzuk diren. Kasu honetan, sistema demokratikoak. Eta horren aurrekariak badaudela ikusita, mondrautarrok ziur gaude Demokraziak jakingo duela eskuzabala izaten. Azken finean, ETA-PMrekin izan zuen antzeko eskuzabaltasuna izan beharko luke gaur egungo Demokraziak. Baina ETA ez dago umiliaziotzat hartzen duen prozesu hori hasteko prest. Bitartean, ETAk sorturiko ondorioetako batek –presoak– lokatzarte berean enpantanatuta jarraituko du. Zenbat ama gehiago zenduko da bere seme-alabak kartzelatik kanpo ikusi gabe; ETAk ez daukalako hartu beharreko erabaki zaila hartzeko adorerik? Zenbat Joxepa Arregi gehiago?

Errausketa eta minbizia: ikerketa berriak, ondorio zaharrak

Iulen Romarate zabala, Saioa Bolibar eta Ibai Larrañaga
(Debagoiena Zero Zabor-en izenean)
Debagoiena

Environment International aldizkariak berriki Carlos III.a Osasun Institutuko ikerlari talde batek egindako ikerketa lana ezagutzera eman du. 1997-2006 urte bitartean 8.000 herritik goratan jasotako

datuak erabiliz egindako ikerlanaz ari gara. 33 minbizi mota aztertu dituzte eta ondorioa garbia da. Errauste planta batetik gertu bizitzeak gehitu egiten du minbiziaz hiltzeko arriskua. Halaber, errauste plantak minbizia eragiten duten konposatu ugariren isurle direla diote txostenean. Dioxinak, artsenikoa, kromoa, bentzenoa... eta beste mordo bat aipatzen dira bertan.

Ez da gauza berria (eta ez da errauste plantetara mugatzen) teknologia berrienarekin aurreko teknologiak ematen zituen arazoak gainditzen direneko mito interesatua. Horrela omen zen Titanicekin, Txernobil eta Fukushimako zentral nuklearrekin, eta, nola ez, belaunaldi berriko errauste plantekin. Pertsonak engaina daitezke horrelako uste faltsuekin, baina sekulan ez errealitatea. Azken hau egoskorra da eta hobe dugu hark zer dioen entzutea.

Artikulu honen helburua ez da ikerketaren alde teknikoan sakontzea. Horretan interesa daukanak honen inguruko informazio gehiago eta jatorrizkorako estekak *www.zerozabor.org* web orrian topa ditzake. Guk azpimarratu nahi duguna ondorengo da: errausketak sortzen dituen konposatu toxiko guztiak ez dira filtroetan geratzen diren errautsetara mugatzen (Gipuzkoan urtean 14.700 tona izango lirateke hauek), konposatuak tximiniatik kanpora ere zabaltzen dira eta gure gorputzean bukatzen dute bai arnasten dugun airearen bidez, bai elikadura katearen bidez.

Hondakinak errausteak gizon-emakume guztiok inguru osasungarri batean bizitzeko dugun oinarritzko eskubidea urratzen du. Administrazioak eta arduradun politikoek herritarron oinarritzko eskubideak bermatzeko betebeharra dute, eta ez dute enpresa handien interesei men eginez eskubide hauek kaltetzeko zilegitasunik.

Gipuzkoan badago zehaztuta hondakinak erraustu gabe, zero zabor ereduari jarraiki kudeatzeko plan orokorra. Errauste plantaren proiektua behin betiko bertan behera uztea, dauden aukeretatik merkeena izateaz gain, herritarron osasuna bermatzeko modu bakarra da alor honi dagokionez. Berandu baino lehen erabaki ausartak hartzeko eskatzen diegu arduradun politikoei, errauste planta eraikitzeko kontratuak behin betiko bertan behera uzteko, eta zero zabor norabidean joateko beharrezko azpiegiturak eraikitzeko, herritarron eskubideak babestea beraien lehenengo zeregina baita. ➤

Nekatuta?

Mikel Aranzabal

Eibar

Beste behin ere, bat gehiagorekin, eta ezin partidua irabazi.

Bi aste jarraian izan du Realak hori alde, eta kikildu egin da, beldurtu.

Tira, norbaitek esango du Santiago Bernabeun galtzea, nahiz eta bat gehiagorekin jokatu ia partidu osoa, normaltzat jo dezakegula, kontuan hartuta Real Madrilek daukan potentziala. Bale, onar dezakegu, nahiz eta aukera ezin hobea galdu merengeak menderatzeko.

Baina aurreko domekan Anoetan gertatutakoak ez dauka ez hanka ez buru.

Etxean, zaleen berotasunean, ordu erdi inguru bat gehiagorekin jokatu, eta ezin Deportivori golik sartu; azken postuetan dagoen taldeari, bide batez.

Telebistaz ikusi nuen nik, eta zera nabaritu nuen... nekatuta zeudela. Izan liteke? Ez, ez dut uste... Montanier handiak aldaketa bi bakarrik egin zituen-eta. Hamaika ikusteko! Zurutuza eta konpainia han ibili ziren, beroketa ariketak egiten... ezertarako ez! Griezmannek eta beste batzuek ez zuten ondo jokatu, ez zebiltzan ondo jokatzen... baina entrenatzaileari bost! Bat gehiagorekin, eta aldaketa bat egin gabe geratu...

Tira, lehenengo itzulia bukatu da eta taldea ondo ibili da, puntu kopuru majoa batu du.

Baina hemendik aurrera, zer? Eutsiko diote gorputzaldiari ala beheranzko joera hartuko dute txuri-urdinek.

Espero dezagun ezetz.

Zapatuan daukate aukera ederra aurreko bi partiduetako emaitzak ahazteko eta, bide batez, zaleei ahaztu eragiteko, Bartzelona ahalguztiduna mendean hartzen badute.

Erraustegiek minbizia sortzen dutela frogatu da

Aritz Arnaiz Laskurain

Oñati

Aita biriketako minbiziz hil zitzaidan duela zortzi urte. Beste jende askori bezala niri ere izugarri maite nuen pertsona bat eraman zidan minbiziak. Urtebeteko prozesua izan zen, tristea afektiboki guretzat, baina gogorra eta minkorra beretzat. Erretzea, genetika... faktore askok eragin dezakete minbizia. Baita ingurugiro faktoreek ere. Horrela diote adituek. Madrilgo Carlos III.a Osasun Institutuko ikerlariek,

adibidez, Gabon hauetan *Environment International* aldizkarian publiko egin dute errauskailuen ingurunean bizitzeak lotura estua duela honoko minbiziekin: obarioak, birikak, pleura, giltzurruna eta urdaila. 1997 eta 2006 urte bitartean Espainiako Estatuko 8.000 herri ikertu dituzte eta errauskailuek minbizia sortzeko substantziak botatzen dituztela ondorioztatu dute (dioxinak, bentzenoa, artsenikoa eta gogoratzen ez ditudan beste izen zientifiko pila bat, guztiak kutsakorrak eta hiltzaileak).

Erakunde publikoek eta agintari politikoek ez erretzeko kanpainak egiten dituzte, alkohol gutxi edateko, kirola egiteko... eta bitartean, errauskailu bat jarri nahi izan digute Gipuzkoan, seguru aski jakitun diren informazio hau ezkutatuaz. Batzuk auskalo ze interes ekonomiko eta politikorengatik gure eta gure seme-alaben osasunarekin jokatzen ari dira.

Ezin dugu erraustegirik onartu gure lurraldean, hilkorrak dira, minbizia eragin dezaketela frogatuta dago. Politikariei arduraz jokatzeko eskatu nahi nieke, baztertu dezatela behin betikoz proiektu hau.

Herriarroi ere eskatu nahi nizueke buruari buelta bat emateko, gure osasuna dagoela jokoan eta gauzak ondo egiten baditugu, erosotasuna alboratu eta osasunari garrantzia ematen badiogu etorkizun hobea lantzen ariko baikara. Poltsak balkoietan jarri dituzuenoi ere eskatu nahi dizuet arduraz jokatzeko, emateko aukera bat atez atekoari, gauzak ondo egiten baditugu, birziklapen tasa altuak lortzen baditugu errauskailurik ez baitugu beharko.

Iturripeko ingurua Arrasate al da?

Ainhua Astigarraga Penedo

Arrasate

Torre Eguzkiko bizilagun bat naiz.

Nahiko erreta nago Iturripeko kiroldegi parean dagoen espaloiarekin; erreka ondokoa, zehazki.

Gehienetan, ume-sillarekin edo erroberazko sillarekin ibiltzen den norbait ezin da espaloitik pasa, autoak espaloian aparkatuta daudelako.

BAZen hainbat kexa jarri ondoren, argazki eta guzti, erantzun gabekoak, noski, galdera bat bota nahi dut: neurriak guk jarri behar al ditugu? Ala zer edo zer pasatzen denean konponbidea heldu behar da?

Martinola taldeari esker onez

Mikel Biain

(Oñatiko Udal Gobernu Taldearen izenean)
Oñati

Pasa berri ditugu Gabon jaiak eta Urtezahar nahiz Urteberriko ospakizunak. Adintzen goazen heinean beste era batera bizi izaten ditugu jai eta ospakizun hauek. Txikitan dena ikusten dugu handi, misteriotsu eta liluraz nahiz gozamenez bizi izaten ditugu hainbat ospakizun. Esaterako, Olentzero nahiz Errege kabalgata.

Herri bakoitzak bere ohiturak ditu eta esan beharra dago azken urteetan Oñatin Olentzerok nahiz Errege magoek gure txikiengan ikusmin handia sortu dutela. Oñatiren kasuan, badago protagonista bat azken 25 urteetan bi ekitaldi hauei bizia eman diena eta hori Martinola kultur taldea da. Samur esaten da 25 urte.

Martinola taldeak Udalari aurrez abisatu zion 2012ko antolakuntzaren kargu egingo zela, baina aurrerantzean eurek ez zutela jarraituko. Penaz hartzen dugu erabakia, eta, nola ez, errespetu osoz. Udal Gobernuaren partetik eskerrik beroenak helarazi nahi dizkiogu Martinola taldeari ekitaldi hauen antolakuntzan eginiko lanagatik.

Lan polita burutu duzue benetan.

Hainbat txiki eta ez hain txikirengan ilusio eta ikusmina sortu duzue Gabon inguruko jaietan.

Ezagun da herriak eskertzen duela Martinolak egindako lana eta orain arte bezala bere txikiendako ekitaldi berezi hauek ospatzen jarraitu nahiko lukeela. Alde horretatik, biziki poztekoa izango litzateke herriko beste talde nahiz banakoek errelebua hartuko balute. Esan beharrik ez dago, helburu hori lortze bidean, Udala bitarteko guztiak jartzeko prest dagoela. Izan ere, gure txikienen irribarreak ez du preziorik.

Eskerrik asko, Martinola, eta laster arte.

Zapalkuntza psikologikoa

Jon Otero Uribarren

Arrasate

Argi eta garbi, azken 50 urteetan, gutxitik hasi eta askora zapalkuntza psikologikoan bizi gara, grina eta kultur adikzioa dela medio.

Hiru hauek, telebistak, irratiak eta musika diskoak munduaren bihotza hunkitzen dute, eta osasuna tenteldu.

Hiru gailu hauen kontsumo itzela dago gaur egun.

Jendeak auto edo sasi askatasunez lelatzen du burua medio hauekin, eta gero, herria gaizki doala kexu.

Zer litzateke mundua hiru gailu moderno hauek gabe?

Lana ehuneko ehun, ziur, isiltasun osasunak giza giroetan motorra bezala herria aktibatuko luke.

Langabezia zero, giza faktorea osatuko litzatekeelako.

Norbaitek esango du herri batzuetan ez dagoela langabeziarik, nahiz eta kultur faktore hau berdin den, hots, telebista ugariz.

Baina beste faktore batzuk ere badaude ekonomiaren motorrean, ez bakarrik giza kultura eta telebista adikzioa, norbaitek probetxu jaso behar lehiakidea gaizki dabilela.

Horrela, ba, nik 25 gazte jarraitzaile nahi ditut bereganatu hiru gailu hauek debekatzeko erabaki irmoa dutenak.

Indarra erabiliz herriko tabernak isiltzeko.

Albistea urruti kutsatu dadin iraultzara ekinez.

Antolakuntza gehiagorekin odola isuri behar dela uste dut, min handia baita zapalkuntza psikologikoa.

Baina psikiatrek uste dute deabru bat naizela eta hor naukate farmakoz torturatuta, indarge, lozorro.

Ai, mundua...

Bestalde, Euskadin nahi ez dugun konstituzio bat dugu.

Konstituzio horrek argi inposatzen digu gaztelania jakitea, betebeharra, eta euskara eskubide soila.

Gero, kontuan izan mundu mailan ezarrita dagoela ingelesa harreman kultur gisa.

Beraz, mundu osoan erakusten zaie gazteei eskoletan ingelesa.

Hizkuntza bat ikastea ez da erraza eta ordu asko eta asko jardun behar da horretan, erraztasuna hartzeko.

Beraz, elebidun izan behar dute munduko gazteek, eta beste gauza asko ikasi ere.

Baina Madrilen edo Italian elebidun prestatzen badituzte, horrela ordu gehiago dedikatuz ingelesari, italieraz eta gaztelaniazko jakineko jakintzaz, zergatik hemen hiru eledun ikasketak asko eta asko konplikatzu?

Euskadik behar du independentzia eta horretarako gehiengo abertzaleaz baliatu.

Gure gogoko konstituzio nazional batekin ezabatu gaztelaniaren obligazioa, horrela ezabatuz gaztelaniaren orduak ikastoletatik emanik gehiago ingelesa eta jakina gure den euskarari.

Trebezia hobetuko dute ingelesean eta euskaran gazteek, eta mundutarrak izango gara berdin-berdin.

Eleaniztasuna eskolatik kanpo norberaren kabu lagata.

Eta azkenik, pentsioez jardungo dut.

Psikiatriko batean nago, gogoz kontra.

Nire erotasuna?

Alacanteko espetxe psikiatrikoan erdaldunei, guztiei euskaraz egitea.

Jarrera politiko erradikal bat izan daiteke erdaldunei euskaraz mintzatzea, baina ez gaixotasuna, euskara frontean baitago gaztelaniarekin.

Askotan egiten nien euskaraz. Hemen Euskadin ere bai, baina gutxiagotan.

Bueno, gauza da psikiatrikotik irteteko gogoa dudala.

Guri, pazienteei, hilean 350 euroko pentsioa ematen digute, hemen gaudela gastuak ordainduta.

Baina hara!

Zer esan didate oraintsu Hurkoa-koek.

Aitaren etxera joanez gero, ez didatela pentsioa igoko, ez Aldunditik.

Ezta inongo laguntzarik eman ere.

Ni mutilzahar, eta kargarik gabe beharko nituzke 700 euro hilean, suposatzen dut nik, kanpoan bizitzeko, aita ere txiroa izanik.

Ba ez, kanpoan ere 350 euro eta kito.

Eta aita hilez gero, esan didate berdin-berdin jarraituko lukeela, laguntzarik gabe eta 700 eurorik gabe.

Ze gastu du Osakidetzak nirekin hemen?

Izugarria.

Beraientzat errazagoa ni kalean egotea.

700 eurerekin Informatika ikasketak egingo nituzke, saiatu lan duina bilatzen, eta abar.

Kito!

Zoroendako laguntzarik ez, zoroetxeko infernua, eta kito.

IRAKURLEEI

Goienako Erredakzio Kontseiluak irakurleei jakinarazi nahi die bere jardunean funtsezko irizpidea dela bere kolaboratzaile, herritar zein gizarte-taldeen adierazpen askatasuna errespetatzea, eta hala jokatzen dela era guztietako kanpoko ekarpen edo kolaborazioekin: komiki, gutun, iritzi artikulu... Adierazten denarekin ados egon edo ez. Eta iritzi pluraltasuna dela irizpidea kolaboratzaileak aukeratzerakoan.

Era berean, adierazi nahi du, akatsak akats, gure gizartean diren eta izan litezkeen eztabaidetan ahalik eta orekarik handienarekin jardutea duela oinarritzko ardatz eta hala jarraituko duela aurrerantzean ere.

zatoz ikastolara!

matrikula epea zabalik

urtarrilaren 28tik otsailaren 8ra



HAUR HEZKUNTZA 0-6 URTE

HEZKUNTZA PROIEKTUAREN AURKEZPENA

SANTA TERESA urtarrilak 22 18:00 [Eskoriatza](#)

BILERA INFORMATIBOAK

OLARTE urtarrilak 22 18:00 [Arrasate](#)

URIBARRI urtarrilak 23 18:00 [Arrasate](#)

UMEZAINZA urtarrilak 24 18:00 [Arrasate](#)

ATE IREKIAK

BASABEAZPI urtarrilak 24 18:00-19:30 [Aretxabaleta](#)

JOSE ARANA urtarrilak 29 18:00-19:30 [Eskoriatza](#)

SANTA TERESA urtarrilak 29 17:00-18:30 [Arrasate](#)

LEHEN HEZKUNTZA 6-12 URTE

HEZKUNTZA PROIEKTUAREN AURKEZPENA

ALMEN urtarrilak 21 18:00 [Eskoriatza](#)

ARIMAZUBI urtarrilak 23 18:00 [Arrasate](#)

LEHEN HEZKUNTZA 6-12 URTE

ATE IREKIAK

SANTA TERESA urtarrilak 29 17:00-18:30 [Arrasate](#)

ARIMAZUBI urtarrilak 30 17:00-18:30 [Arrasate](#)

GAZTELUONDO urtarrilak 31 17:00-18:30 [Arrasate](#)

ALMEN otsailak 2 16:30-18:30 [Eskoriatza](#)

DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZA 12-16 URTE

BILERA INFORMATIBOAK

SANTA TERESA urtarrilak 24 18:00 [Arrasate](#)

GAZTELUPE urtarrilak 30 18:00 [Arrasate](#)

[gaztelaniaz >](#) urtarrilak 31 18:00 [Arrasate](#)

ALMEN urtarrilak 31 18:00 [Eskoriatza](#)

ATE IREKIAK

ALMEN otsailak 2 16:30-18:30 [Eskoriatza](#)

GAZTELUPE otsailak 4-7 16:30 [Arrasate](#)

Bazkideentzat abantaila eksklusiboak



Eraman ezazu beti txartela aldean!



DESKONTUAK



Ninika Loradenda
Ramon Maria Lili, 8 - Bergara

- %10eko deskontua artikuluz guztietan.



Alzu, S.L.
Arantzazuko Ama, 2 - Oñati

- Arropetan %10eko beherapena.



Naren Fisioterapia Zentroa
Belorrieta 5 behea - Aretxabaleta

- %15a zerbitzu guztietan.



Imprespal, C.B Imprimategia
Komenio 2 - Bergara

- %5eko deskontua egiten den edozein lan edo erosketetan.



Biotika
Iturriotz 21 - Arrasate

- Hauschka kosmetika etxearen makillaje produktuetan %10 beherapena.



Estacion Servicio Arrasate
San Andres 7 - Arrasate

- % 2a gasolindegian erregeia erosita.
- % 2a dendako produktuetan.



Begiondo Optika
Belorrieta, 11 - Aretxabaleta

- %15eko produktu guztietan.
- Kontsulta doan.



Etxe-Aundi Hotela/Jatetxea
Torreauso Auzoa 10 - Oñati

- %10eko deskontua menu berezian (asteburuetaoan) eta kartan.



Gahir Fisioterapia/Osteopatia
Aranburuzabala 6 behea - Eskoriatza

- %50eko deskontua lehenengo kontsultan.



- %10eko deskontua Termason tratamenduan 10 saio hartuz gero.
- Drelimpur tratamendua: 10 bono: 100€. Sesioko: 12€.
- %5eko deskontua* argizari epelarekin eta beroarekin egindako depilazioetan.

* Bekainak eta ezpain gainekoa izan ezik.



Kuttuna Estetika
Aranburuzabala 19, behea - Eskoriatza

- %5eko deskontua* zerbitzu guztietan.

* Beste promozio batzuk izan ezik



Caravanas Oñate
Otaui Zuhaitzia, 25 - Oñati

- 50€-ko erosketa egiteagatik, %10 deskontua stockean dauzkaten oinetako eta ehun-gaietan. (ez du balio beste promoziotarako).
- %20-ko deskontua lineako patinetan.



Oñati Garajea
Goribar Auzoa 9 - Oñati

- %5 beherapena egiten diren konponketetan.



Multiópticas
Juan Carlos Guerra, 1 behea - Arrasate
Ibargai, 16 Bergara

- %15eko deskontua*.

* Ez metagarria beste eskaintza batzuekin.



Esko Sport
Intxaurtxueta 5, Eskoriatza

- Arropa eta zapatiletan %10eko deskontua.

Eskaintza gehiago:
www.goienakluba.com

ZOKETA ETA PROMOZIO BEREZIAK

ADI EGON!

GOIENA Klubeko 4.000 bazkideon artean URTARRILEAN honakoa zozketatuko dugu.



3 BONO

Aisia Deba hotelean 2 pertsonarentzako gaua ostatuan, buffet-gosaria eta zirkuitu termala.

3 BONO

Aisia Deba hotelean 2 pertsonarentzako relax gastronomikoa (bazkaria enkantuarekin eta spa zirkuitua).



Urtarrileko irabazleen berri otsailaren 1ean emango dugu.

Zorte on!

URTARRILEKO SARIAK ETA PROMOZIOAK

- Pamiela: **Liburuak:** Joxe Mari Iturrালের "Frantzian je táime esaten dute" Patxi Zubizarretaren "Hiru gutun Iruñetik"
- **Erremeixuak** DVDa
- Argiako jokua: **Nairobiarra**
- Goiena: **Pendrive**
- **Arrikruz** Kobetarako sarrerak
- Amaia antzokian: "Printzea eta Ahatea" **antzerkia**. 2 sarrera (urtarrilaren 28an)
- Espaloia Kafe Antzokian: **Sara Escudero Eta Miguel Iribar** Monologo Mostra: 4 sarrera.

Espaloia Kafe Antzokia: Ernesto Sevilla "Monologos Coconut"

Sareren irabazleak: Mikel Lopez de Arkaute eta Jesus Belamendia Agirre

SMSaren kostua: 0,15 euro + BEZa mezu bakoitzeko.

Indarrean dagoen LOPD 15/1999 legearen arabera, jakinarazten dizugu zure datu pertsonalak Goiena Komunikazio Zerbitzuaren fitxategi automatizatu baten sartuko direla. Datu-bilketa honen helburu bakarra da indarrean dagoen sustapena gestionatzea. Eskubidea izango duzu datuotatik sartzeko, hainbat zuzentzeko edo ezetzatzeko, helbide honetara idatziz: kluba@goiena.com

SMS: KLUBA [sariaren izena]
[bazkidearen zenbakia] 215800 zenbakira
Telefonoz: 943 25 05 05
E-postaz: kluba@goiena.com
WhatsApp bidez: 688 69 00 08 zenbakira, saria adieraziz

Parte-hartzaile guztien artean zozketatuko da.



Beste abantaila batzuk:

- Astelehenetan eta ostiraletan Goiena papera buzoian.
- Deskontuak iragarki sailkatuetan eta eskeletan.
- Zozketa eta promozio berezietan parte hartzeko aukera.



Urteko kuota: **50 €**.
Tel.: **943 25 05 05**
kluba@goiena.com
goienakluba.com

goienakluba
Abantailaz betetako kluba!



Iñaki Petxarroman *Berria* egunkariko kazetaria da eta urteak daroatza hiri hondakinen gaia lantzen. | IÑAKI PETXARROMAN

Iñaki Petxarroman | Kazetaria, 'Su haietatik ke hauek' liburuaren egilea

"Berrerabiltzea herritar arduratsuen betebeharretan sartu behar da"

- ▶ Hernanin bizi den kazetariak berbaldiak emango ditu gurean
- ▶ Errauste planten kontrako liburua idatzi du eta hura aurkeztuko du

ENEKO AZKARATE | BERGARA
Su haietatik ke hauek liburua argitaratu berri du Iñaki Petxarroman (Lasarte-Oria, 1973) kazetariak. Errauste planten gainean eta hiri hondakinen inguruan dihardu liburuan eta errauste plantaren aurka egiten du argi eta garbi. Datozen bi asteotan Oñatin eta Bergaran aurkeztuko du liburua eta hitzaldiak eskainiko ditu.
Zergatik dago eztabaida politikoa-ren erdian hiri hondakinen kontua?
Diputazioan, mankomunitateetan eta udaletan agintean daudenek erabaki dutelako errauste plantarik ez egitea eta, horrek, ezinbestez, betebeharrak dakartzalako: errauste plantarik ez badugu nahi, zela kudeatu behar ditugu hiri hondakinak? Bi modu daude hondakinak kudeatzeko: bata da gaur egungoa, %30 edo 40 berrerabiltzen duena eta gainerakoa zabortegi toxikoetara eroaten duena; eta, bestea, berrerabilpen maila handitzea dakarrena, hondakinak gutxituz, era horretara bestelako eredu batera hurbiltzeko.
EAJ eroso ikusten duzu eztabaida horretan?
Bai, baina okertzen ari direla iruditzen zait. Musean txikirako hordagoka arituko balira bezala. Ezagutzen ez duen kontu baten inguruan jendea aztoraraztea edo

beldurtzea samurra da, baina denboraren eta garai berrien aurka dabilta. Europatik datozen esperientziek diote ahalik eta gehien berrerabili behar dela eta, bereziki, krisi garai hauetan hondakinak ezin ditugu alferrik zabortegietara edo errauste plantara eroan. Naturaren aurka ez badugu joan nahi, ezinbestekoa da berrerabiltzea, ezinbestekoak dira arduratsu jokatzeko eta kontzientziarazteko. Hortaz, herritarrak aztoratzea, kalkulu politikoak egin dituztelako eta gobernua dagoen Bilduko alkatea ahulduko dutelako... epe laburrera baliko die, baina etorkizunera begira, porrotera doan jarrera da, nire ustez.
Azkarregi hartu dira erabaki batzuk atez atekoa ezartzeko?
Oso zaila da erritmoak neurtzea. Errauste plantaren tramitazioaren faseak oso azkar eroan ziren aurrera eta horri azkar erantzuteko beharra izan dute orain gobernatzen daudenek. Baina bai, baliteke herriren batean

denbora luzeagoa behar izatea, berba eginez hartu beharra erabakiak... Dena dela, Hernanin ere horixe aipatzen zen eta gaur egun abian dago atez atekoa eta jendea naturaltasunez ohitu da. Herritarrek eredu aldatu nahi badute eta errauste plantarik ez badute nahi herrian, zer egin behar dute? Berrerabiltzeak hautazkoa izan behar duela eta jendeari ezin zaiola ezer inposatu? Gezurra esaten ari zaio jendeari. Berrerabiltzeak derrigorrezkoa izan behar du, herritar ardurasuen betebeharretan sartu behar da, ezin zaio naturari kutsadurarik bota, ezin zaio jendeari bere osasuna arriskuan jarri...
Baina inori ez zaio gustatzen edo-zer gauza egitera behartzea, egin beharreko hori zilegi izanda ere. Hortik uler daiteke Bergaran gertatu den moduko erantzuna atez atekoaren aurka?
Baliteke egotea jendearen aldetik zelanbaiteko erantzun gogo bat. Sentitzea politikariak ari zaiz-

kiola behartzen gauzak egitera. Baina, Gipuzkoan planteatuta dagoen errauste planta Zubietan izan beharrean Bergaran izango balitz, gaur egungo eztabaida oso ezberdina izango litzateke Bergaran. Eta herritarrek ikusi behar dute herriak, Udalak, daukala hiri hondakinak kudeatzeko eskumena. Helduko da une bat udal bakoitzari eskatuko zaiona bere hondakinak ahalik eta gehien berrerabiltzeko, ze, bestela, jarri beharko zaizkio herritarrari hoberi edo zigor fiskalak, bere hondakinak zabortegietara eroan beharko dituelako. Bergararrek ez badute nahi errauste planta toxiko bat eduki beren herrian, prest egongo dira beren hondakinak beste modu txukunago batean kudeatzeko.
Hernanin bizi zara. Zela bizi izan duzue han eztabaida?
Begararrei gertatzen ari zaiena lehenago bizi izan dugu Hernanin ere, edota lehenago Katalunian. Herritarrek, hasieran, erreparoz begiratzen diote gaiari, baina,

behin ezagutzen dutenean, ohitzen direnean, gaika sailkatzera hondakinak, erraz egiten dute. Hernanin ere gaia gori-gori egon zen hasieran, kalean, eta ezker abertzaleko boto emaile bat baino gehiago egon zen kontra, erritmoetan, nabarduretan..., baina gerora, jarrera aldatzen du kontra dagoen erdiak baino gehiagok.
Zela ikusten duzu ezker abertzalea azkeneko hauteskundeetan eta Gipuzkoan EH Bilduk izandako atzerakadaren ostean?
Hainbatean, deseroso. Gai hau kudeatzea konplikatu da, herritarrak badu sentsazioa zerbait inposatzen ari zaiona. Halere, uste dut, ezker abertzaleak ezin dezakeela inondik inora atzera egin, EAJren ereduaren berdina edo kalkoa ezin da izan, izan beharko luke alternatiba, nahiz eta deserosoa izan eta, kasuren batean, boto batzuk galtzera eroan. Botoen gainetik koherentzia politikoz jokatu behar du.
Bilduk eta Aralarrek Bergaran erabateko gehiengo dute. Orain egingo balira hauteskundeak?
Zaila da horri erantzutea. Eragina izango luke, jakina, eztabaida haizatzen ari direlako, baina esango nieke bergararrei, hiri hondakinak modu iraunkor eta osasuntsuagoan kudeatzearen aldeko direnei, gaur egun ekaitz horretatik aterako direla eta hondakinak beste modu jasangarriago batean birziklatzen jartzen direnean, hori martxan jarri ondorengo egunetik aurrera burua altxatzen hasiko direla.
Erraustegiak minbizia sortzen du?
Bai, hori ez dut nik asmatu. Hainbat txostenetan agertu da eta azterketa epidemiologikoetan ondorioztatu dute errauste plantatik gertu bizi diren herritarrek minbizia izateko arriskua handiagoa dutela besteek baino. Azterketa horren ondorioz hainbat tokitan baztertu dute erraustegia jartzea.
Baita Zubietakoaren moduko azken belaunaldiko edo moderno-moderno horietako batek ere?
Jakina, sasoi batean Arrasaten egon zen Akei errauste plantaren modukoa ez litzateke izango, baina saiheste ezina da errauste planta horrek ez sortzea furanoak, metal astunak, errauts toxikoak edo dioxinak. Zubietakoa moduko errauste plantak ere sor dezake minbizia.
Proposatzen diren zabortegi inerteak ez dira kutsakorrak?
Planteatzen duten irtenbide teknikoak da planta mekaniko biologiko batzuetan txarto birziklatuta doazen zaborrak tratatzea, sikatzeko, kapsula batzuetan itxi eta inerteen zabortegi batera eramateko. Horra iristen dena zenbat eta txikiagoa izan, kutsadura gutxiago sortuko dugu gure lurrian eta askoz hobea izango da %80 birziklatzea herrietan, %40 birziklatzea baino. Gainera, Zubietako erraustegiak errauts toxikoak ere sortuko lituzke eta horiek ere, toxikoenak, zabortegietara eroan beharko lirateke, zabortegi berezietara. Ez da egia erraustegiekin zabortegiak beharrezkoak ez direnik.



"Musean txikirako hordagoka arituko balira bezala dihardu EAJk"

"Botoen gainetik, koherentziaz jokatu behar du agintariak"

"Erraustegiko errauts toxikoak ere zabortegietara eroango lirateke"

HERRIAK

ONATI

Oñatiko PaP Ez! plataforma desegin da, "errepresaliengatik"

- Ia urtebeteko ibilbidea egin du plataformak eta jasotako sustengu guztiak eskertu ditu
- Bilduko udal taldeak emandako prestaurrekoan, "biktima papera" leporatu dio

OIHANA ELORTZA | OÑATI

Oñatiko PaP Ez! plataforma desegin egin da sortu zenetik ia urtea pasa denean. "Udal Gobernuak Oñatin ezarri nahi zuen hondakinen atez ateko bilketa sistemak hutsune batzuk eta sentsazionalismo gehiegi" zuelako sortu zela dio prentsara bidalitako oharra (ez dute adierazpenik egin gura izan), eta desegitearen arrazoietako bat plataformako kideek izandako "errepresaliak" direla: "Batzuen aldetik ez eredugarriak ez demokratikoak diren jarrerak jasan behar izan ditugu, hainbat pintada, pankarta eta esaldi mingarri".

Sostengu handia

"Badakigu hiritarrek kontzientzia hartu beharra dutela hondakinak sortzea murrizteko, zaborrak ateratzeko ezarritako egunak eta orduak errespetatzeko eta materialen erreziklaia eta berrerabilpena gehitzeko. Guk uste dugu 5. edukiontzia litzatekeela sistema egokia funtzionamendu onari eta erreziklaia handiagoari begira", dio plataformak bidalitako oharra. Eta jarraitzen du: "Denbora horretan zehar jaso dugun sostengua handia izan bada ere, garbi ikusi dugu hainbat herritarrek gehiago inplikatzeari mesfidantzaz begiratzen ziotela errepresalien beldur: 'nirekin ez bazaude, nire kontra baitaudete'. Irainduak sentitzen gara, gure jarrera zaharkitua dela esatean, ez-progresista, eta errauskailuarekin zein minbi-ziarekin parekatzen gaituzunean. Hauxe galdetzen diogu geure buruari: zer egingo ote dute zaborrarekin atez atekoa ezartzen ez duten herrietan, besteak beste, Donostian?".

Herri galdeketa eskatu

"Jasotako sostengu guztiak [2.416 sinadura aurkeztu zituen azaroan] eskertzen ditugu, zuen etxeetako leiho eta balkoietan zabor poltsak paperez edo plastikoz beteta zintzilikatzeko gonbita eginez". Eta eskerrak eman aurretik, bi galdera: "Zergatik ez du Udalak herri galdeketa egiten? Zergatik ez dio kasurik egiten era askotara bere desadostasuna jakinarazi dion herritar multzoari?".



Abenduaren 21ean deitu zuen PaP Ez! plataformak zabor poltsak balkoietan jartzera; argazkian, Kale Zaharra, atzo, eguna. | ZURIÑE VELEZ DE MENDIZABAL



Atzo, Bilduko udal taldeak osoko bilkuren aretoan emandako prentsaurrekoa. | ZURIÑE VELEZ DE MENDIZABAL

"Biktima papera" leporatu dio Bilduk plataformari

Oñatiko Bilduko udal taldeak prentsaurrekoa eman zuen atzo (eguna) 11:00etan osoko bilkuren aretoan atez atekoaren kontra dagoen plataformako kideei erantzuteko. Plataformaren mezuak bi helburu bilatu gura izan dituela esan zuen. Batetik, herrian atez atekoaren ezarpenerako martxan den prozesu parte hartzailea "oztopatzea": "Pasa den astean atez atekoari aukera bat emateko eskatuz egin zen agerraldi jendetsuaren aurrean eta aste honetan zehar burutzen ari den prozesu parte-hartzailearen arrakastaren aurrean —burututako sei bileretan 464 pertsonak parte hartu dute— eragin nahi izan dute,

gaineratu zuten prentsaurrekoan. Bukatzeko, dei egin zien herritar orori parte hartze prozesuetan parte hartzera —10 bilera geratzen dira lehen fasea amaitzeko—, eta "utz dezagun behingoz hondakinen gaiaren erabilera politikoa egiteari, irainei eta bazterrak nahasteari".

Atzo arratsaldean, bilera egin zuten Bilduko udal taldeak eta PaP Ez! plataformak. "Errespetuzko" bilera izan zen, alde biek adostutako testuan jasotzen denez: "Gaurko bilera, egin ditugun bilera guztiak bezala, errespetuzkoa eta bi aldeen arteko begirunean oinarritutakoa izan da".

berau oztopatuz". Bestetik, "biktima papera" hartzea: "Ez goaz juzgatzen irain, mehatxu edo errepresaliak izan diren edo ez plataformako kideak nozitzen ari direna. Berri eman diguten gertaera bakarrak *Errauskailurik Ez!* bi pintaketak [Batzokian eta plataformako kide baten senide baten denda] (berehala borrotatuak izan zirenak) eta Interneteko foroetan azaldutako iritziak. Aipatutako foroetan anonimotasunean ezkutatzuz alde guztiendako denetarik esan da eta ez dugu hor esan direnak ez konpartitzen eta ez babesten".

Harreman ona

"Bilduko udal taldeak adierazi nahi du hasiera-hasieratik harreman ona mantendu izan duela plataformarekin eta eskatu duten guztietan bildu dela beraiekin",



Udalak etxe txiki guztiak babestuko ditu. Plan Berezi bat egingo da bizigarritasun baldintzak bete ditzaten. | JOKIN BEREZIARTUA

Plan Orokorra idazteko irizpideak zehaztu dituzte

Osoko bilkuran aho batez onartu zen Hirigintza batzordearen proposamena

JOKIN BEREZIARTUA | ARRASATE

Hiri Antolamendurako Plan Orokorr (HAPO) berriak urrats garrantzitsua eman du asteon. Izan ere, agiri berria idazteko irizpideak onartu ziren martitzeneko osokoan, aho batez. Agiri garrantzitsua da arrasatearrendako: erabilera nagusiak nola banatuko diren, hiriarren egitura orokorra zelakoa izango den, etxebizitza berriek non eta nolakoak izan behar duten, basoak, industri guneak... Finean, etorkizuneko Arrasate zein norabidetan erai-kiko den zehazten du.

Kontseilua, ezinbesteko osagai
Egun Arrasaten indarrean dagoen Plan Orokorrak zortzi urte bete zituen 2011n eta Udalak, zegokion azterketa egin ostean, plana berrikustea erabaki zuen.

Udaleko Hirigintza batzordeaz aparte, Aholku Kontseilua ezinbesteko osagaia da HAPO berria idazteko. Kontseiluak 32 kide ditu eta herriko hainbat alor, talde eta kolektibo ordezkatzen ditu. Onartu diren irizpideak hiru ataletan bereizten dira: kontseiluak landutako gaietatik eratorritakoak –27 guztira–, Ingurumen Sailak adierazitakoak –bost– eta iradokizun zehatz batzuen ondorioz finkatutakoak –11–. Aholku Kontseiluak landu dituen irizpideak dira garrantzitsuenak.

Etxebizitza arloan, besteak beste, Azerin etxebizitzak egitearen alde egiten da, *Aprendices* erai-kinean etxebizitzak ez eta jarduera ekonomikoetarako mantentzearen alde, Atxabalpe futbol zelai ohia ekipamenduetarako utzi eta gainontzekoa lurzoru hiritarrezin bezala sailkatzea, Aldaiazpi birgaitzea –beti ere bizilagunei galdetu ostean–, eta San Josepe harrobia industrigune moduan lagatzea.

Jarduera ekonomikoei dago-kienez, nabarmendu behar da Kanpazar harrobian lur-azpiko meatzaritza garatu ez dadin babes neurriak ezarriko direla.

'Etxe txikiak' babestea

Mugikortasun arloan, gure herriko ondare historikoaren parte diren *etxe txiki* guztiak babestuko dira, beti ere etxebizitzek bizigarritasun baldintzak betetzen dituztela bermatzen duen Plan Berezi bat egiten bada. Beste proposamen batzuk ere onartu dira: Udalaizten babes maila 600 metrora eta Murugaingoa 750 metrora jaistea, Lezetxikiko Karraskain bailara guztia babestea, Etxaluze inguruko haitzuloaren babesa San Josepe etxeraino zabaltzea eta San Balerio ermita babestea. Orokorrean, ondare historikoa defendatzearen alde egin du Udalak.

HAPO: hemendik aurrerako bidea

- Udal Aholku Kontseiluko kideekin bilduko da osokoan hartutako erabakiaren berri emateko.
- Irizpideak onartuta, agiria idazten hasiko dira udal zerbitzuak. Agiri zehatza eta osatua izango da; urtebete beharko da, gutxienez.
- Agiri hori idatzitakoan osokoan hasiera baten onartu eta jendaurrean jarriko da. Horren gainean ere txostena egingo du kontseiluak.
- Helegiteak aztertu eta kontseiluaren txostena jaso ostean, behin-behineko onartuko da osokoan. Funtsezko aldaketak badaude, aurreko urratsera.
- Behin-behineko onartutako agiria Jaurlaritzako Lurralde Antolamendurako Batzordeari bidaliko zaio, txostena egin dezan.
- Txosten hori jaso ondoren, osokoan behin betiko HAPO agiria onartu ahal izango da.

Urteko lehen baserritarren azoka bihar, hainbat berrikuntzarekin

A. A.J.B. | ARRASATE

Urteko lehen baserritarren azoka izango da bihar, Seber Altuben (09:00-14:00). 20 postu egongo dira; horien artean bederratzi Debagoienekoak. Garaiko produktuez gain, orturako tresneria eta zuhaitzak ere izango dira biharko azokan.

Urtarrila eta Otsaila zuhaitzak eta baso landareak landatzeko garai aproposa dela-eta, antolatzaileek ahalegin berezia egin dute zuhaitz mintegiak erakartzeko. Baina garaioan ekoizle horien agenda estua da eta bi izango dira bihar Seber Altuben: Zaldibarkoa bat eta Igorrekkoa bestea. Beste berrikuntza bat da ortuko lanetarako tresneria eta makinak egongo direla. Marga Garmendia Enplegu eta Garapen Saileko teknikariaren arabera, aspaldi egin

zioten gonbidapena Arrasateko Juan Mari Zuazubiskarri. Beraz, bihar tresneria ezagutu, erosi eta behar den informazioa eskuratzeko aukera egongo da. Tresneriarekin lotutako eskaintzarekin jarraituz, Felix Barcinaren sukalderako tresnak ere egongo dira, baita orain bi urte gurean izan zen Azurmendi otargileak egindakoak ere.

Ekoizle berriei zabalik

Ohiko produktuez aparte–gazta, ogia, sagar zukua eta garai-ko barazkiak–, Harreman erakundearen Bidezko Merkataritza postua eta Jesus Romeroren pintxoak egongo dira, baita ohiko saskiaren zozketa ere.

Udala pozik dago, azokaren alde batean zein bestean gero eta jende gehiago dabilelako. Ekoizle berriei zabalik daude.



20 postu egongo dira bihar, urteko lehen baserritarren azokan. | ARTXIBOA



JOKIN BEREZIARTUA

Mozambikeko lanarekin pozik

Mundukidek eta Harremanek Mozambikeko proiektuen berri eman zuten eguaztenean Kulturaten. Afrikatik heldu berri, Beñat Arzadunek hartu zuen hitza: "Mozambikeko Gobernuak asko eskertzen du gure lana, beti daude laguntzeko gertu". Hainbat xehetasun eman zituen proiektuaren gainean, eta gero, Txorbela otxoteak borobildu zuen saioa.

ALTZARIAK

ARMAIRUETAN ADITUAK

Herrero

ARMAIRUAK NEURRIRA / EGONGELAK
GAZTE-ALTZARIAK / LOGELAK / SOFAK

DISEINUAK / PROIEKTUAK



Mugitegi poligonoa Vial B 11 • URRETXU (Gipuzkoa)
www.revestimientosherrero.es
Tel.: 943 72 33 16 - 639 84 11 47

f JARRAI
GAITAZU

Terraza ipintzeko tasa ordaindu beharra gogoratu du Udalak

Udalak gutun bitartez gogorazi die herriko ostalariei, bide publikoa aulki, mahai, kupel eta bestelakoez okupatu gura izanez gero baimena behar dela.

"Bide publikoa okupatzeko urteko udal tasa bat ordaindu behar da hartutako metro lineal bakoitzeko".

Baimena eskuratzeari gainera, fidantza bat ere ipini behar dela gogorazi dute. Hori 600 eurokoa izango da mahai edo beladoreen kasuan eta 100 eurokoa, berriz, jarleku eta kupelen kasuan.

Udal baimena BAZen eskura daiteke.

Hogeita hamar orduko ikastaro berri bat egingo du ARTEk

Arrasateko Tailaginen Elkar-teak antolatuta, erdi mailako taila ikastaro bat egingo dute hilaren 28tik aurrera; 30 ordu-tako iraupena edukiko du.

Bertan izena emateko has-tapen ikastaroa eginda eduki behar dela eman dute jakite-ra ARTEko kideek.

Interesatuak, gainera, ikastaroen berri jaso eta egingo den lana aukeratzeko, ARTEk Nafarroa etorbidean, Debagoieneko ospitale aurrean daukan lokaletik pasa behar-ko dute urtarilaren 21etik aurrera 10:00etatik 12:00etara eta 17:00etatik 19:00era bitar-tean. Izena emateko edota informazio gehiagorako, 620 174 255 zenbakira deitu.

Nerea Mendizabal | Psikopedagogo

"Gurasoen beldurrek babestu nahia adierazten dute askotan"

► Hitzaldia eskainiko du hilaren 24an Kultureteko Jokin Zaitegi aretoan

► 'Haurren konfiantza eta gurasoen beldurrak' izango da landuko duen gaia

ZURIÑE VELEZ DE MENDIZABAL

Txatxilipurdik antolatuta, *Gure beldurrei begiratzuz, haurren konfiantza bermatzen* hitzaldia eskainiko du Nerea Mendizabal psikopedagogoak urtarilaren 24an Kultureteko Jokin Zaitegi aretoan, 17:30ean hasita.

Eskainiko duzun berbaldian gurasoen beldurrak eta haurren konfiantza izango dituzu hizpide...

Batez ere amatasun eta aitatasunean pil-pilean ditugun barne tirabirei buruz egingo dut berba. Haurrengan konfiantza izatea garrantzitsua da, baina ez dut uste gure buruari eskatu behar diogun zerbait denik. Konfiantza ez da edozein modutan aldatzen den zerbait, horren atzean beldur batzuk daude, kezka batzuk. Guraso bezala dena ongi egin gura izaten dugu eta momentu eta egoera konkretu batzuetan zerk mugatzen gaituen ikusteko gune bat eskaini nahi dut hitzaldian. **Zeintzuk izaten dira, psikopedagogo bezala, gurasoengan ikusten dituzun ohiko beldurrak?**

Askotarikoak daude. Guraso bezala oso presente egoten dira besteen artean, umeak behar bezala ez eboluzionatzea, guraso bakoitzarentzat garrantzitsuak diren gauzak ez ikastea, balore garrantzitsuak ez jasotzea... Eta orduan imajinatzen hasten gara: umea horrelakoa bada, arduragabea izango da, lotsagabea, edo



Nerea Mendizabal. | NEREA MENDIZABAL

"Beldurrak izatea normala da, haurrak babesteko nahia adierazten dute"

huts egingo du, ama-aita bezala gaizki heziko dut hau horrela eginda, gehiegi permititzen diot...

Beldurrak ditugu baita ere sufritzeko, bai guraso bezala, baina baita umea sufritzen ikusteko ere, min hartu edo gaixotzeko... Askotan, gainera, badi-

tugu horren kontziente ez diren beldur batzuk, baina gure jokae-rak mugiarazten dituztenak.

Beldur horien eraginez haurrak gehiegi babesten al dira?

Guraso bezala bi alderdi daude, zenbait kontutan gain-babestu egiten ditugu haurrak, eta beste gai batzuetan berriz, ez horrenbeste. Guraso guztiok bi plateretik izaten dugu.

Guraso batzuen historia edo bizipenetatik, noski, egon daiteke gain-babeserako tendentzia. **Haurrek beraien buruan konfiantza izateko, gurasoek beldurrak gainditu behar dituzte. Nola lortu?** Lehenengo gauza guraso bezala dugun desira, umeak bere buruan konfiantza izatea da, eta horrekin batera, zoriontsu izan dadila, autonomoa, bizitzaz disfrutatu dezala... Eta noski, haurrak bere buruan konfiantza edukitzeko aurreneko urratsa, gu geu umeagan fidatzea da, ez dut beste modurik ikusten.

Gure kultura mesfidantzaren kultura da, jendarteak ez digu erakutsi konfiantzarik izaten. Eta konfiantza ez da nolanahi lantzen. Gure beldurrak identifikatu eta zer esan nahi diguten begiratu behar dugu.

Baina gaineratuko nuke, beldurrak izatea normala dela, funtzio oso garrantzitsua baitute, eta polita da, haurrak babestu gura ditugula adierazten dute eta.

Hondakin bilketa sistema desberdinen kostu ekonomikoa eztabaidagai

► Stop Atez Atekoak salatu du atez atekoa ez dela "ekonomikoki bideragarria"

► Udal Gobernuak erantzun du "fluxu ekonomiko positiboa" ekarriko duela

UBANE MADERA | ARRASATE

Stop Atez Atekoa plataformak dio atez atekoa ezartzeak "hirukoiztu" egingo dituela "zaborren tratamenduak egun dituen kostuak". Oscar Gartzia plataformako bozeramaileak "kritikatu du" osokoan onartu berri diren 2013ko Arrasateko aurrekontuetan "200.000 euroko partida bat aurreikusten" dela Mankomunitaterako, "iazkoarekiko %15 handiagoa" dena.

Insistitu du atez atekoa "kostu oso handia" duen sistema dela, eta "Bilduko gobernua ziurtatzen duen atez atekoarekin lortuko diren ingurumen onurak ez daudela frogatuta". Gartziazen ustez atez atekoa "ekonomikoki ez da bideragarria, eta Udaleko diru kutzari porrota eragingo dio". "Atez atekoak ekarri behar duen diru xahutzea

salatzen dugu, ez dugun diru publikoa", gaineratu du.

Kritikatu du "ezker abertzaleak, lehenago ANV eta orain Bildu, aurreko legealditik erabakita" zuela Arrasate atez atekoa izango zuela, "bertako bizilagunen eta gainontzeko udalbatzaren iritzia kontuan hartu barik".

Plataformatik atzera ere "errebindikatu" dute "edukiontzi itxi eta ordenatuen eraginkortasuna, hondakinak batzeko sistemarik onena moduan", eta Arrasaterako "bosgarren edukiontzia erreklamatu" dute, "bizilagunendako indarkeria suposatzen ez duen" modelo moduan, "atez atekoa izaten ari denaren kontrara".

Udal Gobernuaren erantzuna

Stop Atez Atekoa plataformari erantzunez, Arrasateko Udal

Gobernuak gogora ekarri du "ahalik eta bilketa selektibo maila altuena lortzea dela zaborraz dugun arazoari konponbidea emateko modu bakarra". Horri laguntzen azpimarratu dute "atez atekoa jarri duten herrietan %80tik gorako bilketa selektiboa lortu" dutela.

Bestalde, Mankomunitateko inbertsioei dagokienez, esan dute inbertsio horiek egin direla "zerbitzu berriak emateko: organikoaren bilketa eta hondakin bilketa selektiboa industria, komertzio eta zerbitzuetan". Eta gehitu dute "edozein bilketa sistemarekin ere, aurtengoa bezain "garestia" izango litzatekeela inbertsioa, "edukiontziak eta kamioiak berritzeko".

Bideragarritasun ekonomikoari dagokionez, berriz, gogora

ekarri dute azterketa ekonomiko batetik "ondorioztatzen" den moduan, "Debagoienari atez atekoak fluxu ekonomiko positiboa ekarriko diola", eta galdetzen dute ea badakiten "ordaintzen ditugun tasetatik dirutza joaten dela errauskailuaren mailegua ordaintzera". "Jakin gaikako bilketa eraginkorra ez badugu egiten urtero tasa horiek izugarri garestitutako zaizkigula", gaineratu dute.

Horrekin batera, jakinarazi dute "aurten Espainiako Ingurumen Ministerioak Usurbil izendatu" duela "hondakin bilketan eredugarri", eta baita ere, "Espainiako epidemiologiako institutu ofizialak" argitaratu duen ikerketan batean esaten duela "errauskailu baten inguruan bizi direnek askoz arrisku handiagoa dutela minbizia izateko".

Bukatzeko, nabarmentzen dute "bosgarren edukiontziazen sistema" ez dela "inolaz ere eraginkorra" eta atez atekoak "bermatzen" duela "etorkizun jasangarria". Eta indarkeria salaketari buruz, berriz, zera diote: "Arduraz jokatzeko indarkeria bada...".

ZALDIBAR

EMAITZAK

Ostantz-Iluntz	3-4
Dribling-Lasagabaster	6-1
Fidel & Discipulos-Aldatz	2-7
Iluna Taberna-Aston Birra	0-11
AT Betray-Haizea's Weah	3-4
Abokajarro-Sonografos	4-5

SAILKAPENA

TALDEA	P	J
1 Sonografos	19	7
2 Iriztu	16	6
3 Abokajarro	13	6
4 Dribling	12	6
5 Aldatz	12	7
6 Ostantz	11	6
7 Lasagabaster	9	7
8 Haizea's Weah	9	7
9 Iluntz	7	7
10 Fidel & Discipulos	6	6
11 AT Betray	4	6
12 Aston Birra	4	7
13 Iluna Taberna	0	6

PARTIDUAK

Urtarrilak 19, zapatua

10:30 Iluna-Sonografos / **Haizea's Weah**

11:30 Fidel-Haizea's Weah / **Sonografos**

12:30 Iriztu-Lasagabaster / **Fidel & Dis.**

Urtarrilak 20, domeka

10:30 Dribling-Aston Birra / **AT Betray**

11:30 AT Betray-Abokajarro / **Dribling**

12:30 Ostantz-Aldatz / **Abokajarro**

Atsedena: Iluntz

Hiru jokalarik partidu bateko zigorra jaso dute

Antolakuntzak jakinarazi duenez, Iluntz, Ostantz eta Iluna Taberna taldeetako jokalarik bana zigortu behar izan dute aurreko jardunaldian erakutsitako kirol lege ezagatik. Partidu bateko zigorra jaso dute. Era berean, Aston Birra taldeak fidantza galdu du dagoeneko.

'Neguko merkaturia', hilaren 28ra arte

Antolakuntzak gogora ekarri du datorren jardunaldirako ordu aldaketa eskatzeko azken eguna domeka dela. Bestalde, antolatzaileek aurten aukera emango diete taldeei jokalarik berriak fitxa ditzaten. *Neguko merkaturia* urtarilaren 28an amaituko da.

OHARRAK

OKENDO LUDOTEKAN JAIA

Okendoko Ludotekak 10 urte betetzen dituela eta, *Lili eta Lalo Loloren bila* ipuin kontaketa magikoa eta merendola egingo dute gaur, 17:00etatik 20:00ak bitartean.

ZINE FORUMA

Domicilio privado emango dute domekan gaztetxean 18:30ean, Askapenak antolatutako zine forumaren baitan.



Mikel Ibartzabal langilea erraldoietako bat margotzen, Urretxuko lantegian. | JOSU TXINTXURRETA

'Bikini operazioa' erraldoi eta kiliki zaharren pisua arintzeko

60 bat kilo dituzte orain dela 27 urteko erraldoiek eta 15-20 bat kendu egin gura dizkiete, haiek erabiltzea errazagoa izan dadin konpartsako kideendako

UBANE MADERA | ARRASATE

Gomez Gonzalez de Butron, Elvira de Leiba, Martin Bañez de Artazubiaga eta Santxa Otxoa de Ozaeta Marzana ganboatar eta oinaztarrak dietan daude. Eta dieta gogorra ezarri diete, gainera, 15-20 kilo galdu eragitekoa.

Urretxuko tailer batean daude lau erraldoiok *bikini operazioa* egiten. Sei kilikiri ere dieta bera ezarri diete, Arrasateko Udalaren dirulaguntzari esker.

Hain justu, hamar horiek dira Arrasateko Erraldoi eta Kilikien Konpartsako "kide" zaharrenak, duela 27 urte egindakoak. "60-65 kilo pisatzen dute, eta kalkulatzen dugu 40-45 bat kilotan geratuko direla. Duela 27 urte kapa sendoagoa jartzen zitzairen, eta orain kapa fintxo batekin indar bera egiten da eta pisua asko jaisten da. Hori egiten dabilta", azaldu du Joserra Perezek, konpartsako kideak.

Guztiak ere Inauterietarako konponduta izatea espero dute, orduantxe dute-eta hurrengo hitzordua. Edozelan ere, kanpokoen begiradarako, ez da igarriko aldaketarik: "Lana ondo egin duten seinale litzateke".

Konpartsarako kide berriak

Erraldoi eta kilikiei pisua kentzea ez da, baina, estetika kontu hutsa. Konpartsarako kide berriak lortzeko erakargarriago bilakatu gura dituzte: "Jendea atzera botatzen da entzuten duenean 60 kilo dituztela; espero dugu orain 45 kilorekin jende gehiago animatzea. Eta bestela, berez konpartsan bagaudenondako ere ez da gauza bera 60 edo 45 kilo bizkargainean erabiltzea. Kilikiei dagokienez, berriz, ez dute horrenbeste pisatzen, baina barruan ordubetea-edo egon beharra dago, eta eskertuko da pisu gutxiago izatea".

Izan ere, horixe da Erraldoi eta Kilikien Konpartsak aspaldi-ko urteotan duen arazorik nagusia: jende falta. "Estu, oso estu gabilta. Urteotan kilikiak noiz-bait irten dira (ez guztiak), baina ezin ditugu atera ez gaudelako jenderik. 11-12 lagun gabilta, beti guztiok ezin izaten dugu, eta erraldoiak kostata irteten dira. Espero dugu egiten dabiltzanarekin eta apur bat mugituta, jendea animatuko dela, eta ea lortzen dugun egunen batean dena ateratzea. Lehen ibilitako batzuek pisuarengatik utzi zuten konpartsa, eta espero dugu horiek bueltatzea", dio Perezek.

"Gogoa besterik ez da behar"

Erraldoi eta Kilikien Konpartsan 12 erraldoi (txiki, ertain eta handiak), sei kiliki eta bi zaldiko dituzte. Jende dezente behar da dena ateratzeko, baina erraldoi txiki eta ertainendako badute harrobia. Gainontzekoendako, "gogoa besterik ez da behar. Ez da ez altura eta ezta pisu jakinik behar, eta ez da gimnasiora joan beharrik ere", azpimarratu du Perezek jendea animatzeko.

DATUA

1.998

ZENBAKI IRABAZLEA

1.998. Hori da Erraldoi eta Kilikien Konpartsako egutegien zozketako zenbaki irabazlea. Saria: PC Tableta (Ttukun dendan).

Donostiara joan da aurten Jokin Zaitegi itzulpen saria

Maialen Marin eta Aiora Jaka gazteek irabazi dute, txineratik zuzeneko itzulpena eginda

JON BEREZIBAR | ARRASATE

Aho batez aukeratu du epaimahaia Jaka (Donostia, 1982) eta Marin (Donostia, 1983) donostiarren lana, "jatorrizkoari ondoen lotzen zaiona" dela irizita. Izan ere, Mo Yan 2012ko Literaturako Nobel saridun txinatarraren ipuin bilduma bat da (behin-behingo *Nagusia gero eta umoretsuago dago* tituluarekin) itzuli beharreko obra. Sarituek zuzenean itzuliko dute lana txineratik, gainera.

Aurten, Jokin Zaitegi itzulpengintza lehiaketan, azpimarragarria eta deigarria da aurkeztu dituzten hogeita hiru lanetatik lau zuzenean txinatarik itzulitakoak izan direla, azaltzen dutenez, "euskal itul-tzaileen mailak eta txinatar kulturaren ezagutzak egin duten gorakadaren seinale".

Irabazleen ezaugarriak

Irabazleei dagokienez, hona hemen aurkezpentxo labur bana: Maialen Marin Lacarta (Donostia, 1983) Itzulpengintzan lizentziatu zen Bartzelonan, Ingeles eta Txinera espezialitatean, eta baditu masterra eta doktoretza

ere; tesian, egungo txinatar literatura Espainian nola itzuli den aztertu du, Mo Yanen kasua bereziki landuta. Unibertsitateko ikerketan eta irakaskuntzan lan egin izan du, artikulua espezializatu askoren egilea da, eta literatur itzulpenak ere egin izan ditu, txineratik gaztelaniara. Egun, Herbehereetan bizi da.

Aiora Jaka Irizar (Donostia, 1982) Itzulpengintzan lizentziatura, masterra eta doktoretza ditu, Euskal Herriko Unibertsitatean. Tesia Sarrionandiaren itzulpen-lanaz egin du eta berriki argitaratu du Euskaltzaindiak. Gasteizko Letra Fakultatean irakaslea da, eta hainbat artikulua espezializatu eta literatur itzulpenen egilea.

Epaimahaia

Epaimahaia Rafa Egigurenek, Miren Ibarluzeak eta Jesus Mari Olaizola *Txiliku*-k osatu dute. Erabakia aho batez hartua izan da, aurkeztutako 23 lanen artean onena irizita. Jokin Zaitegi sariketa, berriz, Arrasateko AED elkarteak eta Elkar argitaletxeak antolatzen dute.

Itxungi Irratia autogestionatzen laguntzeko kontzertu saioa gaur hasiko da, egubakoitza

Itxungi Irratiaren aldeko asteburua da oraingo hau Arrasateko gaztetxean. *Itxungi Rock* izenburupean, bi eguneko kontzertu saioak antolatu dituzte. Hala, gaur, egubakoitza, Metralleta, Psicoterror eta Bar Remigio taldeek jardungo dute (22:00etan, hiru euroren truke); eta bihar, zapatua, Los Cretinos, Fat Lizzy, Disaster People, Papalagi eta Transistores 50 taldeek egingo dute saioa (18:00etan, bost euroren truke).

Arrasate Zientzia Elkarte berriro ere martxan jarri zutenetik, lehen batzar orokorra bihar

Arrasate Zientzia Elkarteak batzar orokorra deitu du biharko, zapatua. Kultureteko Jokin Zaitegi aretoan da hitzordua, 11:00etan. Elkarte berriz martxan ipini zutenetik egingo duten lehenengo izango da. Hain zuzen ere, 1990 eta 1993. urteen artean jardun zuen aurrenekoz, eta ia hamarkada bat lozorroan pasa ostean, azken urtetik hona lanean buru-belarri dihardu elkarte horrek Arrasateko kultura eta ondarea zaindu eta bultzatzen.

Sili Sili

Martxa eta estilo handiko arropa

Iturriotz, 9 • ARRASATE • Tel.: 943 79 81 82

ZENTRO PSIKOPEDAGOGIKOA

- Diagnosia-Orientazioa.
- Laguntza terapia.
- Mota guztietako eskola arazoak.
- Psikomotrizitatea eta logopedia.
- Tratu fisiko edo psikiko txarrak jasaten dituzten pertsonen laguntza psikologikoa.
- Ikasketa teknika eta ohiturak.
- Estimulazio goiztiarra.

Ignazio Zuloaga kalea, 10 Tel: 943 79 48 77 ARRASATE

arbolapeta

arrasate

beinke

Konpontze eta mantentze lanak egiteko urtea

- Aurrekontua 16,4 milio euro da; %4 handiagoa
- 'Zero zabor' filosofia zabalduko da
- Kultura etxeko egokitzea planteatuko da

OIHANA ELORTZA | OÑATI

Oñatiko Udalak ia 16 milioi euro eta erdiko aurrekontua izango du 2013an, joan den urtean baino %4 handiagoa; guztira, 16.438.000 euro. Abenduaren 20an egindako osoko bilkuran onartu zuen aurrekontua osokoak, Bilduren aldeko botoekin eta EAJren abstentzioarekin.

Konponketa lanak

Lurralde antolamenduaren barruan, esaterako, energia eta ura aurrezteko politiken garapena egitea da helburua. Alor horretan, herriko argiteria publikoa eraginkorragoa egiteko proiektua gauzatuko da, 420.000 euroko inbertsioa eskatzen duena. Horrez gain, mugikortasun eraginkorra lortzea da beste helburu bat: bizikleta erabiltzea sustatuz, garraio publikoa garatuz eta oinezkoendako bideak berreskuratuz. Asmoa izango da Oñatira mugikortasun plan integrala egitea.

Hirigintzari kasu eginez, aurrekontuetan ez da aurreikusitako inbertsio handiko proiekturik. Josu Lizarralde osokoan azaldu bezala, "mantentze eta konpontze lanei emango zaie lehentasuna: San Lorentzon, esaterako, Aldapa taberna inguruan, iragazpen arazoak konpontzeko. Errekalden garaietako sartu-irtenak egokitu, San Juan kalea oinezkoendako jarri eta hilerria irisgarri izateko lanak egin, adibidez". Herriko espazio publikoen gaineko proiektuen erakusketari buruz, Mikel Biain alkateak adierazi zuen 227 ekarpen jaso zituztela, eta ona izan dela hori, baina, oraingoz, ez dutela egingo han jasotako proiekturik.

Horrez gain, lehen sektoreko enplegua bultzatzeko 12.000 euroko dirulaguntza, auzo-alkateen foroa indartzea, auzoen arteko harreman sarea sortzea eta nekazariendako zerga eta tasa politika egokitzea ere jasotzen dira aurrekontuetan. Oñatik, guztira, 16 auzo ditu.

'Zero zabor' filosofia

Ingurumen alorrean, *zero zabor* filosofiaren garapenak hartuko du diru partidaren zatirik handiena. Esaterako, auzo-konpos-

MIKEL BIAIN | OÑATIKO ALKATEA

"Atez ateko sistemaren ezarpena da aurtengo erronketako bat"

Bizi dugun momentua kontuan izanda, aurtengo aurrekontua joan den urtekoa baino handiagoa izatea garrantzitsua dela iruditzen zaio Mikel Biain alkateari, eta balorazio positiboa egiten du.

Joan den urtekoa baino %4 handiagoa da 2013ko aurrekontua. Non dago igoera? Zertan antzemango da?

Batzorde kopuruari dagokionez, berrantolaketa bat izan da eta 2010eko 10 batzordeetatik zortzi batzorde izatera pasako dira 2013an. Aurreko urtearekiko igoera izan duten batzordeak Gizarte Zerbitzuak (65.837 euro, Kirola (83.205,61), Kultura (55.936,58), Sozioekonomia (41.446) eta Lurralde Antolamendua (644.857) izan dira.

Zein da aurtengo aurrekontu hauen oinarria?

Oinarrian dagoena egonkortasuna da. Hau da, gastu arrunta sarrera arruntekin finantzatzeko dugu, eta hori aurrekontu osasuntsuak onartu ditugun seinale da.

Ze proiektu nagusi aurreikusten da 2013rako?

Aurtengo erronketako bat hiri hondakinen bilketarako atez ateko sistemaren ezarpena gauzatzea izango da. Parte-hartze saioekin hasi gara urte berrian sartu ahalaz bat, eta jadanik 470 herritarrek parte hartu dute egin ditugun sei bileretan. Ongizate batzordetik belaunaldi ezberdinen arteko esperientziak elkartrukatzeko proiektua abiatzea izango



GOIENA

"Aurrekontu osasuntsuak dira onartu ditugunak"

"San Lorentzon eta Errekalden aurreikusitakoak burutuko da"

dugu helburu. Auzoak eta Landa Garapena batzordean, auzoen esku diru partida bat jarriko da autokudeaketarako, betiere interes publiko eta auzotasuna hel-

buru duten ekimenetarako. Inbertsioei dagokionez, San Lorentzon eta Errekalden, aurretik aurreikusita zeuden fase batzuk burutuko dira. San Juan kalean irisgarritasun lanak burutuko dira, eta, nahiz eta partidariak propio ez jaso, Aozaratzako kalean konponketa batzuk egitea ere izango da helburua. Orokorrean, mantentze eta egokitze lanak izango dira.

Oposizioarekin ere adostasuna duzue hainbat gaitan, ongizatean edo gizarte zerbitzuetan, adibidez.

Bai, bizi dugun egoera sozioekonomikoa kontuan hartuta adostasuna dago batzorde hau bereziki zaindu beharrekoa dela esatean.

Garrantzia eman diozu aurrekontuak 2012an onartzeari.

Beti egoten da aukera aurrekontuak luzatzeko, baina urte barruan onartzea praktika ona dela uste dugu. Era honetara, 2012ari ahalik eta lehenen itxiera eman eta likidazioa prestatzen hasteko prest gaude.



Hiru herritar estali behar duten tenis pistak jokatzen. | OIHANA ELORTZA

terako 40.000 euro gorde ditu eta beste 25.000 hondakinak murrizteko kontzientiazio kanpainak egiteko. Hor sartzen dira, adibidez, mugikortasun astea, ingurumen astea, tupperren erabilera arraina edo okela erosteko eta berrerabiltzen diren pixohialak erabiltzeko mezuak zabaltzea.

Horrez gain, basoen ordenazio plana egiteko 15.000 euro ditu Ingurumen Departamentuak 2013rako, mehatxatutako espezieen zentsua burutzeko 10.000 euro eta ingurune naturalaren ikerketa eta fauna eta flora aztertzeko, 18.000 euro.

Hezkuntza mahaiarekin segi

Sozioekonomia taldearen barruan, helburuen artean daude sare ekonomikoaren antolaketa dibertsifikatua lortzea, ekoizpen-konsumo sare zuzenak bultzatzea, herri mailako foro sozioekonomikoaren dinamizazioa eta komertzio txikiaren defentsa; azken horretarako, adibidez, 36.000 euro gorde dira. Langabeziari lotuta, enplegu berriak sortzeko proiektuak egiteko 4.000 euro aurreikusten dira, eta sei pertsonaren kontratazioa.

Bestalde, Ongizatearen barruan, belaunaldi ezberdinen

LOURDES IDOIAGA | EAJ-KO ZINEGOTZIA

"Guk abiarazitako proiektuak daude, eta ados egongo gara"



"Joan den urtean kontrako botoa eman genuen; gure proposamenaren kontra azaldu ziren eta ez zuten kontuan hartu. Aurtun, aldiz, gure irizpide orokorra izan den ildoarekin jarraitzeko asmoa du Udal Gobernuak; hau da, zailtasun arkitektonikoak dituzten guneak eraberritzen segitzeko. San Lorentzo, Errekalde eta San Juan kaleetarako diru partidak gorde ditu, eta hor aldeko botoa emango genioke. Gizarte politikaren arloan, adostasuna ia osotasunean dugu; esaterako, pobreziaren aldeko diru kopurua gehitzen eta arautzean. Bizikleta plana, oztopo arkitektonikoak kentzea, garraio publikoa indartzea edota mugikortasun plana egitea, gure planen jarraipenak dira, eta ados egongo gara, baita energia berriztagarrian edota efizientzia energetikoaren inguruan ere. Bilduk gure adostasuna izan du gure gobernuaren denboran oinarriak jarri ziren proiektuetan".

"Aldiz, gutxi iruditu zaigu langabeziari aurre egiteko 6 pertsona bakarrik kontratatzeko asmoa izatea, nahiz eta gero onartu Mankomunitatetik gehiago kontratatzeko aukera egongo den. Guk, 2009an, langabezia tasa %8 zenean, esfortzu handia egin genuen eta langabe kopuruaren %10 kontratatu genuen, 45 pertsona. Orain 15, behintzat, hartzeko eskatu diogu, baina ez da aurrera ateratu gure proposamena. Eta kirolean, atletismoko pista xume bat egitea eskatu dugu guk, baina gobernuak tenis pista estaltzearen alde egin du".

Zahartzaro aktiboaren alde

"Bestalde, auzoen arloan, printzipio bera konpartitzen dugu: nekazaritza eta landa inguruaren promozio positiboa eta laguntza bereziak. Ados gaude, baina uste dugu dirulaguntza ondo arautu beharra dagoela, garbi izan dezaten auzoetan zer sartzen den dirulaguntza barruan eta zer ez".

"Gizarte politika arloan zahartzaro aktibo eta osasuntsuaren inguruan plan orokor aktiboa egitea eskatu dugu, 60 urtetik gorakoendako. Ez da izango mendekotasuna duten edo bazterketa sozialean daudenendako bakarrik, hezitzailea eta prebentiboa izango da. Ez da bere osotasunean onartu".



arteko harremanak bultzatzeko ekimenak egitea da asmoa. Baita esperientzia eskola martxan jartzeko konpromisoa eta *azken minutuko merkatua* deritzon ekimena indartzea ere.

2013rako gordetako beste diru kopuru batzuen artean daude: 62.000 euro, haur eta nerabe etorkinen integrazioan laguntzeko eta haurrei begirako aisialdi hezitzaile eskaintza egiteko. Herriko gazteak kulturara hurbiltzeko, autogestioa bultzatzeko eta gazteek asteburuetan herrian gustuko ekintzak izateko, 60.000 euro izango ditu aurten Udalak. Gazteak aipatuta, gaztelekuko ekipamendua hobetzeko dirua ere gorde da: 10.000 euro.

Gizarte Zerbitzuen barruan, 60.000 euro jaso dira aurrekontuetan joan den urtean diseinatu zen berdintasun plana garatzeko. Euskarako sailak ere joan den urteko plan estrategikoa garatu du aurten. Bestalde, joan den urtean lehenengo aldiz elkarrekin ospatu zuten Euskararen Eguna herriko ikastetxeek. Hezkuntza mahaitik atera zen hori, eta hango ideiak gauzatzea izango da Hezkuntza Sailaren helburuetako bat; baita Eskola Agendarekin jarraitzea ere. Errekalde herri eskolako leihoak aldatzeko ere gorde da ditua.

Kulturari lotuta, 20.000 euro gorde dira kultura etxeko egokitzapenera bideratzeko. Planteatzen dena da egun kultura etxean dau den zerbitzu batzuk eraikin horretatik ateratzea.

2013rako onartutako hiru proiektu

TENIS PISTA ESTALI

Zubikoa kiroldegiko tenis pista estaltzea da Kirol Departamentuak 2013rako aurreikusi duen proiektu nagusia. Beheko tenis pista estaliko dute. Ainhoa Martin Kirol zinegotziak aurreratutako datuen arabera, proiektu bat baino gehiago ikusi gura dituzte eta oraindik ez dago jakiterik ze kostu izango duen lan horrek, baina 125.000 euro gorde dituzte. Lanak noiz hasiko dituzten ere ez dago zehaztuta, baina udako kanpainarako bukatuta egotea da asmoa. “Lanak iraun bitartean ezingo da pista hori erabili, baina ez dute luze joko”, dio Martinek.

Tenis pista estaltzeko erabakia hartzearen arrazoiaz galdetuta, haxe erantzun du Kirol zinegotziak: “Aloña Mendiko tenis sailak urtetan egin du eskaera hori, neguan, adibidez, ezin dituztelako instalazio horiek erabili, eguraldiagatik. Bestetik, Herrijorran ekimenean ere egon da eskaera hori”.

Eta, horrez gainera, aldagela mistoko lurra aldatzea, seinalitika berria jartzea eta ur-sanitarioaren sarearen egokitzapena egitea ere jaso du Kirol Departamentuak 2013rako aurrekontuen txostenean.



Eteo eraikina. | O.E.

ETEO AZTERTU

Kulturari indarra izango duen egitasmoetako bat da Eteo eraikin zaharrean antolatu gura den proiektuaren diseinua martxan jartzea.

Oñatiko kultur talde eta eragileen egoitza eraikin hori izango dela entzun bada ere, hori ez da guztiz zuzena, Manu Egañak, Kultura zinegotziak, argitu duen moduan: “Ikusi behar da Udaleko departamentu ezberdinek dituzten beharrak zeintzuk diren, batetik. Bestetik, eraikinak berak ze aukera ematen dituen, adibidez, segurtasun edo irisgarritasun aldetik. 2013an egin behar duguna da azterketa globala, eta azterketa horrek ematen duen emaitza ikusita baloratuko da nola berrerabili eraikin hori. Adibidez, azterketa horrek esaten badu sekulako dirutza

behar dela hori herriko eragileek erabiltzeko, baloratu egin beharko da inbertsio hori momentu horretan egin daitekeen edo ez, edota bestelako bide batzuk hartu daitezkeen edo ez”. Azterketa hori egiteko pertsona baten kontratazioa jasotzen du Kultura Departamentuak.

Eteo eraikin zaharrak 4.000 metro karratu inguru ditu eta egun, hutsik dago. Toberako entseguak eta parte-hartzeko bilera batzuk goiko gela nagusian egin dituzte. Horrez gain, herriko hiruzpalau taldek erabiltzen dituzte areto batzuk maiztasun jakin batekin; esaterako, kontsumo taldeak eta Herrirak.

AUZOTASUNA INDARTU

Auzoen eta landa garapenaren barruan, 100.000 euro jaso dira, “auzotasuna indartzeko, auzoa bizirik egon dadin egin behar diren inbertsioak egiteko. Adibidez, auzo batek ikusten badu ziburuak edo liburutegi txiki bat izateak auzoa bizirik mantentzen lagunduko lukeela, diru kopuru hori erabili ahal izango du. Auzoek eurek kudeatuko dute; beraz, eurek erabakiko dute kopuru hori zertan eta zein auzotan inbertitu”, azaldu du Mikel Biaiñek, auzoetako zinegotziak.

DIRUA SAILKA

DEPARTAMENTUA	EUROAK	2012 ALDEAN
Komunikazioa + parte hartzea	177.822,00	- %13,07
Gizarte Zerbitzuak	1.864.993,65	+ %3,66
Kirola	1.250.412,50	+ %7,13
Kultura	1.047.348,47	+ %5,64
Barne antolaketa	5.982.634,53	- %3,44
Sozioekonomia	587.445,76	+ %7,59
Lurralde antolaketa	4.777.190,15	+ %15,61
Aisialdi hezitzailea	750.169,69	- %3,79

SU HAIETATIK KE HAUEK

Iñaki Petxarroman, BERRIA-ko kazetaria

«Nork esan behar zigun, herri honetan gertatu diren guztiak gertatuta, azkenean hondakinak izango zirela herrialde honetako eztabaidagai nagusia?». EAJko bozeramaile baten hitz horiek hiritar askoren buruan ibili dira azkenaldian. Baina gaur egun Gipuzkoan hondakinen inguruan dagoen gatazkak erro sakonak ditu; izan ere, 2002an Gipuzkoan errauste plantak egiteko lerratu ziren interes politiko eta ekonomikoekin herritarrek izan duten talka dago egoeraren oinarrian. Alegia, errauste plantak eraiki behar zirela erabaki zuenak ez zuen pentsatuko hondakinak gutxitu, berrerabili, konpostatu eta birziklatzeko mugimendu bat sortuko zela Gipuzkoan, zero zabor mugimendua.

Gatazka honen gaineko begirada pribilegiatua izan du Iñaki Petxarromanek, kazetari gisa hasiera-hasieratik jarraitu baititu errauste plantak egiteko proiektuen gaineko gorabehera guztiak, lehen eskutik jasotako informazioarekin sarri. Orain, informazio hori antolatu eta irakurlearen esku utzi du errealitatea ulertzeko gako guztiak izan ditzan.

Iñaki Petxarroman Berria-ko kazetariaren



Liburuaren aurkezpena eta HITZALDIA

Urtarrilak 23, asteazkena, 19:30ean OÑATIKO KULTUR ETXEAN

Urtarrilak 30, asteazkena, 19:30ean BERGARAKO IRIZAR JAUREGIAN



Asier Etxaniz | Atez atekoari buruzko informatzailea

"Jendeak ondo egin gura du sailkapena"

Parte-hartze bileretara joatea gomendatzen dute atez ateko infomazio bulegoetako kideek

OIHANA ELORTZA | OÑATI

Atez ateko hondakin bilketa sistemaren inguruan informatzen ari diren lau kideetako bat da Asier Etxaniz.

Zer moduzkoa izan da orain arteko harrera, erantzuna?

Hasieran kosta zen, baina gero eta jende gehiago dator, batez ere parte-hartze prozesua hasi denetik.

Zalantza asko ditu jendeak?

Egia esan, ikusi dugu herritar asko eta baita komertzio asko ere informatuta zeudela. Beste askok uste oker asko dituzte, batez ere kalean entzundako zurrumurru asko entzuten direlako. Informazio orokorrari buruz, duda konkretuen inguruko galderekin eta konpostatzeko aukerei buruz galdezka datoz asko.

Zeintzuk dira kezka ohikoenak?

Estetikarena da bat. Dena dela, jakiten dutenean zintzilikarioak oraingo edukiontziak dauden tokietan jarriko direla, lasaitu egiten dira. Usainagatik ere galdetu izan digute, eta organikoa hirutan atera daitekeela esatean,



Asier Etxaniz. | O.E.

lasaitu dira. Jendeak esan digu ondo egin gura dutela, eta askoren kezka horixe da, ondo egingo duten edo ez. Produktu konkretu batzuk nora bota behar dituzten galdezka ere etorri dira. Horri lotuta, hondakinen hiztegitxoak banatuko dira laster.

Isunik egongo da?

Atez ateko sistema duten herrietan orain arte ez dute isunik jarri. Gaizki ateratako hondakinen aurrean dagoen prozedimen-

dua da: biltzaileak ez du hondakin hori jasoko eta pegatinba bat jarriko dio bulegoko zenbakiarekin. Intzidentzia jasoko dute eta herritarrek ez badu deitzen, gu jarriko gara harremanetan, akatsa zein izan den azaltzeko eta zuzentzen laguntzeko.

Aste honetan hasi dituzte parte-hartze bilerak. Nabaritu da hori?

Bai; asko, gainera. Aste honetan sei bilera izan dituzte, eta San Lorentzoko bulegoan jende asko

atenditu dute. Hurrengo astean ere egingo dituzte (Bidaurretatik plazarainoko kale eta auzoendako eta San Martinen), eta denei gomendatzen diegu joatea.

Ze ordutegi izango du bilketak?

Oraindik zehaztu gabe dago, herritarrek erabakiko dutelako. Maiztasuna, bai: hirutan organikoa, bitan arina, baten kartoia eta papera eta baten errefusa. Larrialdietarako bi gune egongo dira, Eteon eta Urrutxun.



Joan den egubakoitzean egindako agerraldia. | JULEN IRIKONDO

Atez atekoarendako "aukera" eske

Atez ateko hondakin bilketa sistemarendako "aukera bat" eskatu zuten joan den egubakoitzean 300 oñatiarrek baino gehiagok kultura etxean egin zuten prentsa agerraldian. "Hondakinen arazoaren parte garen heinean konponbidearen parte izan behar dugula pentsatzen dugu", esan zuen Amaia Diaz de Monasteriogurenek batutako izenean. Auzoz auzo egiten diharduten atez atekoaren gaineko bileretan parte hartzea ere animatu zituzten herritarrek.

Alberto Plazaolaren aldeko martxa bertan behera gelditu da

Herrirak adierazi bezala, bertan behera gelditu da hilaren 26an egitekoa zen Plazaola presoaren aldeko Teixeirorako (Galizia) martxa. "Martxaren arrazoia Auzitegi Nazionalak Albertori iazko maiatzean *Parot doktrina* aplikatu izana zen, presondegitik aske irteteko data 10 urte luzatuz, 2026ko azaroaren 26ra arte. Duela egun gutxi, baina, Epaitegi Gorenak Albertoren abokatuak aurkeztutako kasazio errekurtsioa onartu du, doktrinaren anulazioa eskatzen zuena".

Bi argi mozketak izango dira bihar, zapatua, goizean herrian

Bihar, argia kenduko dute Errekalden, Garagaltzan, Zañartun eta Urrexolan. Arrazoia da Errekalden behe tentsioko koadro elektrikoaren instalazioa egin behar dutela eta Urrutxun 13,2 Kv-ko airetiko linearen lurperatzea eta transformazio zentro berri baten instalazioa egingo dutela. Errekalden 08:00etatik 09:00etara kenduko dute, argiteria publikoan eta auzoko atari gehienetan. Beste auzoetan, berriz, 09:00etatik 13:00etara kenduko dute.

guk, elkar hezi

URTARRILAK 26, ZAPATUA

ate irekiak

10:30etan... bisita eta ekintzak

MUSIKOTERAPIA
ELKARREKIN SUKALDEAN
MASAJE ALTERNATIBOAK
ESKULAN TAILERRA

12:00etan luntxa

URTARRILAK 21 ARGAZKIGINTZA TAILERRA
ITZIAR BASTARRIKAREN eskutik 18:00-20:00

URTARRILAK 22 MAKILLAJE KREATIBO TAILERRA
BI SAIO: 17:00-18:00/18:00-19:00 Sta. Marinar

URTARRILAK 23 EKONOMIA EREDU ETIKOA hitzaldia
SETEM-HEGO HAIZEA

URTARRILAK 24/25 MASAJE ALTERNATIBOAK
NEREA KORTAJARENA

URTARRILAK 28 ARGAZKIGINTZA TAILERRA (II)
ITZIAR BASTARRIKAREN eskutik 18:00-20:00

URTARRILAK 29 BETIKO IPUINEI NOLA ATERA PROBETXUA
LUR KORTA 18:30etan

URTARRILAK 30 INSIDE JOB dokumental emanaldia
18:30 Sta. Marinar

URTARRILAK 31 GOZOGINTZA KREATIBOA
17:00-18:00 L.H.ko eraikinean

idazkaritza@elkarhezi.com
haurtzaindegia: 943718272

matrikulazioa

urtarrilak 28-otsailak 8

OTSAILAK 2 ANTZERKIA "MUNDUARI BIRAKA"
GORAKADA antzerki taldea. Sarrerak doan haur eskola eta kultur-etxean

OTSAILAK 5 GARTXOT film emanaldia
ZUZENDARI ARTISTIKOAREN SOLASALDIA

OTSAILAK 8 EUSKARAREN BIKANTASUNA
jardunaldiak

ELKAR HEZI

Euskadi
2006

2012 Bikain

'Bergarako mugarren buelta' sortu du Pol-Polek

Sei etapako itzulia da eta hilaren 26an egingo dute lehenengoa

MONIKA BELASTEGI | BERGARA
Pol-Pol Mendi Taldeak eta herri-
tar talde batek *Bergarako muga-
rrien buelta* izeneko mendi itzulia
sortu du. Duela hiru bat urte
herrian dauden mugarrak topa-
tzen eta *track*-eatzen hasi ziren
eta urteotan batutako informa-
zioarekin sortu dute mendiko
itzuli hori. Orain, herritarrei era-
kutsi nahi diete *Bergarako muga-
rrien buelta*, eta horretarako
zenbait irteera antolatu dituzte.

Sei etapatan antolatu dute
Pol-Poleko lehendakari Bittor
Alberdik azaldu duenez, buelta
osoa luzea denez, sei etapatan
banatu dute errazago egiteko, eta
etapa bakoitzeko irteera bat anto-
latu dute mugarri guztiak herri-
tarrei ezagutzera emateko
asmoz.

Lehenengo irteera hilaren
26an izango da, Elorregitik Ilun-
bera, hain zuzen. Elorregira
autobusez joango dira –Fraisko-
zuritik abiatuko da, 08:00etan– eta
han hasiko dute ibilaldia, Kra-
belinaitz mendian barrena San
Antoniora iritsi arte. Interesa
duten herritar guztiek har deza-
kete izena, eta horretarako Fron-

DATUA

90

UNITATEA

1926ko aktan herrian 116 mugarri daudela azaldu arren, 90 aurkitu dituzte.

toiko tabernan eman beharko
da izena.

Pol-Poleko presidenteak azal-
du duenez, bost bat ordu iraungo
ditu ibilbideak eta bai lehenengo
hori zein egingo dituzten gaine-
rakoak, "mendian ibiltzera apur
bat ohituta daudenendako dira".
Umeendako, esaterako, ez dira
egokiak. Horrekin batera, praka
luzeekin joatea gomendatu du
Alberdik "sasia dagoelako, eta
mendiko botekin, lokatzagatik".

Hilean behin etapa bat
Maiatzera bitartean egingo dituz-
te beste bost etapak eta egutegia
honakoa da: otsailaren 17an, Ilun-
betik Elosuara egingo dute; Mar-
txoaren 10ean, Elosutik Osintxu-
ra; apirilaren 14an, Osintxutik
Uberara; eta maiatzaren 5ean,
Uberatik Elorregira.

Urretxu-Bergara saihesbidea eraikitzeko langileak behar dituzte

M.B. | BERGARA
GI-632 saihesbidea eraikitzeko
zenbait lan, hau da, Urretxu/
Legazpiko lotunearen eta Berga-
raren arteko tartea eta Antzuola
-Bergarako erdilotunea (AP-1
autobiderako lotuneak biak)
Moyua eta Antzibar enpresek
eraikiko dituzte.

Hori horrela, eraikuntza lane-
tan esperientzia, gidabaimena
duten eta euskara edota gaztele-
ra hizkuntzak menperatzen dituz-
ten Bergarako zein Antzuolako
langabeek bi enpresa horiek lan-
gileak kontratatzeko egingo duten
aukeraketa prozesuan izena eman
ahal izango dutela aurreratu dute

Bergarako eta Antzuolako uda-
letatik.

Bergaran zein Antzuolan ize-
na emateko, udaletxeko sarreran
lan eskaera inprimakia bete
beharko da, hilaren 18tik 26ra
bitartean, biak barne, 09:00etatik
13:30era.

Jasotako inprimaki guztiak
Moyua eta Antzibar enpresetara
biderako dituzte Bergarako zein
Antzuolako udalek, baina langi-
leen aukeraketa prozesuan ez
dute parte hartuko.

Bedelkarren Gabonetako zozketako zenbaki sarituak

Sari potoloa, 500 eurokoa,
24.613 zenbakiak jaso du.
Horrez gain, 200 euroko bost
sari banatuko dituzte eta
honakoak dira zenbaki sari-
tuak: 4.763, 13.326, 39.057,
41.658 eta 63.890. Informazio
gehiagorako jo Bedelkar
merkatarien elkarteko den-
detara.

'Fracking' edo hauste hidraulikoari buruzko hitzaldia martitzenean

Fracking-a edo hauste hidrau-
likoa gas naturala erauzteko
teknika bat da. Azkenaldian
asko dira teknika horren kutsa-
kortasuna salatzen ari diren
mugimendu ekologistak. Bada,
gai honen inguruan hitz egingo
du martitzenean, hilak 22, Azaitz
Unanuek Irizar Jauregian,
19:00etan.

Inauterietako bazkaria eta irteera San Joxeperekin

San Joxepetik jakinarazi dute-
nez, Aratuste-martitzenean
mozorro bazkaria egingo dute
egoitzan, 14:00etan. Martxo-
aren 5erako, berriz, Aginagako
sagardotegira irteera antola-
tu dute – nahi duenak San
Telmo museoa ere ikusi ahal
izango du–. Autobusa 09:30ean
abiatuko da geltokitik.

Maialen Idiazabal | Atez ateko sistemari buruzko hezitzailea

"Atez atekoa jarri den lekuetan ez da isunik jarri gaizki bereizteagatik"

Oxirondo azokako bulegoan dihardu Idiazabalek eta kezka argitzera gonbidatu ditu herritarrak

MONIKA BELASTEGI | BERGARA
**Azaro erdialdean zabaldu zen bule-
goa. Nola doa?**

Egundaino 70 bat kontsulta jaso
ditugu bulegora bertaratu diren
herritarrenak. Beste batzuk tele-
fonoz (943 76 46 18) zein posta
elektronikoz (*atezate@debagoie-
na.com*) jarri dira gurekin harre-
manetan. Horrez gain, kolektibo
ezberdinekin izan gara harre-
manetan; komertzio eta enpresak
bisitatu ditugu, landa-eremuko
baserriei telefonoz aritu gara,
ikastetxe eta elkarte gastron-
mikoetan probak egin ditugu...
**Orain arte ikusi duzuenetik, jendeak
garbi dauka nola funtzionatuko
duen sistemak?**

Herritarrek sistema orokorrean
ezagutzen duten arren, dituen
ezaugarri zehatzak herritar asko-
rentzat ezezagunak direla suma-
tu dugu. Bestalde, gaiaren ingu-
ruan zuzena ez den informazioa
eta aurreiritziak ere zabaldu
dira. Hala, herritarrek bulegotik
pasatzera gonbidatzen ditugu
sistemaren berezitasunak ezagut
ditzaten.

**Zein dira herritarren zalantza eta
kezka nagusiak?**

Zalantzak, gehienbat, hondakin
zehatz batzuk non bota behar
diren izaten dira. Bestalde, sis-
temaren funtzionamenduak
kezkutzen du jendea: industrian,
landa-eremuan, herrigunean...
nola funtzionatuko duen, hon-
dakin bilketa puntuak non
egongo diren, hondakinak nola
atera behar diren, ateratzeko
maiztasun eta ordutegiak...

Nola funtzionatuko du, zehazki?
Urtarril amaieran hasiko den
parte-hartze prozesuan puntu
ezberdinak landuko dira, horien
artean ordutegia eta egutegiak.
Dena den, horiek finkatuta ez
egon arren, maiztasunak mar-
katuta daude: organikoa astean
hiru egunetan jasoko da, ontzi
arinak astean bitan, papera eta
kartoia astean behin eta errefu-
sa astean behin. Bestetik, egu-
nero atera ahal izango dira



Maialen Idiazabal. | TXOMIN MADINA

konpresa, pixoihalak, etab. Bil-
keta puntuen kokapenaren ingu-
ruan gauzak zehazten ari diren
arren, egungo edukiontzia dau-
den toki berdinetan kokatuko
direla aurreikusten da.

**Aldaketek, sarri, urduritasuna eta
beldurra ere ekartzen dute. Suma-
tu duzue halakorik?**

Bai, eta normala da; izan ere,
sistemak aldaketa ekarriko du
herritarren artean ohikoa den
zeregin baten inguruan. Bestal-
de, duten beldur nagusia, nire
ustez, ondo ez egitearena da.
Denok gauzak ahalik eta ondoen
egin nahi izaten ditugu eta horrek
askotan behar baino beldur han-
diagoa eragiten digu. Sistema
berrira moldatzeko zailtasunak
izatearen beldur da jendea.

**Eta gauzak ondo egin ezean egon-
go da isunik?**

Zabaldu da isunak jarriko dire-
la, baina, oraingoz, martxan
dagoen tokietan ez da isunik
jarri gaizki bereizteagatik, hel-
burua denok ahalegintzea eta
ikastea da. Demagun errefusaren
egunean norbaitek organikoa
ateratzen duela. Kasu horretan,
ez da kuborik jasoko eta biltzai-
leek pegatina bat jarriko dute
eta herritarrekin hartu-emanen
tan jarriko gara.

"Funtzionamenduak kezkutzen ditu herritarrak"

Kabutzia

ARRANDEGIA

Fraiskozuri 6
BERGARA
Tel.: 943 76 56 62

PINTXOAK eta
OGITARTEKOAK
SEKULAKO MARTXA!!

EUXEBIO II

Irala z/g
Bergara
943 76 07 92

ANTIA

HARATEGIA URDAITEGIA

Txahal, idi,
txerri, bildots,
untxi eta
baserriko oilaskoak.

Matxiategi 8. BERGARA
Tel.: 943 76 15 09

BIZKOTXOAK, ERREILENOAK ETA TOSTOAK

Larrañaga

San Pedro, 9 - Teléfono. 761051

R. S. I. 209374 - SS

BERGARA



Leire Iruin zinegotzia Labegaraietako bizilagunei edukiontzia banatzen martitzenean. | AMAIA TXINTXURRETAN

Parte-hartze prozesua "gezur hutsa" dela salatu du EAJk

Atez atekoa ipintzeko zintzilikarioak eta kuboak erosteko kontratuak esleitu direla azaldu dute

GOIATZ ARANA | BERGARA

Hiri hondakinen kudeaketarekin lotuta, agerraldia egin zuen eguen goizean Bergarako EAJk. Jeltzaleen esanetan pasa den abenduan, Bergarako EAJk eskaera zehatza egin zion Udal Gobernuari hiri hondakinen kudeaketaren harira: "Planteatzen duen parte-hartze prozesua erabakiorra izango bada, Mankomunitateari eskatzea bertan behera uzteko atez atekoaren erabaki, inbertsio eta esleipenak, prozesua bukatu bitartean".

EAJko ordezkariak baina, adierazi dute Mankomunitatearen erabakiak ez duela atzera bueltarik eta Gobernuak planteatzen duen parte-hartze prozesua gezur hutsa dela: "Bilduk proposatzen duen 'herriarekin adostasuna' gezur hutsa da. Dagoeneko esleitu dira zintzilikarioak eta kuboak erosteko kontratuak. Erabakia hartuta dago. Udal Gobernuak planteatzen duen parte-hartze prozesuan bergararrek ez dute erabakiko atez atekoa ezarri edo ez", adierazi zuen Aintzane Oiarbide zinegotziak.

Jeltzaleen esanetan bi bide-tatik, idatziz eta bilera batean, baieztatu die alkateak zein den euren jarrera: "Argi esan du bosgarren edukiontzia ez duela aukera moduan onartzen eta Mankomunitateko erabaki, inbertsio eta adjudikazioak ez dituztela geldituko".

"Errespetu falta"

Erabakia denen artean hartuko dela esanez, iruzur egin nahi zaio herriari, EAJren esanetan eta gehitu dute: "Bergararrekiko errespetu falta erakutsi dute. Atez atekoaren kontra eta bosgarren edukiontzia alde 4.691 sinadura jaso eta gero eta Bergarako balkoi eta leihoetan milaka poltsa zintzilikatu ondoren, alkatearen erantzunak asko kezkatzen gaitu. Kalera irten eta arazoa bertan daukatela ikusi besterik ez dute".

Adierazi dute, horiek horrela, ez dutela onartzen herritarrek parte-hartze prozesua egingo dutela esatea: "Ez dugu onartzen parte-hartze prozesu 'eraikitzailea' -eurek dioten moduan- egingo dutela esatea. Parte hartu zertan? Gure etxe aurrean edo atari barruan jarri behar diren zintzilikarioak eta bestelako ontziak? Ezin dira milaka herritar bando batekin engainatu".

Bergara Garbia plataformaren eskaerekin bat egiten dutela gaineratu zuten. "Eskatzen duguna da bosgarren edukiontzia ipintzea eta herritarrak formatzea eta informatzea bosgarren edukiontzia nola funtzionatuko duen eta baita galdeketa egitea ere", adierazi zuen Victoriano Gallastegik.



EAJko ordezkariak egunean Batzokian egindako agerraldian. | GOIATZ ARANA

Hasi dira Labegaraietan auzo-konposta egiten

Osintxun beste auzo-konpostagailu bat ipintzea da Udalaren asmoa eta erdigunean beste bi

AMAIA TXINTXURRETA | BERGARA

Lehenengo auzo-konpostagailua martxan da Labegaraietan. Auzo-konposta egiteko ideia auzotarrengandik jaso zuen Udalak. Udaleko ordezkariak pasa den martitzenean elkartu ziren bizilagunekin, azalpenak eman eta edukiontzia banatzeko.

Momentuz, hamabi familiak eman dute izena Labegaraietako auzo-konpostagailua erabiltzeko. Hala ere, Leire Iruin zinegotziak adierazi du behar baino lursail handiagoa egokitu dutela aurre-rago jende gehiago animatuz gero guztiondako tokia izateko.

Familia bakoitzak bere giltza izango du eta nahi duenean eraman ahalko du hondakin organikoa gunee horretara; egutegi eta ordutegi barik. Auzotarrendako izango da bertatik lortutako konposta, baina soberan gelditzen bada Udalak hartuko du herrian erabiltzeko.

Auzo-konpostagailua darabiltenek %25eko hobariak izatea aurreikusten du Udalak.

Beste hiru aurreikusten dira

Udala orain aztertzen ari da Bergarako beste txoko batzuetan ere gauza bera egiteko aukera. Leire Iruin zinegotziak azaldu du astelehenean bertan Osintxura joango direla azalpenak ematera,

asmoa delako Osintxun ere horrelako gunee bat egokitzeko. Erdigunean beste bi gunee jartzea aurreikusten dutela ere gaineratu du Iruinek; bata Ibargarai inguruan egongo litzateke, eta bestea, kanporago.



IÑAKI MUJIKAK
BIZILAGUNA

"Ortu txiki bat daukagu lagun talde batek eta etxean dena birziklatzen dugunez ideia polita iruditu zitzaigun. Dena dela, ez genuen espero horren proiektu serioa eta horren konpostagailu handia. Pozik gaude".



ASIER MAURE
BIZILAGUNA

"Konpostagailua prest dago. Azalpenak eman dizkigute eta orain ohitura berriak hartu eta lanean hastea besterik ez zaigu falta. Gauza berri da guretako ere, baina uste dut guztion artean ondo egingo dugula".

disdira

ile-apaindegia
edertze gela


Masterreka 7
BERGARA
Tel.: 943 76 00 55



Iturgintza
Berogintza
Aire egokitua
Konponketa
Salmenta

Arruriaga 11
686 943 918

MIZPILDI



OKINDEGIA

Matxiategi 1. 943 76 72 73. Mizpildi 8. 943 76 12 32. BERGARA

TOKI-ONA
Bodegoia-taberna

Eguneroko janariak
Txitxizotzak
Kazolatxoak
Txabierroak

Matxiategi 1. BERGARA
Tel.: 943 39 53

Aratusteak iragartzeko kartel lehiaketa, abian

Urtarrilaren 22a da kartelak aurkezteko azken eguna eta Bergarako kultura etxera eraman behar dira

UBANE MADERA | BERGARA

Bergarako Udalak aurtengo Aratusteetako kartel lehiaketa deitu du. Urtarrilaren 22a da kartelak entregatzeko jarri duten epemuga. Diseinu, kolore eta teknika libreaz egin daitezke; hori bai, testu hau eraman beharko dute, nahitaez: *Aratusteak 2013, Bergara*. Irabazleak 350 euro eskuratuko ditu.

40x60 zentimetroko kartoizko oinarri baten gainean aurkeztu behar dira, edo beste aukera bat da CD batean aurkeztea. Lan guztiek originalak izan beharko dute, eta beste lehiaketaren batean aurkeztu bakoak.

Kultura etxera

Kartelok Bergarako Kultura Etxera eraman behar dira, urtarrilaren 22ko 13:00ak aurretik, egilearen nortasuna agerian utz dezakeen ezer barik, "atzealdean lelo bat dutela" aurkeztuta. Hain justu ere, gutun-azal batean leloa kanpoan eta egilearen datuak barruan jarri beharko dira.



Joan den urteko Aratusteetako argazki bat. | GOIENA

Bestalde, "saritutako lanaz Bergarako Udala jabetuko da, eta "argitaratzeko, eraldatzeko, zabaltzeko, eta abarrerako eskubidea izango du".

Sorgin-dantza

Udaleko Jai batzordeak, bestetik, sorgin-dantza antolatzeke asmoa du, eta taldea osatzeko dei egin dute. Batez ere, mutilak animatu

nahi dituzte. Bergaran aspaldikoa da Aratusteetan sorgin-dantza egiteko ohitura, eta, urte askoan egin gabe egon eta gero, iaz berreskuratu zuten ohitura.

Sorgin-dantza ikasi nahi dutenek 943 76 36 61 telefono zenbakira deitu behar dute, edo jardunkultura@topagunea.com helbidera mezua idatzi. Ikastaroa doan izango da.

San Kanuto jaia Bergaran ospatuko da aurten, Laino skate parkean

ARRITXU BARRUSO | BERGARA

Hamar urtez Aretxabaletan ospatu ostean, aurten Bergara ekarriko dute San Kanuto eguna. Laino skate parkean ospatuko da bihar, zapatua.

12:00etatik goizaldera arte

12:00etan txupinazoarekin eta salda eta txistorrarekin hasiko dute eguna eta 14:00etan bazkaria egongo da. Kontzertuekin eta DJ emanaldiekin jarraituko du egunak. 17:00etan K-Funk Aka DJ Kirrin, Agresion Verbal, Artilleria Pesada eta Kabal taldeak igoko dira taula gainera eta 23:00etatik aurrera DJ Imaren eta Summumart Live Visuallen emanaldia egongo da.



Laino skate parkea. | JAVIER SAAVEDRA

OHARRAK

ANGIOZARKO HERRIBUSAK ORDUTEGI ALDAKETA

Angiozarko auzotar talde batek Udalarri egindako eskaera baten ondorioz, Herribusak Bergarako auzo horretako bizilagunei ere eskainiko die zerbitzua aurrerantzean. Bergarako Udalak joan den astean publiko egindako ordutegian, baina, aldaketak izan dira: egubakoitzetan Angiozartik 09:18an irten-

go da autobusa, eta ez, joan den astean esan bezala, 09:00etan. Informazio gehiago, udal webgunean.

TAILA ESKOLAKOEN BATZAR NAGUSIA

Taila eskolakoen batzar nagusia hilaren 22an, martitzena, izango da, 19:00etan, lokalean. Bigarren deialdia ordu erdi geroago izango da.

Urtarrilaren 7tik otsailaren 28ra
Astelehen, astearte eta asteazkenetan

%20_{ko}
deskontua ile-apaindegian*

Ibargarai 43 - Bergara • 943 76 22 48
www.jeanlouisdavid.com

Astelehenetik Ostegunera:
09:30 - 12:00 / 15:30 - 18:30
Ostirala: 09:30 - 18:30
Larunbata: 08:30 - 12:30

*Deskontuak ez ditu produktuak barne hartzen.



Jean Louis David
Ile Apain

Dagoneko 22 lagunek eman dute izena auzo-konposta egiteko

Urtarrilaren 25a arte dute herritarrek apuntatzeko epea, Arkupera jota

MIRARI ALTUBE | ARETXABALETA

Txarapea ibilbidean jarriko du Udalak auzo-konposta egiteko gunea. Lehenengoa izango da Aretxabaletan, eta oraindik zabalik dago izena emateko epea –urtarrilaren 25a arte–: mezu bat bidali: ingurumena@aretxabaleta.net; telefonoz deitu Arkupera 943 08 10 01; edo Arkupeko bulegotik pasatu (Anabel).

30 metro koadroko gunea

Dagoneko 22 lagunek eman dute la izena auzo-konposta egiteko jakinarazi dute astean Lore Martinez Axpe Ingurumen zinegotziak eta Josu Zaloña Txarapea ibilbideko bizilagunak. Horretarako deia egin diete Iturrizar plaza, Lausitta kalea eta Txarapea ibilbide inguruan bizi diren herritarrei, konpost-gunea Txarapean egongo delako. "Beste auzo batzuek bederatzi lagunek ere eman



Auzo-konposta egiteko egokituko duten gunea, Txarapean. | INGURUMEN SAILA

dute izena; eta beste inon jar daitekeen aztertuko dugu aurrerago", azaldu zuten. Izan ere, lehenengo hori "esperientzia pilotua" izango dela jakinarazi zuten, eta horren arrakasta ikusita

aztertuko dute herriko beste gune batzuetara zabaltzea.

Auzo-konposta egiteko gune horrek 30 metro koadro inguru izango ditu eta barruan lau konpostagailu, tamaina ezberdineta-

koak. Horieta etxeetako hondakin organikoak eroango dituzte izena emandako bizilagunek. Eta zuhaitz adarrak eta moztutako landareak jasotzeko lekua ere egongo da.

Txarapeako gune hori hurrengo asteetan egokituko dute eta otsaila bukatu aurretik erabilgarri egotea gurako lukete Ingurumen Sailako kideek. "Izena emateko epea oraindik ez da bukatu eta askoz gehiagok ematen badute behar bada gune handiagoa egokitu beharko dugu", zioen Martinez Axpek pozik: "Jasangarritasunaren eta konpromisoaren aldeko pausuak ematen gabiltzanaren seinale".

Hor lortuko den konposta lorategietarako erabiliko dutela iragarri zuten, eta herritarrek ere eskatu ahal izango dute.

Konposta egiteko ikastaroa

Auzo-konposta egingo duten horiez gain, beste 16 lagunek auto-konposta egiteko interesa agertu dute. Udalak horretarako behar duten konpostagailua emango diete datozen egunotan. Eta horiek guztiek konpostatzearen gaineko ikastaroa jasoko dute otsailaren 5ean, martitzena (19:00).

Elkarbizitza sustatzeko prozesua jarri du abian Udalak herritarrekin

M.A. | ARETXABALETA

Aretxabaletarako elkarbizitzarako oinarriak eta ildo nagusiak ezartzeko prozesua jarri du abian Gizarte Zerbitzuak. Herritarrekin eta eragileekin batera dabilta hori lantzen, parte-hartze prozesuan oinarrituta. Lehenengo saioa urtarrilaren 9an egin zuten, dato-

rren eguaztenean, hilak 23, bigarrena izango da, Ibarra kiroldegian (18:00-20:30); eta azkena otsailaren 6an egingo dute.

Kohesio soziala bultzatu

Herriko aniztasunaren gainean hausnartzen dabilta herritarrek Udalarekin batera, Emun bitar-

tekari dutela. Eta gonbidatuen artean daude ikastetxeetako kideak; ordezkari politikoak; ume eta gazteekin lan egiten duten kideak... Prozesu horren bitartez, kohesio soziala landu eta bultzatu gura du Udalak; herriko eragileak eta herritarrek aniztasunaren inguruan sentsibilizatu, herriaren eraikuntza kolektiboa bultzatu eta udal politika justua egin, hain zuzen ere.

Lehenengo saioan, urtarrilaren 9an, bi talde osatu zituzten:

batetik, etorkinak, 11 inguru elkartu ziren; eta bestetik, bertan jaiotakoak, zazpi bat. Herrian dagoen aniztasunaren gainean jardun zuten orduan.

Eguaztenean egingo duten saioan aurretik egindako hausnarketa oinarri hartu eta elkarbizitzarako akordiorako puntuak adostuko dituzte. Eta azken saioan, aurretik adostutako puntuak kontuan hartuta elkarbizitza planerako ildo nagusiak adostu eta ezarriko dituzte.

Murrukixoren 25. urteurrena borobildu eta osatzeko bideoa egin dute

M.A. | ARETXABALETA

Murrukixo mendizale elkarteak 25 urte bete zituen iaz abenduaren 22an; baita hainbat ekitaldi antolatu ere hori ospatzeko; tartean, afaria eta mendi irteerak. Gabonetan, gainera, argazki emanaldia eskaini zuten elkartearen egoitza aurrean, Durana kalean.

Urteurren hori borobiltzeko bideo bat egin dute orain, 20 minutu pasatzeko dokumentala. Argazkiekin eta irudiekin osatuta sorrerak ekarri dituzte gogora, eta mende laurdenean egindako ibilbidearen errepasoa egin.

Bideo hori Goiena.net-en dago ikusgai.



Jaiki elkarteko kideak dantza saioa eskaintzen Durana kalean. | M.A.

'Dantza gogoz' ikastaroan izena emateko epea zabaldu dute berriro

M.A. | ARETXABALETA

Dagoneko martxan dute *Dantza gogoz* ikastaroa Jaiki elkarteko kideek, baina, hain zuzen, dantzan egiteko gogoz dauden horiendako berriro zabaldu dute izena emateko epea. Carla Fernandez irakasle dutela dantza sortzailea eta kontakt inprobisazioa lantzen dute saio horietan. Urtarriletik martxora arteko izen-ematea zabaldu dute orain, ekainera arte luzatzeko aukerarekin.

Saltoak eguaztentean

Saio horiek eguaztentean dira (17:30-19:30) Otarora kaleko kuartel zaharrean; prezioa 40 euro da langileendako eta 35 langabeendako.

Izena eman edo argibide gehiagorako Jaiki elkarteko kideengana jo behar da: 943 53 43 96 eta jaikielkarkea@yahoo.es.

Urtarril bukaeran, osterar, *Bat bateko sorkuntza saioak* jarriko dituzte abian Jaikikoek.

NIRE USTEZ

ANJEL BERGARETXE

Lan eta lan

Paper aurrean jarrita, badago gure inguruan zertaz idatzi, etengabeko mugimenduan murgilduta gaude eta. Bueno, mugitu, batzuk mugitzen dira. Besteak, berriz, eskubideak urratzeko artaziei eragiteko baino ez dira mugitzen.

Urquijo bezala, adibidez. Azkena (oraingoz) ez da txarra izan: parlamentuko presidenteari, Goioaga senatari izatea ekidin dezala eskatu dio. Onartzen du eskubide guztien jabe dela, egin zioten akusaziotik absolbitu zutela... Baina hala ere ez zaio gustatzen. Eta beste behin biktimak erabili ditu aitzakia gisa.

Atentzioa eman didaten beste berba batzuk, Urkulluk Bilboko manifestazioari buruz esandakoak. Alde batetik, helburu bereko kontzentrazio eta manifestazio askotan egon dela. Agian bai, baina joño, kostatzen zait sinestea.

Bestetik, halako manifestazioak baino hobe dela isileko lana. Eurak egiten ari omen direna bezalakoa. Ez dakit bide bietatik zein den hobe, baina nork esan du bateraezinak direnik? Eta jeltzaleak egiten ari diren lanari buruz, zer esango dizuet ba? Aurretik esandakoa: erabat fedegabea naiz. Ziur dakiguna da PNVk sakabanaketa politika disainatzen lagundu eta justifikatu egin zuela (eta duela).

Beste batzuei exijitzen dieten bezala, onartuko al dute noizbait okerreko estrategia hartu zutela gai honetan? Mina eta sufrimendua besterik eragin ez duen estrategia krudela. Bide batez, zorionak, Herri-
ra! Zapatukoa, berriz ere, kolosala izan zen eta.

"Onartuko dute noizbait okerreko estrategia hartu zutela?"

Danborradak egingo dituzte gaur eta astelehenean

Ikastetxeetako neska-mutikoei danborrak astinduko dituzte San Sebastianen omenez. Gaur egingo dituzte danborrada horiek Kurtzebarri eskolakoek (15:45, pilotalekua); eta Arizmendi Ikastolako Basabeazpikoek (16:30, barruko jolaslekuan); eta astelehenerako utziko dute Pausoka haur eskolakoek (10:30, patioan).

OHARRAK

PAGOLAK ESANDAKOEN GAIENAK HAUSNARKETA

Madrilgo 32. Teologia Kongresuan Jose Antonio Pagola teologoak krisiaren gainean esandakoez hausnartuko dute gaur Arkupen (19:30).

'LA VIDA DE PI' FILMA

Helduek Ang Lee zuzendariaren *La vida de Pi* filma dute gaur eta bihar (22:00); domekan (19:30); eta astelehenean (16:00).

Umeek, osterar, *Las aventuras de Tadeo Jones* izango dute bihar eta etzi (17:00).

ARATUSTE-BAZKARIRAKO TXARTELAK SALGAI

Astelehenean jarriko dituzte salgai txartelak Kultura Sailaren bulegoan (Arkupe); ordutegia: astelehenetik eguenera 08:00etatik 13:00etara eta 14:00etatik 17:00etara eta egubakoitzean 08:00etatik 14:00etara.

Odei Vazquez berriro ere lehenengo kumite saioan

Euskadiko selekzioarekin jardun du entrenatzen eta domekan Euskadiko senior txapelketara doa

MIRARI ALTUBE | ARETXABALETA

Joan den domekan Hondarribian jokaturako txapelketan lehenengo postua eskuratu zuen Odei Vazquez karateka gazteak kumite modalitatean (67 kiloz azpikoetan), eta hirugarrena katan. Aurretik, zapatuan hain zuzen, Euskadiko selekzioarekin izan zuten entrenamendu saioa Vazquezek (seniorra) eta Ekaitz Irustak (gaztea).

Domekan, ostera, Euskadiko senior txapelketan jardungo du norgehiagokan, Gasteizen.



Odei Vazquez. | ODILO VAZQUEZ

'Korrikaren jinkana' jolasean parte hartzeko taldea osatu gura dute

Zortzi lagunek osatu behar dute taldea; pistak asmatu eta probak gainditzea da jolasaren gakoa

M.A. | ARETXABALETA

Korrika batzordea lanean dabil martxoan iritsiko den Korrikaren inguruko ekitaldiak antolatu eta girotzen; baita hari laguntzeko dirua biltzen ere. Hori horrela, gogorarazi gura du Korrika laguntzaile egin daitekeela 12 eurogatik

Loramendin eta udaletxean; eta, trukean, ehunka komertziotan beherapenak izatea ahalbidetuko dien txartela jasoko dute.

Bestalde, urtarrilaren 26an txotx erraldoia egingo dute Usurbilen euskalduntzen eta alfabetatzen dabiltzan milaka lagun

omentzeko. Harako sarrerak Loramendin dituzte –prezioa, 10 euro: autobusa, jatekoa, sagardoa eta kontzertua.

'Lekukoaren bila' jolasa

Aurten, gainera, *Lekukoaren bila* jinkana antolatu dute. Zortzi laguneko taldeendako da, eta Aretxabaletan ere taldea osatu gura dute. Herrialdeko kanporaketak martxoan lehenengo bi aste bukaeretan izango dira, eta finala Korrikaren bukaera jaiaren barruan, hau da, martxoaren 24an, Baionan. Saria, euskaraz jolastu eta ondo pasatzeaz gain, bidaia bat izango da.

Izena emateko Loramendira jo dezatela interesatuek.

Puzgarriak egongo dira Ibarra kiroldegian zapatuetan, bihar hasita

M.A. | ARETXABALETA

Jolas egiteko puzgarriak izango dituzte ume eta gaztetxoek zapatuetan, Ibarra kiroldegian. Bihar hasi eta Aste Santuak arte zapatu arratsalde guztietan jartzeko asmoa daukate, baina oraindik zehaztu barik daudela data guztiak jakinarazi dute bertako kideek.

Bihar eta datorren zapatuan, hilak 26, igerilekuan egongo dira puzgarri horiek, eta beste zapatu batzuetan kantxan jarriko dituzte.

Hiru taldetan banatuta

Adinaren arabera taldeak osatuko dituzte igerilekuan arazo barik egin dezaten jolas neska-mutikoek. Hona ordutegia: 3 eta 6 urte artekoak (gurasoe-kin), 16:00etatik 17:30era; 7 eta 10 urte artekoak (gurasoe-kin), 17:30etik 18:45era; eta 11 eta 12 urte artekoak, 18:45etik 20:00etara.

Kiroldegiko abonatuak debalde sartuko dira; eta abonatu ez direnek 5 euro ordaindu beharko dute sarrera.

Errespetuzko komunikazioaren gaineko saioa dago otsailean

Errespetuzko komunikazioa izango da Kuku Miku elkarteak gurasoendako antolatutako hurrengo saioaren gaia. Nerea Mendizabal psikopedagogoak gidatuko du, aurrekoa legez, eta otsailaren 4an, astelehena, egingo dute (17:30-19:30) elkarteak Durana kalean duen egoitzan.

Izen-emate epea zabalik dago urtarrilaren 31 arte. Hona bideak: kukumikuelkarte@gmail.com eta 650 93 96 93. Prezioa da, 7 euro bazkideendako, eta 10 euro, gainerakoendako.

ZER OTE?

Auzoko egitasmoa otsailarekin batera hasiko da lanean



Euskaratik gertu eta urrun bizi direnek badute orain elkartzeko gunea. Auzoko da hori. Otsailaren 1ean hasita egubakoitz guztietan elkartzeko da taldea udaletxe zaharrean (15:00). Ateak parez pare zabalik topatuko dituzte euskaraz jardutera animatzen diren guztiak.

Azken galderaren irabazlea: Amalia Ormaetxea.

ARETXABALETAKO EUSKAL ESKOLA PUBLIK* A

2-12 urte

KURTZEBARRI ESKOLA
HAUR HEZKUNTZA-LEHEN HEZKUNTZA
Santa Kurtz 19
Tel.: 943 79 00 49
012015aa@hezkuntza.net

BILERA INFORMATIBOAK:
HH eta LHko (2-12 urte)
Urtarrilaren 23an liburutegian
- 18:00etan euskaraz
- 19:00etan gazteleraz

MATRIKULA EPEA:
URTARRILAREN 28tik OTSAILAREN 8ra.



BERRIA

Zaintza zerbitzua egongo da.



goieskola



www.goieskola.net

Saritu egingo dute arrandegi eta harategietara ontziarekin joatea

Udalak hondakinak murrizteko beste kanpaina bat jarriko du martxan gaur, 'zero zabor' filosofiaren harira

MIRIAN BITERI | ESKORIATZA

Ingurumenarekin lotutako kanpaina berria du esku artean Eskoriatzako Udalak, *Ontziratuzaitze! Dendatik sukaldara, usain eta hondakinik gabe!* izenekoa. Herriko harategi eta arrandegiekin elkarlanean bultzatutako kanpaina da hori; hain justu ere, paper gutxiago erabiltze aldera, erosle bakoitzak tupperra eroan beharko du dendara, eta ontzi berrerabilgarria erabilitako erosketa bakoitzeko txartel bat jaso-

ko du erosleak. Hil bakoitzeko 18an zozketa egingo da, eta zenbaki irabazleak 50 euroko erosketa jasoko du, astebeteko epean, txartel irabazlea banatutako dendan gastatzeko.

Ibarraundi museotik jakinarazi digute gaur, egubakoitza, jarriko dela martxan esandako kanpaina eta, hasiera batean, hiru hilabeteko iraupena izango duela. Eneritz Zubia teknikariak azaldu digu *zero zabor* filosofiaren harira gertatutako kanpaina

dela. Honakoa esan digu: "*Zero zabor* filosofiaren barruan, Udalak, lehenik eta behin, gura du hondakinen sorrera murriztea; kudeatu beharrean, lehenengo pausoak zaborren sorrera murriztea izan behar du beti, eta, horren harira, aukera egokia iruditzen zitzaigun herriko dendetara-eta tupperrarekin joatea, modu horretan zaborra murrizten dugulako".

Gipuzkoako beste hainbat herritan antzeko ekimenak egi-

ten direla eta emaitza "onak" direla ikusita, Eskoriatzan ere "esperientzia pilotua" martxan jartzea erabaki dute: "Beste herrietako esperientzian oinarrituta, eta herritarren zein dendarien aldetik emaitzak onak zirela ikusita, martxan jartzea pentsatu genuen".

Bost komertzio

Esan bezala, herriko harategi eta arrandegiekin hasiko dira lanean. Denera, bost komertzio hartuko

dute parte: Eguren, La Plaza eta Leiba arrandegiek; eta Pagaldai eta Altuna Anaiak harategiek.

Dagoeneko tupperrarekin

Horren harira, Zubiak jakinarazi digu dendariak "ondo" hartu dutela ideia: "Gehienek komentatu digute dagoeneko joaten direla batzuk tupperrarekin; hortaz, eurenako ez da guztiz berria izango. Berria ez, baina onuragarria bai, paper kontsumoa murriztuko delako, baita gastua ere".

Oraingoz, esan bezala, harategi eta arrandegietan egingo dute lan, baina ez dute baztertzen bestelako dendekin ere berba egitea; tartean, hestebeteak saltzen dituztenekin. Dena dela, azpimarratu dute esperientzia aitzindari edo pilotua dela, eta joango direla ikusten kanpainak duen erantzuna.

Udal zerbitzuen gaineko informazioa jasotzen dabilta, horiek hobetze aldera

Eskoriatzarrek inkesta bete dezakete urtarilaren 31 baino lehen

M.B. | ESKORIATZA

Eskoriatzako Udalak eskaintzen dituen zerbitzuen gaineko inkesta bete daiteke urtarilaren 31ra arte. Mondragon Unibertsitateko talde baten proiektuan oinarritu da Udala ekimena aurrera ateratzeko. Honakoa azaldu du alkateak: "Enpresagintza Fakultetetik heldu zitzaigun eskaintza: ikasleek merkatu ikerketa garatu behar zuten, eta horretarako, sektore eta mota ezberdinetako enpresa eta erakundeetara jo zuten. Udaletik egoki baloratu genuen eskaintza eta egoki ikusi genuen udal zerbitzuen gaineko informazioa jasotzea, zerbitzuen hobekuntza iraunkorra bultzatze aldera".



Udaletxeko harrera zerbitzua ere baloratuko dute herritarrek. | ESKORIATZAKO UDALA

Askotariko zerbitzuak

Inkesta Udalaren webgunean dago herritarren eskura. Askotariko gaien gainean galdetzen da horretan, hala nola Udalarekin kontaktuak jartzeko bideez, herritarraren ikasketa mailaz eta lan eremuaz zein udal zerbitzuen erabilpenaz eta haien balorazioaz. Azken horretan, honako zerbitzuak baloratzeko eskatzen da: Harrera, Udaltzaingoa, Gizarte Zerbitzuak, Hiri-

gintza, Obra eta zerbitzuak (Bri-gada), Idazkaritza-kontu hartzaile-tza, Zerga-bilketa, Kultura, Euskara eta Gazteria.

Epea bukatuta, emaitzak aztertu eta baloratuko dira. Hona hemen alkateak esandakoa: "Horretarako, emaitzak langileekin ere komentatuko ditugu eta haien iritzia jaso. Jarraian, emai-

tzak ikusita, hobetzeko neurriak proposatuko ditugu, eta bideragarriak diren aztertu". Askotariko neurriak izan daitezke: herritarrenganako harrera ordutegia aldatzea, telefono bidezko arreta zabaltzea edo Internet bidezko tramiteak sustatzea. Bada, Herce inkesta betetzeko gonbita egin gura izan du.

Kulunka haurreskolan zabalik dago matrikulazio epea eta Jose Aranan hilaren 28an irekiko dute

Hautzaindegietan matrikulazio kanpainarekin dabilta. Kulunka haurreskolan gaur arte (egubakoitza) eman daiteke izena, 09:30etik 11:30era eta 13:00etatik 15:00etara. Informazio gehiago gura dutenek 943 71 57 70 telefono zenbakira dei dezakete. Bestalde, Jose Arana hautzaindegian hilaren 28tik otsailaren 8a arte aurkez daiteke eskaera, honako ordutegian: 08:00etatik 19:00etara. Horren harira, urtarilaren 29an ate irekiak egingo dituzte, 18:00etatik 19:30era. Argibide gehiago jasotzeko 943 77 20 25 telefono zenbakira deitu behar da.

Etzi jokatu dute Euskal Herriko mus txapelketako kanporaketa Inkernu tabernan

Martxan da V. Euskal Herriko mus txapelketa, eta etzi, domeka, herriko kanporaketa egingo da Inkernu tabernan, 16:00etan. Urtero moduan, tokian tokiko araukin jokatu dute kanporaketa horretan. Izen-ematea dagoeneko zabalik dago Inkernun bertan. Txapelketan edonork parte hartu ahal izango du; bikotea izatea eta izena ematean bikoteko 20 euro ordaintzea baino ez da eskatzen. Txapelketako finala Agurainen jokatu da martxoaren 9an. Bikote irabazleak 3.000 euro, Karibera lau lagunendako bidaia, txapela eta garaikurra jasoko ditu.

Kiroldegiko igerilekuan primeran pasatuko dute herriko umeek domeka arratsaldean

Plan bikaina dute herriko neska-mutikoei, etzi kiroldegiko igerilekuan uretako parkea jarriko dute-eta. Ohikoa den moduan, adinaren arabera ibili ahal izango dira umeak: 16:00etatik 17:15era, gurasoei lagunduta joango diren 7 urte arteko haurrei dago zuzenduta; 17:15etik 18:30era, 8 eta 10 urte bitartekoei; eta hortik 20:00etara, 10 eta 14 urte arteko gaztetxoei. Kiroldegiko bazkideendako txartelak bi euro balioko du eta gainera-koendako, oster, hiru euro.



OHARRAK

DANBORRADA LUIS EZEIZAN

Urtero moduan, San Sebastian egunaren harira danborrada antolatuta dute Luis Ezeiza ikas-tetxekoek. Gaur egingo dute, 15:30ean, eta hiru pieza joko dituzte: *San Sebastian martxa*, *Diana* eta *Iriyarena*. Eta hori amaitzean, txokolate beroa hartuko dute umetxoek. Eguraldiak laguntzen badu, eskolako patioan egingo dute ekitaldia; eta bestela, pilotalekuan.

ARETO FUTBOLA

Asteon kirol partidu bakarra jokatu da etxean. Areto futbol-lean, herriko gazteak Jesus Obrenoren kontra lehiatuko dira bihar kiroldegian, 17:00etan.

LUDOTEKA ZABALIK

Joan den abenduan hasi eta apirilaren 7ra bitartean, Tortolis ludotekan 8 eta 12 urte bitarteko haurrendako ekintza bereziak prestatzen dabilta. Gabonetako

ekintza arrakastatsuen ondotik, bihar, zapatua, egingo dute hurrengo: *Wii Sports* eta *Wii Party* jolasak izango dituzte. 17:00etatik 19:00etara egongo dira ludotekako ateak zabalik bertaratu gura duten guztiendako.

KZGUNEA EGUAZTENETAN

KZguneko dinamizatzailea hilaren 23an eta 30ean izango da liburutegian, honako ordutegian: 16:30etik 20:00etara.



Martitzen arratsaldean aurkeztu zituen Udalak 2013ko aurrekontuak herritarren aurrean, Olaran etxean. | MAIDER ARREGI

Udalak aurkeztu ditu herritarrekin egindako aurtengo aurrekontuak

Prozesua "aberasgarria eta lagungarria" izan dela azpimarratu dute

MAIDER ARREGI | ANTZUOLA

Aurtengo aurrekontua 2.897.711 euro da; iaz baino 400.000 euro inguru gehiago –iaz 2.494.453 euro–. Izan ere, inbertsioetarako apustu gogorra egin gura du Udalak 2013an. Hala, inbertsioetarako 416.386 euro bideratuko dira. Helburua, baina, egindako inbertsioen kalitatea mantentzea dela azaldu digu Mikel Jauregik, Ogasuneko zinegotziak.

Aurten, zergek KPIaren igoe- ra izango dute, %2,8. Ima Begiristain alkateak azpimarratu du gastuak igo egin direla zergak eta BEZa ere igo egin direlako.

Gastuei dagokienez, pertsonal gastuendako 703.610 euro bideratuko dira eta ondasun arruntak erosteko, 873.626 euro. Ondasun arrunten barruan, argiteria, Udaleko ekipamendua eta material informatikoak daude, besteak beste. "Aurten udaletxean ordenagailuak jarri nahi ditugu", azaldu nahi izan du Ima Beristainek.

Egiteko dauden lanak

Aurtengo egitasmoen artean, eskola handitzea –aurrefabrikatutako behin-behineko moduluekin–, irisgarritasun plana –150.000 euroko diru partida– bideratzea, hau da, herriko trabak eta espaloiak berdintzea, baserriko ur-sarea handitzea, San Joseko pareta konpontzea edota armarrria aldatzeko azken fasea gauzatzea daude, beste askoren artean.

Lanean dihardute autobusa herritik ateratzeko –140.000 euroko partida– eta biomasa proiektua –50.000 euroko partida– aurrera ateratzeko. Azken horrek propanoaren alternatiba izan nahi du, eta faktura erdira jaitsi. Horretarako, Hirigintzak 746.000 euro ditu.

Parte-hartze prozesuak ere eman ditu fruituak, eta herritarrek eskatutakoari eman gura izan dio erantzuna Udalak. Horren eredu da, esaterako, gazteendako skate parkea egitea. Horretarako, 15.000 euro bideratuko ditu Udalak. "Oraindik aztertzen ari gara; izan ere, zarata ekidin nahi dugu eta leku egokia bilatu behar zaio skate parkeari", gaineratu du alkateak.

Parte-hartze prozesua

Parte-hartze prozesua herritarren eta Udalaren arteko zubia eraikitzeke beharrezkoa dela azaldu dute. "Aurrekontuak egiteko orduan oso aberasgarria eta lagungarria izan da burututako parte-hartze prozesua. Ohartzen ez ginen gauza askori erantzuteko balio izan digu-eta", azaldu du Udalak aurkezpenean.

Izan ere, gai askorekin bat

etorri dira herritarrek eta Udalak: eskola handitzea, herriko kultura eta sortzaileak bultzatzea, trafikoa egokitzeko plana burutzea, bidegorria egitea, irisgarritasun plana, energia aurrezteko plana, kiroldegiko txartel mankomunatua aurrera ateratzea, eta abar.

Bada, aurrekontu proposamena datorren osoko bilkuran onartuko du Udalak.

JON LIZARAZU
HERRITARRA



"Positiboa izan da; Udalak kontuan hartu du herriak parte-hartze prozesuko bilera irekietan jendeak esandakoa. Bestetik, esan nahiko nuke herriak esandako gai asko Udalak ere bideratutakoak direla eta bat datozela bi alderdien eskaera eta nahiekin".

MIKEL ITURBE
HERRITARRA



"Ni hiru batzarretan egon naiz. Parte-hartze handikoak izan direla esan dezaket, gainera. Gauza asko irten ziren eta gaur egindako aurrekontuen aurkezpenean eureta asko ikusi ditut irudikatuta. Garbi esan zuten hasieratik herriak preferentzia izango zuela".

MIKEL JAUREGI
OGASUNEKO
ZINEGOTZIA



"Gure asmoa da orain herritarrengana gerturatzea eta eguneroko gaiak transmititzea. Horretarako, komunikazioa indartzeko plana abian jarriko dugu. Dagoeneko herritar batzuk prest daude harreman gertu hori gauzatzen laguntzeko".

Los Cretinos eta ZZ Blues Band taldeen zuzenekoak gaur

Gaztetxean, gaur, garage eta blues doinuak entzuteko aukera aparta duzue. Arrasateko Los Cretinos laukoteak *Addictus Sonitus* lan berria aurkeztuko du, 22:30ean hasita. "60ko hamarkadako punk doinueta oinarritutako diskoa egin dugu", azaldu digute. "12 kantu, 12 istorio eta 12 emozio dira, punk eta garagearen irabiagailutik pasatutakoak".

Gaztetxeko agertokira ZZ Blues Band soraluzetarrak ere igoko dira. Musika beltza euskaralari ukituarekin, giro ona, eta dantzarako parada polita. Rhythm-and-blues giroko emeraldia eskainiko dute.

Baserri-guneetako plastikoa batuko da hilaren 22an

Baserri ingurunean erabiltzen den plastikoa batzeko aurtengo egutegiaren berri eman du Debagoieneko Landa Garapen Elkarteak. Honako plastikoa mota hau batzen dute: siloa estaltzeko erabiltzen den plastikoa beltza; belar boletan erabiltzen den plastikoa beltza; berotegietan eta ortuan lurra estaltzeko erabiltzen den plastikoa beltza; eta berotegietako plastikoa zuria.

Plastikozko sokak, berriz, ez dituzte batuko. Hauek datak: urtarrilak 22, otsailak 26, martxoak 26, maiatzak 28, uztailak 23, irailak 24, azaroak 26 eta abenduak 17.

Antzuolan, Ekarpene gune ondora eramane behar da.

OHARRAK

SORTUREN BATZARRA

Sorturen antolaketa eta funtzionamenduaren hirugarren batzarra urtarrilaren 26an, 09:00etan, Olaranen.

MUS TXAPELKETA

Gaur, 22:30ean, Gailur tabernan jokatu da mus txapelketako kanporaketa. Bikote irabazleak hilaren 27an (dominika) finala jokatu du.

LARREA

TABERNA

Kalebarren 17
ANTZUOLA



IGELTSEROTZA

Ibon Zabalo
Iban Iraeta

Kalegoi 9, 1. solairua
ANTZUOLA.
Tel. eta faxa:
943 76 60 89
Mugikorrak:
615 76 56 50 / 615 76 56 51
zabalos@hotmail.com

ZAHAR BERRITZEAK:

Birgaitzeak

Fatxadak

Teilatuak

Bainugela eta sukalea

Lokal komertzialak

MUJIKA HARATEGIA



Berezitasunak:
Etxean hazitako
zekorrek eta oilaskoak

Kalebarren 1
ANTZUOLA
Tel.: 943 76 64 34

Euria buruhauste iturri asteen, "auzo guztietan"

Martitzenean, kaosa: "Ura leku guztietatik ari da irteten", zioen aguazilak

JOKIN BEREZIARTUA | ARAMAIO
Salazan baserriko Julian Unzueta-aren arabera gutxienez azken zortzi urteetako ur handienak izan dira oraingo astekoak. Beraz, euriak sortu dituen arazoak azken urteetako handienak izan dira: "Lur-jausiak izan dira, ura leku guztietatik ari da irteten eta leku guztietara ari da sartzen", adierazi zigun Aitziber Zumalde aguazilak martitzenean, egunik kaotikoenean. Hainbat bide moztu edo

kaltetu zituzten lurjausiek: Induspe Goiko baserriko bidea, Untzi-lakoa, Arriolakoa, Eguzkierripakoa... Zerrenda luzea da: "Arinagoak edo larriagoak izan, auzo guztietan egon dira arazoak", dio.

Halako kasuetan lehenatasunak zehaztu behar izaten dira. Horren harira, Zumaldek auzotarren pazientzia nabarmendu du: "Kaltetu gehienek ulertzen dute ezin garela leku guztietara heldu, eskarmentu handia dute".

Ur-jauzia Ibarren bertan

Euriak Ibarren bertan eragin zuen irudi ikusgarriena. Estolda-zulotik gainezka egin zuen urak Pedro Ignacio Barrutia kalean eta bidea itxita izan zen ia 24 orduz. Etengabe irteten ari zen ura zakuen bidez errekarra bideratu behar izan zuten eta horrek ekidin zuen egoera are larriagoa izatea. Oraindik arazoak dituzten herritarrek udaletxera dei dezakete: 945 44 50 16.



Pedro Ignacio Barrutiako bidea itxita, estoldek gainezka egin ostean. Zakuen bidez ura errekarra bideratu zuten. | J. BEREZIARTUA



Arriola auzorako bidean lur-jausiak izan ziren. | UDALA



Salazan baserri ondoan urak ia gainezka egin zuen. | J.B.



Sastiñan egin zuten aurkezpena, proiektua azaltzeko. | ARAMAILUR TALDEA

Ekonomatorako bazkide berrien bila dabilta

Aramailur kontsumo taldeko bazkide berriek 20 euro ordaindu behar dituzte; egun, 30 familia dira

J.B. | ARAMAIO

Aramailur kontsumo taldearen ekonomatoka forma hartzen dabil. Aramaio Basarri Barri fundazioaren barruan dagoen ekimena da, elikadura burujabea lortzeko bidean "tokian-tokikoa eta garaian-garaikoa" kontsumitzeko filosofiarekin: "Baserritarrentzat zein kontsumitzaileentzat elkargune eta erreferentziatzeko gunea sortzea da gure asmoa", adierazi dute.

Gertuko familia bazkidetzen

Elkarte moduan egituratzea da lehenatasuna, horretarako bazkideak lortuta: "Irabazi asmorik gabeko elkarte da, bertako bazkideen interesen arabera produktu ezberdinak eskaintzen dituen". Bada, otsailean elkartea osatzeko lehen batzarra egingo dute: presidentea izendatu, estatutuak osatu, kontsumitu gura diren produktuak aztertu... Hainbat erabaki hartu behar dira oraindik.

Erabakiok hartu aurretik, baina, babesa behar du ekonomatoka, eta, horregatik, urtarri-lean bazkidetza kanpaina abiarazi dute: "Bazkidea pertsona

fisikoa izan arren, gertuko familia ulertzen dugu bazkide moduan. Hau da, guztiek dute ekonomatoka produktua kontsumitzeko eskubidea, baita horien gaineko erabaki guztietan parte hartzeko ere", diote.

Eskubideez gain, noski, betebeharrak ere izango dituzte. Ekonomatoka aurrera eramateko egin behar diren lanetan parte hartzea beharrezkoa da; txandak, garbiketa... Bazkide berriek 20 euro ordaindu beharko dute hasierako sarrera moduan eta izena emateko ekonomatoka-hiltegi zaharreko beheko solairuan-hurbiltzea aski izango da, martitzenetan (19:00-20:30) edo zapatuetan (11:00-13:00).

30 familia, eta 30 produktu

Oraingoz, 30 familiak eman dute izena. Era berean, bertako zein Euskal Herriko produktuen zerrenda luzea da oso -30 produktu-; Aramaio 17 produktu -marmelada, arrautzak, barazkiak, txorizoa eta sagardoa, esaterako- eta Euskal Herriko 13 -arroza, naranjak, olio eta ardoa, adibidez- kontsumitzeko moduan daude dagoeneko.

Arabako elkargoaren Gabonetako saskia etxera

Arabako Las Cuatro Torres erretiratu elkargoari esker Alaiak elkarteak Gabonetako saski bat jaso zuen. Zuzendaritza taldeak erabaki zuen saskia hiru zatitan banatu eta bazkideen artean zozketatzea. Saridunak honakoak izan dira: Angel Arriolabengoa, Itziar Jauregi eta Alatx Arana. Argazkian, hiru saridunak.



ALAIK ERRETIRATU ELKARTEA

Aurrekontua aztertzeke parte-hartze prozesuak izan duen erantzunarekin pozik agertu da Udala

Joan den zapatuan amaitu zen aurrekontuak aztertzeke parte-hartze prozesua. Ramon Ajuria pozik dago izan duen erantzunarekin: "Zinegotzien, herritarren, auzo-alkateen eta eragile ezberdinen inplikazioa handia izan da. Eredu bat finkatu dugu datorren urterako, kudeaketa hobea izan dadin". Herritarrek egin dituzten eskaerarako -asko izan dira- 111.000 euro inguru bideratuko dituzte. Orain, urrats bakarra falta da prozesua borobiltzeko: hilaren 30eko osokoan onartu behar da.

Alaiak erretiratu elkarteak mus txapelketa antolatu du biharko, parte hartzaileendako afari eta guzti

Bihar egingo da Alaiak elkarteak urtero antolatzen duen mus txapelketa. Euskadiko Kutxaren, Vital Kutxaren, Arbelen, Zubeldiaren, Dubling Aholkularitzaren eta Basoko upategiaren laguntzari esker parte-hartzaile guztiendako afaria egingo da Alaiak elkartearen egoitzan. Noski, ohiko sariak ez dute hutsik egingo. Antolatzaileek jakinarazi dutenez, bikote bakoitzak 20 euro ordaindu beharko ditu eta 16 bikoterendako lekua egongo da. Txapelketa 16:30ean hasiko da.

ELGETA

Elena Elkoror | Elgetako botikaria

"Praktiketan nengoen farmazia hartzeko aukera sortu zenean"

Urtarril hasieran bete dira 25 urte Elena Elkoror Elgetako botikaria dela

LARRAITZ ZEBERIO | ELGETA
Elena Elkororok 23 urterekin hasi zuen ibilbidea Elgetako farmazian. 1988ko urtarril hasiera zen. **Nola gogoratzen duzu hasiera?** Ba, akordatzen naiz irailean ikasketak amaitu, eta Eibarko farmazia batean ari nintzela lanean, praktiketan. Urria izango zen Elgetako farmazia eskualdatu nahi zutela jakin genuenean. Ez nuen birritan pentsatu, eta Gabon ostean, urtarril hasieran hasi nintzen hemen lanean. **Zein zen Elgetako farmazialaria zure aurretik?** Maribi Anitua, Iturbe baserrian bizi da. Esango nuke sei bat urte izango zirela Elgetan farmazia ireki zuela. **Askorok aldatu da botikako lana?**



Elena Elkoror. | L.Z.

Ordenagailuarekin bai. Biltegiko lana, iraungitze-daten kontrola... eskuz egiten genituen, eta produktuen eskaera terminal eramangarri batekin egiten genuen. Hemen dut oraindik ere. Botatzeko puntuan izan naiz, baina

Amaiak ez dit utzi. Gordetzeko dio. **Eta botikak askorok aldatu dira?** Bai. Lehen pilulak eta kapsulak ziren nagusi, urarekin nahasi behar izaten ziren. Orain, ahoan urtzen dira, eta desintegrazio luzekoak ere badaude. Gero, onkologian edo hiesaren kasuan askorok aurreratu da. **Formalak gara botika kontuetan?** Bai. Batzuei kosta egiten zaie medikuarengana joatea, eta bidali egin behar izaten ditugu. Baina kasu egiten dute. **Eta urteotan zenbat aldiz jo du zure etxeko atea?** Oso gutxitan. Jendeak, Elgetan, errespetatzen du hori. Pare bat bider izan da, eta benetako larrialdiak ziren.

Botika berri zure abentura

Elena Elkororok 2005ean egin zituen berritze lanak farmazian. Mostradorea tokiz aldatu, eta saltokiari espazio handiagoa eman zion. "Ez nuen ixteko baimenik lortu, eta zerbitzua ematen jarraitu genuen. Bezeroak atzeko atetik sartzen ziren. Gero, igeltsero greba ere parean tokatu zen. Hura zen ikusidadea!", gogoratzen du.



Botikaren mostradorea eta erakusleihoa lanen aurretik. | ELENA ELKOROR

OHARRAK

SOS SAHARA KANPAINA

Gaur, barikua, amaitzen da eskatutako produktuak jasotzeko epea. Elgetan, Herri Eskolara eraman behar dira produktuak.

KANTSATZEKE MENDI TALDEA

Taldeko ordezkariak kultura etxeko bigarren solairuan izango dira hilaren 23an, 19:00etatik 20:00etara, bazkide eta federatu txartelak tramitatzen.

FUTBITO TXAPELKETA

AZKEN EMAITZAK

Astuan Villa - Tzibaz United	25-02
Txapela - Intxorta's Crew	28-02
Naste Borraste - La Kokotxa	04-12

ZAPATUKO PARTIDUAK, URTARRILAK 19

15:30	Astuan Villa - Jaitxo. La Kokotxa.
16:30	Etxaon - Gaztiak. Bandoleira.

DOMEKAKO PARTIDUAK, URTARRILAK 20

10:00	La Kokotxa - Txapela. Naste Borraste.
11:00	Naste Borraste - Tzibaz United. Txapela.

Bildu ez dago ados alkatearen soldatan izan den igoerarekin

Erantzuna izan da alkateak soldata duina duela

L.Z. | ELGETA

"Agintaldi hasieran, alkatearendako 24.786,62 euroko soldata adostu genuen. 2013ko aurrekontuan 25.827 euro jaso dira". Bilduk desadostasuna agertu zuen 2013ko aurrekontua onartzeko osokoan. Kopurua bera baino gehiago, prozedura kritikatu dute. "Lehen Ogasun batzordetik azkenekora arte hartu dugu parte, eta ez dugu aldaketa horren berririk izan", esan du Janire Lazkanok. Azalpena eskatu, eta Udal Gobernuak akats teknikoa argudiatu zuela diote: "2008ko ordainketa beharrean 2007koa hartu zela kontuan kopurua finkatzeko orduan". Azalpenak ez ditu Bilduko ordezkariak asebate. "Murrizketak batera onartu genituen, Udal Gobernuak ekarritako proposamena zen, gainera. Adostutako erabaki bat atzera bota, eta alkatearen soldata mila euro egin du gora".

Erantzuna

Aralar-Independenteak taldearen erantzuna izan da alkateak soldata duina duela: "Udaletxean bost soldata finko daude, eta alkatearendako proposatu duguna seigarrena litzateke: duina, baina finko dauden langileekin konparatuta baxuena, eta, gainera, ordutegirik gabekoa". Salatu dute Bildu mila euroga-tik kezkatuta egotea, baina ezer ez esatea Udalak alkatea libe-ratu egon ez den denboran 120.000 euro aurreztu izanaz. Jakinarazi dute, bestalde, ez kobratzearen alkateak ez duela telefono gasturik ere kobratzen, eta ez duela azken lau hilabeteetan liberazioagatik Udaletik ezer kobratu. Honakoa ere gehitu dute: "Ez dago urrun joan beharrik Bilduren alkate eta zinegotzi liberatuek zer kobratzen duten ikusteko; Elgetan alkatearendako onartu dena hortik behera dago".

Ernesto Sevillak bete egingo du Espaloia barikuan; zapaturako sarreraren salmenta ere azkar doa

Gaur, barikua, Ernesto Sevilla monologista entzutetsuak irekiko du Elgetako I. Monologo Mostra *Monólogos de Coconut* ikuskitzunearekin. Bi emanaldi egingo ditu; gaur eta bihar, zapatua, 22:30ean. Sarreraren salmenta azkar doa, eta barikuko saiorako agortuta daude. Sarrerak antzokian bertan zein Internet bidez —*www.espaloia.com*— eros daitezke. Prezioa da 18 euro txarteldegian, eta 14 euro aurrez erosiz gero. Bonuak ere badaude.

San Sebastian kofradiako Elgetako eta Uberako nobleek domekan egingo dute urteroko ekitaldia

San Sebastian egunarekin egingo dute aurten ere urteroko ekitaldia kofradiako kideek. Antolatzaileen aurreikuspenak betetzen badira, 24 noble elkartuko dira, eguerdi partean, Elgetako parro-kian. Meza entzutera elkartuko dira, 12:00etan, eta amaitutakoan sakristian egingo dute urteroko batzarra. Kontuak kitatu eta kofradiako altak eta bajak eguneratzeko batzarra izan ohi da. Bazkaria ere egingo dute. Aurten, kiroldegian izango da.

Mendi nekazaritzako proiektuak aurkezteko epea zabaldu du Udalak urtarrilaren 25era arte

Baserri eta landa inguruneko proiektuendako dirulaguntza eskaerak urtarrilean aurkeztu behar dira. Hala, Udalak jakina-razi du herritarrek eskaerarik izanez gero idatzia hilaren 25a baino lehen udaletxean aurkezteko. Oraingoz, bi eskaera daude jasota; iaz dirulaguntzarik jaso ez zutenak.

LEINTZ GATZAGA

Korrikaren etorrera girotzen hasteko herri afaria dago gaur

MIRARI ALTUBE | LEINTZ GATZAGA

Lan eta lan dabil Gatzagako Korrika batzordea eta dagoeneko egin ditu bi bilera. Korrika 18ren etorrera girotzeko eta hari laguntzeko dirua batzeko hainbat ekintza antolatu dituzte datozen asteotarako. Gaur, egubakoitza, herri afaria dute elkartean eta 34 bat lagun elkartuko dira.

Korrika batzordeak egindako deiari herritarrek erantzun ezin hobe eman diote, eta lagun asko elkartuko dira gaurko afarian. "Afaldu bakarrik ez, umore ona lagun kantuan ere egingo dugu gero", jakinarazi du Iñaki Agirreurreta kultura zinegotzi eta Korrika batzordeko kide denak.

Gatzagak lau kilometro

Ez da Korrika batzordeak antolatutako lehen ekitaldia, Gabon aurretik angulen pisua asmatzeko apustua egin zuten eta. Datozen astoetarako dituzten asmoen artean daude bolo txapelketa otzara baten zozketa eta bertso afaria martxoaren erdian.

Horrez gain Korrika laguntzaile txartela eskuratzeko zer egin behar den argibideak eman-gotuzte, eta Gatzagari dagozkion lau kilometroak saltzen ere aha-leginduko dira.

Gaur astinduko dituzte danborrak eskolako umeek

Domekan, urtarrilak 20, da San Sebastian eguna, baina eskolako neska-mutikoei gaur astinduko dituzte danborrak Debagoieneko ikastetxe gehienetan legez. Goizean elkartuko dira pilotalekuan, danborrak eskuan eta sukaldari txapelak buruan, *Sarriegiren martxa* eta beste hainbat doinu eskaintzeko senideei.

Aperribay, s.l.

Marmoldegi
eta granitoak

Pagatza indus. z/g.
Tel. eta faxa: 943 78 90 21
20690 ELGETA

FUTBOLA

Lagun bi, derbian, aurrez aurre

Realean ezagutu zuten elkar, gazte mailan, eta aurrerago talde txuri-urdinak batu zituen ostera. Domekan, Aretxabaletako eta Mondrako entrenatzaile moduan itzulerako derbia jokatu dute, Ibarra

Lutxo Iturrino eta Alberto Albistegi, Mojategiko harmailetan. Joanekoan Aretxabaletak irabazi zuen derbia (1-2); domekan errebantxa hartzeraz joango dira arrasatearrak Ibarra. | XABIER URTZELAI

XABIER URTZELAI | ARRASATE

Eskola bereko bi jokalaririk ohi dira Alberto Albistegi (Eibar, 1964) eta Lutxo Iturrino (Mutriku, 1963). Gazte mailan Realean egin zuten bat, euren futbol ibilbideen hastapenean, eta, Sansen ere elkarrekin jardun ondoren, nork bere ibilbideari heldu zion, 1994-95 denboraldian ostera ere Realean elkartu ziren arte, urtebetez: "Kirol mailan trantsizio urtea izan zen hura", dio Albistegik. Izan ere, urte hartan Toshackek jende asko igo zuen Sansetik: "Denboraldi hartan zazpi jokalaririk gazte etorri ziren lehenengo taldera: Alkiza, Imaz, Gurutzeta, Imanol, Luis Perez, Alberto... Eta taldeak Loren eta biok fitxatu gintuen. Sasoi hartan, berriz, atzerritarrek ziren Oceano, Carlos Xabier, Karpin, Meho Kodro... Talde berria eratzen hasteko urtea izan zen".

Hala, horrenbeste gazte batera igotako taldea izanda ere, Realak hamaikagarren izan zen denboraldi hartan, eta Real Madrilak irabazi zuen liga. Realean 1994an Iturrinorekin elkartu aurretik, Albistegik Sestaon eta Mallorcan jokatu zuen, *Super Depor* ezagunean atzealdean erreferenteetako bat bilakatu zen arte (1990-1993 urteen artean). Fisikoki indartsua, markaketan ona, eibartarra zentral moduan

egindako lanean nabarmendu zen gehien.

Eibarkoa bezala, Lutxo Iturrino mutrikuarra ere ez zen geldi egon: Realak, Athletic, Logroñes... Realera egindako itzuleran denboraldi bakarra egin zuen txuri-urdin moduan, Salamancak fitxatu zuen gero eta Eibarren jokatu zuen azkenik. Teknika oneko jokalaria, eskuin-hegalean jokatzen zuen, azken urteetan atzelari lanetan ibili bazen ere.

Hala, futbolak domekan batu dugu osteraz, Aretxabaletaren eta Mondraren arteko derbia (16:30, Ibarra); entrenatzaileen aulkietan izango dira biak.

Ez diote ondokoari begiratzen
Gaztetako lagunak dira Albistegi eta Iturrino, baina eurekin berba egin ostean ateratako lehenengo ondorioa da nork bere bidea egin duela, ondokoaren lana askorik jarraitu gabe: "Egia esan, Mondra hiru aldiz ikusi dut aurretengo denboraldian, ez gehiago. Denboraldi-aurrean elkarren kontra jokatu genuen, eta baita ligako lehenengo jardunaldian ere [Aretxabaletak 1-2 irabazi zuen Mojategin]. Joan den astean, berriz, Markinan izan nintzen Ondarroako Aurreraren kontra jokatu zuten partidua ikusten, baina hortik ezin da ondorio handirik atera.

ESANAK

"Mondra ondo jokatzen ahalegintzen den taldea dela ikusi dut"

ALBERTO ALBISTEGI | ARETXABALETA

"Aurrealdean daude, gauzak ondo egiten dabilzan seinale"

LUTXO ITURRINO | MONDRA

SAILKAPENA

TALDEA	P	J
1 Hernani	39	17
2 Real Union	39	17
3 Aretxabaleta	33	17
4 Oñati	32	17
5 Berio	29	17
6 Hondarribia	29	17
7 Bergara	29	17
8 Touring	25	17
9 Tolosa	24	17
10 Aloña Mendi	20	17
11 Mondra	18	17
12 Lagun Onak	18	17
13 Aurrera	17	17
14 Zarautz	17	17
15 Beti Gazte	17	17
16 Trintxerpe	17	17
17 Ostadar	16	17
18 Urola	13	17

Ikusten da talde polita duela, eta ondo jokatzeak ahalegina egiten duela.

Iturrinok ere antzerki erantzun digu: "Ez gara askorik arduratzen ondokoak zelan jokatzen duen ikusteaz. Gehiago ahalegintzen gara gure jokatze modua berdegunean ezartzeaz". Baina bai, mutrikuarrak badaki Aretxabaletak talde sendoa duela: "Makalaldi bat izan dute, baina dagoeneko ondo erreuperatuta daudela esango nuke. Taldea sailkapenaren goialdean dago, gauzak ondo egiten dabilzan seinale".

"Derbietan denetik izaten da"

Sailkapenean hamabost puntuko alde dago Aretxabaletaren (33) eta Mondraren artean (18). Albistegiren mutilak hirugarren daude, eta Hernaniren eta Real Unionen itzalari eutsi nahian dabilza -biak 39 punturekin-. Mondra, berriz, sailkapenak erakuts dezakeena baino hobeto jokatzen dabil, baina joko-maila txukun hori ez da puntuetan islatzen: "Hori ibili gara orain komentatzen, uste dugu ditugunak baino puntu gehiago merezi ditugula, baina futbolak hori dauka, ondo jokatzeak ez ditu puntuak ziurtatzen".

Hala, Mondra ezustea emateko asmoz doa Ibarra: "Zaila

izango da, baina gainontzeko futbol zelaietara ere asmo berdinarekin joaten gara, irabaztera. Gainera, derbietan zaila da ezer aurreikustea, gertuan dauden bi taldek elkarren kontra jokatzen dutenean partidua bereziak izaten dira, lagunaren arteko partidua izaten dira, baina lehia handia egoten da, *pike* deportiboa. Hala, horrelako partiduetan garrantzi txikia izaten du sailkapenak zer erakusten duen; hasierako minutuetan, behintzat".

Aretxabaletak, berriz, igoerako postuengatik borrokan ez du estropezu gehiagorik nahi: "Ea giro polita sortzen den zelaian, horrek beste puntu bat ematen die jokalariei". Iturrinok *pike* berba aterata, berdegunean izango diren jokalarien artean bakarrik ez, aulkietan ere pikerik ba ote dagoen galdetu diogu: "Ez, ez... Denoi gustatzen zaigu irabaztea, horretarako egiten dugu lan, baina oso harreman ona dugu", dio mutrikuarrak, barrez.

Aloña eta Bergara, kanpoan

Derbia alde batera utzita, Bergarak Lagun Onak zelaian jokatuko du zapatuan (16:00), eta Aloña Mendik, berriz, Ostadarren zelaian egingo du bisita (15:30). Mondrako emakumezkoek, berriz, etxean hartuko dute Gasteizko Aurrera, etzi (15:30).



Aretxabaletak hamaikako horrekin hasi zuen liga. | XU.



Lehenengo partidurako Lutxok aukeratutako hamaikakoa. | XU.

MENDI LASTERKETAK

Hirugarren mendi lasterketa jaio da

Antzuolako 8 Miliek osatuko dute Aloñako Igoera eta Gauez Takarraran probekin ibarreko egutegia

XABIER URTZELAI | ANTZUOLA

Antxintxika Triatloi taldeak, Antzuolako Udalak lagunduta, Antzuolako 8 Miliak mendi lasterketa antolatuko du otsailaren 17an, domeka. Hala, kirol taldeek urtean zehar dituzten konpromisoei eustera mugatu barik, eta gaur egungo egoera zailean ere, Antxintxikakoek beste erronka bati heltzeko erabakia hartu dute. Hala, eguazten arratsaldean aurkeztu zuten Debagoienean izango dugun kirol hitzordu berria: "Lehenik eta behin Antxintxikatik azpimarratu nahi dugu Antzuolako herriak, herriko komertzioek eta lantegiek eskaini diguten laguntza lasterketa antolatzerako orduan. Hala, espero dugu herriarendako egun eder bat izatea eta lasterketa honekin denok disfrutatzea", adierazi zuen Aitor Rementeriak.

13 kilometro, para je ederretan

Antolatzaileen esanetan, Antzuolako lasterketako ibilbidea para je ederretan zehar egingo dute, eta 13 kilometro luzetan korrikalariak 835 metroko desnibel positiboa gainditu beharko dute.

Proba Herriko plazan hasiko dute (10:30) eta korrikalariak Irimorako (898m) bidea hartuko dute Antiguako auzotik. Ondoren Gorlara jaitsiko dira, baina handik Antzuolara egin beharreko tartean zatiren batean igoera tarte txiki batzuk ere izango dituzte; helmuga, ostera, Antzuolako plazan izango da. Hala, Antxintxikako ordezkarien ustetan korrikalari azkarrenak ordu baten



Antzuolan egindako aurkezpeneko une bat. | X.U.

DATUA

835

METRO

Antzuolako 8 Miliak proban atletek 835 metroko desnibela gaindituko dute.

ESANAK

"Antzuolan izandako babesa eskertu nahi dugu"

AITOR REMENTERIA | ANTOLATZAILEA

bueltan iritsiko dira helmugara, proba azkarra izango da, beraz.

Lasterketan aurrez izena emateko epea otsailaren 14an amaituko da (*kirolprobak.com*). Hala eginez gero 8 euro ordaindu beharko dira, eta egunean bertan izena ematen duenak 18 euro ordaindu beharko ditu (16-18 urte bitartekoek gurasoen baimena beharko dute parte hartzeko).

Txikiendako hitzordua

Lasterketaren ordu berean (11:00) txikienek (1-3 urte) ere izango dute zerekin entretenitu, haurrendako Molto motorren lasterketak egingo dituztelako, Munduko Txapelketa, gainera (Eurria egingo balu frontoian izango dira lasterketak). Horretarako ere haurrek gurasoen baimena beharko dute, eta doan izango da.

SASKIBALOIA

Natra-Oñatik UPV Arabaren bisita eta MUk Araberrirena

Oñatikoek porrot bakarrarekin amaitu nahi dute lehen itzulia; UPV sailkapenaren erdian dago

X.U. | ARRASATE

Pas Pielagos-en kantxan jokatu duen lehen itzuliko azken partidua irabaztea nekezagoa izango da, baina bihar Zubikoan (18:00) UPV Arabaren kontrakoa irabaztea taldearen aurreikuspenetan dago. Arabarrak bosgarren daude sailkapenean eta Valladoliden 18 puntugatik galtzetik datoz.

Argazki lehiaketa, sariekin

Natra Oñatik argazki lehiaketa antolatu du, eta parte-hartzaileen artean ACBren Errege Koparako

bi bono zozketatuko dituzte. Lanak aurkezteko eguna hilaren 25a da (*alonamendi.saskibaloia@gmail.com*). Argazkiak partiduetan ateratakoak izan beharko dira: harmailak, jokalaria...

MU, sentsazio onak batuta

Nahiz eta kontraesana izan, porrot batzuek zapora gozoa uzten dute; hori da MUri joan den astean Lizuanen kantxan gertatu zitzaiona. Galdu arren, Larreategiren mutilak kontrario gogor baten aurrean azken minutuetara arte



Zeziaga, joan den astean. | I.SORIANO

egon ziren partiduan sartuta, eta taldean izandako bajak ondo bete zituzten ordezekoek. Bihar (Iturripe, 20:00) sailkapenean erditik behera dagoen Araberriren bisita izango dute zuri-moreek.

ASTEBURUKO HITZORDUAK

FUTBOLA

EMAKUMEZKOEN BI. MAILA
Mondra-Gasteizko Aurrera
Domeka. 15:30. Mojaitegi.

EUSKAL LIGA, GAZTEAK
Aretxabaleta-Eibar
Zapatua. 17:15. Ibarra.

OHOREZKO ERREGIONALA
Lagun Onak-Bergara
Zapatua. 16:00. Garmendipe.
Ostadar-Aloña Mendi
Zapatua. 15:30. Lasarte Oria.
Aretxabaleta-Mondra
Domeka. 16:30. Ibarra.

ERREGIONAL PREFERENTEA
Antzuola-Ordizia
Zapatua. 15:45. Estala.

LEHEN ERREGIONALA, IGO.
Euskalduna B-Aretxabaleta UDA
Zapatua. 12:15. Andoain.

LEHEN ERREGIONALA, KOPA
Bergara B-Eibartarrak B
Zapatua. 12:15. Ipintza.
Arizmendi-Soraluze B
Domeka. 10:00. Ibarra.

OHOREZKO GAZTEAK
Bergara-Billabona
Domeka. 11:30. Ipintza.
Aloña Mendi-Tolosa
Domeka. 16:30. Azkoagain.
Ordizia-Mondra
Zapatua. 16:00. Altamira.

GAZTEAK, IGOERA FASEA
Aretxabaleta B-Antigua Lube.
Zapatua. 15:00. Ibarra.

GAZTEAK, KOPA
Bergara B-Beasain B
Domeka. 17:15. Ipintza.
Eibartarrak-Arizmendi
Zapatua. 17:30. Unbe.
Aloña Mendi B-Eibartarrak B
Zapatua. 17:30. Azkoagain.

KADETEEN OHOREZKO M.
Arrasate-Anaitasuna
Domeka. 17:30. Mojaitegi.
Reala B-Aloña Mendi
Zapatua. 11:00. Zubietia.
Beasain-Bergara
Zapatua. 19:45. Igartza.
Aretxabaleta-Urola
Zapatua. 12:00. Ibarra.

KADETEAK, KOPA
Urki-Arrasate
Zapatua. 13:30. Eibar.
Arizmendi-Antzuola
Zapatua. 10:00. Almen.

Bergara B-Eibartarrak
Zapatua. 09:00. Ipintza.

OHOREZKO INFAN. TXAPEL.
Zarautz-Bergara
Zapatua. 11:00. Zarautz.
Arrasate-Real Union
Zapatua. 11:45. Mojaitegi.

OHO. INFANTILAK KOPA
Ordizia-Aloña Mendi
Zapatua. 10:30. Altamira.
Lagun Onak-Aretxabaleta
Zapatua. 14:15. Garmendipe.

EMAKUMEZKO GAZTEAK
Touring-Mondra
Zapatua. 11:00. Fanderia.
Bergara-Irun Artia
Domeka. 15:30. Ipintza.
Aloña Mendi-Amara Berri
Zapatua. 15:30. Azkoagain.

ARETO FUTBOLA

EUSKADIKO TXAPELKETA
Eskoriatza (atsedena).

GIPUZKOAKO LEHEN MAILA
Hirukide-Aretxabaleta
Zapatua. 12:00. Tolosa.

KADETE GIZONEZKOAK
Egintza-Arizmendi Eskoriatza
Zapatua. 10:00. Billabona.

GIZONEZKO INFANTILAK
Arizmendi Eskoriatza-Debaba.
Zapatua. 11:00. Almen.

ESKUBALOIA

EUSKADIKO TXAPELKETA
Ford Mugarri A-Askartza
Zapatua. 17:45. Iturripe.
Estudios El Pilar-Soraluze BKE
Domeka. 10:30. Gasteiz.

EUSKADIKO TXAPELKETA, EMAKUMEZKO SENIORRA
Alala-Aloña Mendi
Zapatua. 12:00. Zarautz.

EUSKADIKO TXAPELKETA, EMAKUMEZKO KADETEAK
Astigarraga-Aloña Mendi
Zapatua. 16:00. Olazaga.

GIPUZKOAKO TXAPELK.
Eibarko Haritza-Izarraitz Aloña
Zapatua. 17:00. Eibar.

GIPUZKOAKO BIG. MAILA
Arrasate-Ordizia
Zapatua. 16:00. Iturripe.
Bergara-Leizaran
Zapatua. 16:30. Labegaraleta.

KADETE, GIZONEZKOAK
Usurbil-Arrasate
Zapatua. 11:00. Oiardo.
Soraluze Bergara-Amenabar
Zapatua. 12:45. Labegaraleta.

SASKIBAOIA

EBA MAILA
Natra Oñati-EHU araba
Zapatua. 18:00. Zubikoa.

LEHEN NAZIONAL MAILA
Mondragon Unibe.-Araberi
Zapatua. 20:00. Iturripe.

ERRUGBIA

SENIORRAK
Bathco Independiente B-Arrasate
Domeka. 12:00. Santander.

ESKOLA
Alebinak eta benjaminak
Domeka. 10:30. Mojaitegi.

PILOTA

ANTZUOLA
Olalde-Murumendi (benjam).
Egubakoitza. 19:00. Udal pilotak.

BERGARA
Bergara 1-Aurrera Saiaz (aleb).
Egubakoitza. 19:30. Udal pilotak.
Bergara-Txapagain (gazteak)
Egubakoitza. 19:30. Udal pilotak.

ARRASATE
Arrasate 2-Soraluze (Infant).
Egubakoitza. 20:30. Uarkape.
Arrasate-Hernani (Nagusiak).
Egubakoitza. 20:30. Uarkape.
Arrasate 1-Beloki 2 (infantilak).
Zapatua. 17:45. Uarkape.
Arrasate 1-Soraluze (alebinak).
Zapatua. 17:45. Uarkape.



GOIENA

MONDRAGON UNIBERTSITATEAK ETXEAN Lizuanen kantxan galdu baina partidu txukuna egin ostean MUko mutilek Araberriren kontra jokatu dute bihar (20:00).

Euskadiko Txapelketako bi oilarrak aurrez aurre izango dira bihar: Ford Mugarri eta Askartza

X.U. | ARRASATE

Lider dagoen Ford Mugarri Arrasatek ligan gehien estutzen duen Askartzaren bisita izango du zapatu arratsaldean (17:45, Iturripe). Arrasatekoendako etxean jarraian jokatzeko dute bigarren partidua izango da, eta bi taldeak berdinduta dardenez, estropezu egiten duenak atzerapausoa egingo du liga

irabazteko borrokan. Arrasatekoek, gainera, joan den astean ez zituzten batere sentsazio onak izan Urduliz moduko talde baten aurrean, horrenbestez, erronka bikoitza dute.

Ligan erdialdean dabilen Soraluze BKE taldeak, berri, Gasteizeko El Pilar kontrario zuzenaren kantxan jokatu dute domeka goizean (10:30).

goienagida

Sarean | Mugikorretan | Tabletetan | Paperean

DEBAGOIENEN KOMERTZIOEN GIDA BERRITASUNEKIN DATOR!



	Zuzeneko deia egiteko aukera.
	Geolokalizazioa.
	Nola joan adieraziko dizugu.



Webgunean ere
goienagida
askoz ere osatuagoa:

Bisita ezazu:
www.goiena.net/gida

goienagida

Mugikorrean

Proba ezazu!

Bi modu dituzu:

❶ Beheko QR kodea irakurrita edo Google Play edo App Store-tik, Goiena.net aplikazioa jaitsi eta GIDA sakatu.



❷ m.goiena.net/gida.html
helbidean sartuz.



goienagida
2013



OÑATI
BERGARA
ANTZUOLA
ELGETA
ARRASATE
ARETXABALETA
ESKORIATZA
LEINTZ GATZAGA
ARAMAIO

20.700 ale
Debagoiena
guztian.
Laster zure etxean!



KULTURA

MAIDER ARREGI | ARRASATE

Adin tarte bati erantzuna eman guran sortutako ekimena dugu gurean, Bergaran eta Oñatin, egiten diren disko festak -12-17 urte artekoentzako-. "Adin kritikoa dute; oraindik ezin dira tabernetan sartu, baina ez dute gozokiak jan eta kalean jolasean egoteko nahirik", azaldu digu Juancarrek, Sound Project DJ bikoteko kideak.

"20 urte daramagu musika jartzen; batez ere, tabernetan. Ezkontzak egiten ere hasi ginen. Baina gure asmoa zen gazteei ere eskaintza zabaltzea. Hala, Udalera jo genuen gure ekimenaren berri ematera eta bi urte pasatxo gabiltza hilero DJ saioak egiten", gaineratu digu.

Orain baina, hilero gaikako disko festa egingo dute. "Gabetan kotiloi antzerako bat egin genuen, txano eta serpentinekin. Bihar, orain arteko disko festa guztiak batu, eta atzera begira jarriko gara; batutako argazki guztiak ere proiektatuko ditugu, gainera".

"Helburua gaztetxoek ondo pasatzea da; eta elkar ezagutzea, harremanak sustatuz. Dagoeneko gaztetxoek hiru belaunaldi igaro ditugu, eta, adin zaila duten arren, aberasgarria da eurekin lan egitea. Aurrera begira koreografiak ere sartu gurako genituzke musika eta dantza uztartzeko".

Bergaran, aldiz, DJ Amaiak gidatzen du disko festa. Sorluzetik ere etortzen direla gaztetxoak kontatu digu oñatiarrak. "Bergarako DJ jaialdiek gaztetxoek artean harrera bikaina dutela esango nuke. Adin desberdinetako gaztetxoekin zapatuetan Zabalotegi aretoa dantzaleku bihurtzen dugu eta giro paregabea egoten da. Pozik ibiltzen direla esango nuke, eta neuk ere primeran pasatzen dut eurekin".

Baina Amaia Txintxurretak musika soilik ez, koreografiak ere prestatzen ditu: "Koreografiak egiten ditut; batuka, adibidez. Baina gaztetxoek eurek ere prestatuta ekartzen dituzte. Gehienetan, taula gainean nirekin dantzan amaitzen dute", dio. "Niretzako, esperientzia oso polita da. Musi-



Dj Amaia Zabalotegi aretoan gaztetxoak animatzen. | JOSETXO ARANTZABAL

Disko festen 'boom'-a

Oñatiko gaztelekuan eta Bergarako Zabalotegi aretoan bihar egingo dute urtarrileko disko festa

ka betidanik asko gustatu izan zait; musika entzutea, abestea eta dantza egitea".

Zabalotegin eta gaztelekuan

Edurne Korta Bergarako Gazte-ria teknikariak ekimenaren gaineko balorazio oso positiboa egin digu: "2012. urtean 12 DJ jaialdi antolatu ziren eta denera 2.366 erabiltzaile izan ditugu; kontuan izan joan-etorrian ere ibiltzen direla. Egun gehienetan 200 gaztera iritsi da. Beraz, Zabalotegi aretoa bete egiten da".

Datu bikainak baita Oñatiko gaztelekutik emandakoak ere. Joxe Azpitarte gaztelekuko arduradunak milatik gora haur batzen direla esan digu. "Gaztelekuan, batez beste, 116 gazte izan ditugu 2012an egindako bederatzi disko-festetan. Udan giroak kalean behar du eta ez da festarik egiten. Gazteak gustura ibiltzen dira festetan, dantzan, musika entzuten, freskagarriak edaten... eta giro berezia sortzen da Topalekuan. Are gehiago: askotan galdetzen dute hurrengo disko festa noiz izango den. Seinale ona, ezta?", gaineratu digu Azpitartek.

Oñati, kulturalki, ez dela diskoteka kulturako herri bat azaldu digu, eta askotan gorputza mugitzea kostatzen zaiela.



DJ AMAIA

Amaia Txintxurreta 16 urterekin hasi zen erromerietako musika talde batean abesten. Ordutik hona, talde ezberdinetan ibili da; bi urte beteko ditu DJ gisa. Ezkontzetan hasi zen eta orain Zabalotegiko jaialdietan dihardu.

"Gehienetan, agertokian bukatzen dute dantzan"



DJ SOUND PROJECT

Juancarrek eta Juanek osatzen dute DJ Sound Project bikotea. 20 urte inguru daramatzate musika jartzen tabernetan eta ezkontzetan. Dagoeneko, baina, bi urte daramatzate gaztetxoei musika jartzen Oñatiko gaztelekuan.

"Adin zaila duten arren, lan aberasgarria da guretzat"

Zapatuan disko festak gurean

Bergarako Zabalotegin DJ Amaia izango da bihar, 18:30ean hasita.

Oñatiko gaztelekuan, aldiz, Sound Project bikoteak musika jarriko du, 18:00etan. Atzera begira jarriko dira eta orain arteko disko festa guztien erretratuen bilduma proiektatuko dute.

Otsailerako, gainera, disko festa berezia antolatu du gaztelekua; adin guztiei zabalik dagoena. Oihan Vega etorriko da saioa egitera.

2013
urtarrila | otsaila
Elgetako Espaloia
kafe antzokian

Elgetako

I. MONOLOGO MOSTRA



Urtarrilak 18 eta 19 - 22:30
ERNESTO SEVILLA

'Monologos Coconut' ikuskizuna.

Gidoilaria eta aktorea, baina batez ere komikoa. Ernesto Sevillak dioen moduan: "Barrez lehertuko gara gaur gauean".

sarrerak erosteko: www.espaloia.com



Ernesto Sevilla | Monologista

"Elgetako herriarendako, umorea izatea oso sintoma ona dela uste dut"

- Gaur hasiko da Elgetako I. Monologo Mostra
- 'Monólogos Coconut' ikusgai asteburuan

M.A. / L.Z. | ELGETA

Gaur gauean emango zaio hasiera I. Monologo Mostrari. Kafetegian harrapatu dugu, baina, Ernesto Sevilla monologista; izan ere, aste honetan *Muchachada Nui* taldearen filmaren gidoia prestatzen diharduela kontatu digu. Barikuan eta zapatuan *Monólogos Coconut* ikuskizunaz gozatzeko aukera izango dugu Sevillarekin. Bada, hitzordua Elgetako Espaloia kafe antzokian duzue, 22:30ean hasita.

Monólogos Coconut ikuskizuna zertan datza?

Nire testu onenen bilduma da. Baina eduki berriak ere sartu ditut jarraitzaileendako. Oso ondo pasatuko du ikusleak, horretarako dago-eta eginga. Inprobisaziorako erraza da ikuskizuna eta sorpresaren bat ere izango da. Ordu eta erdiko ikuskizuna da, gutxi gorabehera, nahiz eta luzatu egin daitekeen.

Telebistan ikusi zaitugu; zuzenekoetan ezberdina da?

Zuzenekoak ezberdinak dira, zentsura txikiagoa dago-eta. Hone-

kin ez dut esan nahi telebistan zentsuratu egiten nautenik. Ikuskizun hau zuzenagoa da, askeagoa da. Eta telebistan beti arau batzuk jarraitu behar dituzu. Eta aspektu horretan, ezberdinak dira zuzenekoak.

Mediku izango bazina, nori egingo zenioke *Monólogos Coconut* erre-zeta?

Mundu guztiari egingo nioke erre-zeta. Egun bizi dugun egoera gordinarekin denontzako da ona dibertsio pixka bat eta barre egitea, noski.

Bizi dugun egoera honetan, Elgetan Monologo Mostra egiteak zer iradokitzen dizu?

Katxondoen herria dela... kar-kar! Umore handiko herria dela uste dut; komedia gustuko dutenak.

"Bizi dugun egoera gordinarekin, denontzako da ona dibertsio pixka bat"

Elgetako herriarendako umorea izatea oso sintoma ona dela iradokitzen dut.

Jendea animatuko zenuke monologoak egitera?

Bai, noski. Beti esan izan dut asko laguntzen duela, batez ere lotsatia bazara. Ni batzuetan lotsatia naiz, eta oraindik ere banaiz. Eta esan nahi dut asko laguntzen duela askatzera. Publiko aurrean hitz egiteak asko laguntzen du, eta, nola ez, monologoak egiteak.

Zure jarraitzaile direnei eta jarraitzaile egingo direnei zer esan nahi diezu?

Etor daitezela *Monólogos Coconut* ikuskizuna ikustera; barre egingo dute eta ikuskizuna amaitu ostean ere barre egiten jarraituko dutela esango nieke. Euren bizitzan lehenengo aldiz barre egiten ikasiko dute!

Aukera aparta dute bailara honetako herritarrek gaur eta bihar umore onarekin blai utziko dituzten monologoak entzuteko. Horrenbestez, anima daitezela, ez dira-eta damutuko; barrez lehertuko dira.



Ernesto Sevilla, Albaceteko monologista, aktorea eta gidoilaria. | ERNESTO SEVILLA

LEHENENGO MONOLOGO MOSTRA

EGUNA	ORDUA	MONOLOGISTA	OBRA
Urtarrilak 18	22:30	Ernesto Sevilla	<i>Monólogos Coconut</i>
Urtarrilak 19	22:30	Ernesto Sevilla	<i>Monólogos Coconut</i>
Urtarrilak 25	22:30	Sara Escudero / Miguel Iribar	<i>No controlo mi vida / Superdotados</i>
Urtarrilak 26	22:30	Sara Escudero / Miguel Iribar	<i>No controlo mi vida / Superdotados</i>
Otsailak 15	22:30	Pedro Llamas / Dani Lopez	<i>Vaya por Dios</i>
Otsailak 16	22:30	Pedro Llamas / Dani Lopez	<i>Vaya por Dios</i>
Otsailak 23	22:30	Dani Mateo	<i>Que Dios nos coja confesados</i>
Otsailak 24	22:30	Dani Mateo	<i>Que Dios nos coja confesados</i>

'Bertso-eskolak.com': bertsolaritzaren transmisioan eragiteko jaio den ataria

'Arbel digitala' izeneko atalak bertsoak idazteko laguntza eskainiko du

MAIDER ARREGI | ARRASATE

Asteon aurkeztu da *www.bertso-eskolak.com* webgune berria. Bertsolaritzaren transmisioan eragiteko helburuarekin Bertsozale Elkarteak eta Euskal Herriko Unibertsitateko IXA taldeak egin dute elkarlanean. Hainbat nobedade dakar webguneak; tartean, *Arbel digitala*, bertsoak idazten laguntzen duen atala.

Bertsozale Elkarteak garatu eta elikatutako datu-baseei esker, Euskal Herri osoan zehar dauden bertso-eskolen berri eman eta bertsolaritzaren egoeraren argazkia erakusten duten mapak sortu dira. Tartean, Aramaio, Arrasate, Antzuola, Aretxabaleta, Bergara eta Oñatiko eskolena. "Webgunean eskaintzen diren mapa hauek bertsolaritzaren transmisioan, geroratzean, lagundu nahi dute, Euskal Herri osoan

zehar dauden eragileen esku baliagarri izango dituzten datu interesgarriak jarrita", azaldu dute prentsaurrekoan. "Bertsolaritzaren Datu-Basea, *bdb.bertsozale.com*, dute oinarri mapak. Erreminta hau bertsolaritzaz

gain beste kultura jarduera batzuen argazkiak jaso eta erakusteko ere oinarri teknologiko egokia izan daitekeela uste dugu". Hala, Bertsozale Elkarteak urte luzez garatutako teknologiak kulturagintzan interesa izan deza-



Bertol Arrieta, Manex Agirrezabal, Ixiar Eizagirre eta Aritz Zerain, webgunearen sustatzaileak. | WWW.BERTSO-ESKOLAK.COM

keten eragile guztiendako eskaintza izan gura du.

Manex Agirre Arabako txapeldunari eskatu gura izan diogu iritzia: "Iruditzen zait gaur egun bertsolaritzan transmisioan egiten den lana ondo jasotzen dutela bertsolaritzaren mapak eta bertso-eskolen mapak. Herri bakoitzean zenbateko bizitza duen bertsogintzak, ze motatako mugimendua dagoen... Hori oso interesgarria da, barrutik ezagutzen ez dutenendako. *Arbel digitala* erabiltzeko aukerarik ez dut izan; tresna polita izan daiteke bertso

eskoletan erabiltzeko, edo bertsolaritzara hurbildu nahi duenari bidea errazteko eta beldurra kentzeko".

Eduki berritzaileak

Bertsotarako *Arbel digitala* bertsoak idazterakoan laguntza eskaintzen duen programa da, errima bilatzailea eta zuzentzailea, doinutegia, neurri zuzentzailea eta sinonimo bilatzailea eskuraz jarrita. Bertsoak idatzi, landu edo bertsotan egiten ikasi nahi duenari zuzendutako tresna da. Bertso-eskolen mapa: bertso-eskola bat bilatu eta harremanetan jarri nahi duenarentzat egin da, Euskal Herri osoan zehar dauden bertso-eskolen berri jasotzen du eta urteroko datuak eguneratzen ditu; bertso-eskola bakoitzak azken ikasturtean dituen taldeen ezaguerari ematen du. Bertsolaritzaren mapa: bertsolaritza sustatzen ari diren bertso-eskoletako kideek eta herrietako eragileek erabiltzeko garatu da, euren herriko edo bailarako egoeraren irakurketak egin ahal izateko. Tresnak: bertsotan ari direnentzat edo Interneten dauden hainbat baliabide eskura jarri dira.

Berria Taldeari laguntzeko 'Ziztada jaia' bihar Amaia Udal Antzokian

- Debagoieneko euskalgintzako eragileek bultzatutako ekitaldia da
- Askotariko osagaiak izango ditu: musika; opariak, antzezpenak...

AITZIBER ARANBURUZABALA | ARRASATE
Debagoieneko euskalgintzako eragileek *Ziztada jaia*, Berria Taldeari laguntzeko ekitaldia egingo dute bihar, zapatua, Amaia antzokian, 19:30ean hasita. Sarre-rak 5 eta 2 eurotan (adingabe-koentzat) daude salgai gaur AEDn (Arrasate); Loramendin (Aretxa-baleta) eta Jardunen (Bergara). Bihar, berriz, Amaia antzokiko leihatilan ere izango dira, 18:30e-tatik aurrera.

Ilaski Serranok eta Kike Amo-narrizek aurkeztuko dute ordu-bete eta laurdeneko iraupena izango duen eta askotariko osa-gaiak (antzezpenak, berbaldiak, musika emanaldiak, bideoak...) batzen dituen hitzordua.

'Berria'-n oinarrituta

Ekitaldiaren egitura orokorra *Berria* egunkariak dituen atale-tan oinarrituko da.

Egunkariaren itxieratik *Berria*-ren sorrerara arteko kontakizu-nak zabalduko du egitaraua. Horren ostean, *Euskal Herria* atalean, Bagara egitasmoaren toberako hainbat aktorek, tobe-



Ganbara Txiki abesbatzak ere parte hartuko du ekitaldian. | AMAIA TXINTXURRETA

'Berria'-ren ataletan oinarrituko da ekitaldia

raren ildotik, antzezpen txiki bat egingo dute. Musikarien txanda izango da gero; hain zuzen ere, Aramaioko Bea Asurmendi eta

Arrasateko Oier Arregi igoko dira taula gainera, *Ekonomia* atalean.

Atzerrian bizi diren deba-goiendar batzuen adierazpenak jasotzen dituen bideoak hartuko du lekukoa, *Mundua* atalean. *Kirolen* atala izango da jarraian, Debagoieneko hainbat kirolari (Oihana Kortazar, Alberto Iñur-rategi) eta Manex Agirre eta Maddi Labaien bertsolariekin.

Segidan, *Plaza* edo kultura atalean, Oñatiko Ganbara Txiki

abesbatza igoko da taula gainera, bi euskal kantu kantatzeko. Eta azkenik, *Iritzia* atalean, Joanma-ri Larrartek, Berria Taldeko Kontseiluko idazkariak, hartuko du hitza.

Horiek atal guztiak eta anto-latzaileek iragarri dituzten beste hainbat sorpresa ahalik eta ondoen lotzea izango da Serranoren eta Amonarrizen eginbeharra.

Opari zozketa ere bai

Saioa borobiltzeko, bertaratuta-koen artean opariak banatuko dituzte gero, urrian Arrasaten egin zuten tonbolaren haritik. Oraingo zozketan parte hartzeko ez da txartel berezirik erosi beha-rrik izango, sarretetako zenbakiak izango dira-eta bonboan sartuko dituztenak. Ternua enpresak eta Ibai Arte Arrasateko merkatari elkarteak oparitutako materia-lekin osatutako bost opari-bildu-ma zozkatuko dituzte.

Elkartasun jaialdia

Berria Taldeak joan den ikasturtean martxan jarri zuen Ziztadak ize-neko egitasmoaren barruan koka-tzen da biharko ekitaldia. gaur egun, 4.100 Berrialagun daude.

Jose Angel Aldai Berrialagun kanpainako koordinatzaileak joan den astean Arrasaten egin-dako aurkezpenean, eskerrak eman zizkien bereziki eskualde-ko Berrialagunei. Aldaik gaine-ratu zuen Ziztada egitasmoa ez dela dirua lortzeko bakarrik; hau da, jendea inguruan sentitzea ere baduela helburu.

Asteon hasi dituzte Literatura Solasaldiak Arrasateko Bibliotekan

Komikia ardatz hartuta eta Antonio Altarriba gidoilaria-ren gidaritzapean, eguaztenean egin zuten aurtengo lehen gaztelerazko solasaldia. 35 lagun elkartu ziren Davib B egilearen *Epiléptico* lan auto-biografikoa aztertzeko.

Euskarazkoen lehen hitzor-dua, berriz, urtarrilaren 22an da. Mikel Aierbe adituaren gidaritzapean, euskarara itzu-litako liburuak aztertuko dituzte. Andrej Longo italia-raren *Hamar* liburua izango da lehenengoa.

From The Jam eta Plan B taldeak urtarrilaren 25ean Oñatin

The Jam talde britainiar eza-gunaren errautsetatik sortu-tako talde gaztelekuan izan-go da. Bruce Foxton (The Jam) baxu-jolearen gidari-tzapean, taularen gainean eskarmentuko musikariak (Stiff Little Fingers, The Cult, The Pretenders....) izango dira; garai bateko The Jam taldearen kantuak joko dituz-te. Aurretik, Plan B taldeak joko du. Sarrerak, www.barrabara.eu webgunean edo egu-nean bertan gaztelekuko leihatilan.

Debagoieneko
PROFESIONAL LIBERALAK

ABOKATUAK

BERNARDINO MAIZTEGI
BERGARA / Irizar 5
Tel.: 943 76 10 81

JUAN ANTONIO SIERRA
BERGARA / Irizar 2
Tel.: 943 76 03 35

BEGOÑA LASAGABASTER
ARRASATE / Iturriotz 15, 1 A
Tel.: 943 79 98 86
Faxa: 943 77 01 08
blasaga@conet.es

RAFAEL ARANBURU
BERGARA / Irizar 5
Tel.: 943 76 10 81

ROSA BEITIA / ATXEN MUNGIA / NAIARA MEN-DIBIL (ZENBAKI)
ARETXABALETA / Basabe ind. f-0-10-pab.
Tel.: 943 71 21 12
zenbaki@zenbaki.es

AHOLKULARITZAK

AIERDI AHOLKULARITZA
BERGARA / Arte kale 1
Tel.: 943 76 03 50

ANDRA MARI AHOLKULARITZA
ARETXABALETA / Andra Mari auzunea 3
Tel./Faxa: 943 79 29 26
andrama@arrakis.es

ASEGI AHOLKULARIAK
ARRASATE / Otorala Lizentziaduna 4
Tel.: 943 71 25 49
Faxa: 943 71 17 79
asegi@asegim.com

TBG AHOLKULARITZA
BERGARA / Matxiategi 36
Tel.: 943 76 90 83

ZENBAKI AHOLKULARIAK
ARETXABALETA / Basabe ind. F-0-10 pab.
Tel.: 943 71 21 12
Faxa: 943 71 22 68
zenbaki@zenbaki.es

ARKITEKTOAK

BIARK ARKITEKTOAK
ARRASATE / Usaetxe plaza 1, behea
Tel.: 943 79 80 33
www.biark.net

ARKITEKTO TEKNIKOAK

JESUS LASKURAIN PEREZ
BERGARA / Zurradero 4
Tel.: 943 76 53 53

ETXE ADMINISTRAZIOAK

URIBESALGO ADMINISTRAZIOAK
ARRASATE / Otorala 16, solairuarte esk.
Tel.: 943 79 51 25
Faxa: 943 71 19 85
uribesalgo@telefonica.net

PROKURADOREAK

JOSE M. BARRIOLA ETXEBERRIA
DONOSTIA / Easo 57-3 esk.
Tel.: 943 45 27 26 / 656 41 55 49

Iragarkia jarri nahi baduzu,
deitu **943 25 05 05** zenbakira.



Imanol Beloki | Ikaslea

Imanol Beloki,
Aretxabaletako Huhezi
fakultatean.

PERU ARREGI

"Fakultate berriak eskaintzen dituen teknologia berriak ez genituen Eskoriatzan"

PERU ARREGI | ESKORIATZA

Imanol Beloki (Eskoriatza, 1990) Mondragon Unibertsitateko ikaslea da. Ikus-entzunezko Errealizazioaren goi mailako zikloa egin ondoren, Ikus-entzunezko Komunikazioa ikasten ari da Aretxabaletako Huhezi fakultatean.

Ikus-entzunezko Komunikazioa ikasten zabilta Aretxabaletan; zerk bultzatu zintuen kurtso hau egitera?

Aurretik goi mailako ziklo bat egin nuen, Ikus-entzunezko Errealizazioa deiturikoa. Hau lagun batek komentatuta aukeratu nuen; hasi nintzenean asko gustatu zitzaidan, eta, amaitzerakoan, praktikak Goienan egin ostean, karrera hau egitea pentsatu nuen.

Ikasketetako lehenengo bi urteak Eskoriatzako fakultatean egin zeni-

tuen. Gustura al zaude orain Aretxabaletako eraikin berrian?

Eskoriatzan bizi naizenez, gertuago nuen hura eta alde horretatik gusturago nengoen. Baina orain fakultate berriak eskaintzen dituen teknologia berriak ez genituen Eskoriatzan, eta nik uste dut hoberrako izan dela aldaketa. Hala ere, fakultatean jende gutxi dabilela ikusten dut karrera bakarra dagoelako, eta alde horretatik ez da oso erakargarria.

Titau film laburren lehiaketan parte hartu duzu behin baino gehiagotan. Antolaketa lanen bat egin duzu bertan ala lehiakide bezala bakarrik ibili zara? Esperientzia polita izan zen?

Lehenengo urtean antolaketa lanetan ibili ginen eta nik ahal izan nuen guztian lagundu nuen;

informazioa zabaltzeko lanetan, batez ere. Ikus-entzunezko ikaslea naizenez, taldekideei komentatzen, joatera anima daitezen. Askok gehiagorik ez nuen egin. Lehiakide moduan ere gustura ibili ginen. Beti aurkezten gara horrelako lehiaketetara, egun polita pasatzen dugu, barre pila bat egin, eta, nahiz eta jende gutxi animatu, oso gustura.

Zinema gustuko duzu, ezta? Zein arlo berezik (kamera, edizioa...)?

Bai, zinema gustuko dut. Ez dakit... lanean, behintzat, kamera lanak egiten ditut eta muntaiarekin asko dago ikasteko. After Effects bezalako programak erabiltzen aurren hasi gara, mundu oso zabala da eta asko gustatu zait. Bestalde, aktore lanak egiten ere oso ondo pasatzen

dugu, baina ez dut inoiz serio hartu. Hala ere, egunen batean profesionalki jarriko nintzateke horretan.

Goiena Komunikazio Taldean zabilta praktikak egiten. Zer-nolako lanak betetzen dituzu bertan? Gustura al zabilta?

Estresante samarra izaten da batzuetan, baina oso gustura nabil. Goi mailako zikloan ari nintzenean, Goienaren Arrasateko egoitzan telebistaren munduari buruz asko ikasi nuen. Toki batera joan eta irudi batzuk grabatu, zuzeneko emisioen soinua kontrolatu... esperientzia polita izan zen, eta jarraituko nuke horretan. Aurren, Aretxabaletako Arteman Komunikazio Taldean ari naiz, eta horren gustuko ez ditudan idazketa lanez gainera, bideoak editatzen ere aritzen naiz. Bideogintzan oso gustura aritzen naiz eta, bide batez, asko ikasten ari naiz bertan.

Etorkizunari begira, zeintzuk dira zure asmoak? Lan egiteko prest?

Lana aurkitzeko zail dago, baina gogoko aukeraren bat ikusten badut, gustura hasiko nintzateke. Baina, bestela, ikasten jarraitzea espero dut; telebista eta zinema munduko zer edo zer baldin bada, hobeto. Beste alde batetik, kanpora joateko gogoia ere badaukat. Dena dela, ingelesa eta ni ez gara elkarren lagun... beraz, kasu horretan, gogor ekin beharko nioke hizkuntza ikasteari.

Ikus-entzunezkoen gain, zeintzuk dira zure zaletasunak?

Nire zaletasunen artean, nola ez, lagunekin parrandan ateratzea. Bestalde, gitarra jotzea ere gustuko dut; egia da ez diodala denbora luzerik eskaintzen horri, baina ordu libreraren bat daukadanetan beti jotzen dut apur bat. Kirol aldetik betidanik izan dugu ohitura koadrilakook futbol partiduren bat jokatzeko.

PERTSONALA

Zure herriko txoko maitea: Aldatz taberna.

Janari bat: Entsalada mistoa.

Zaletasun bat: Parrandan irtetea.

Musika talde bat: Kiss.

Bidaletzeko toki bat: Eslovakia.

Pelikula bat: *Un ciudadano ejemplar.*

Telesail bat: *Prison break.*

Baso erdi hutsa edo erdi bete: Erdi bete.

Liburu bat: *Las cenizas de Ángela.*

Kirol bat: Futbola.

1. ETXEBIZITZAK

101. SALDU

Aramaio. Hiru logela, sukaldea, jangela, egongela, bi komun, despentsa, terraza eta garaje itxiko etxebizitza salgai. Kalean. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 660 57 40 66

103. ERRENTAN EMAN

Aretxabaleta. 95 metro koa droerabilgarri. Etxebizitza berria, hirugarren solairuan. Igogailua-ekin. Hiru logela eta bi bainu-ela. Dena kanpoaldera begira. Hilean 600 euro, komunitate gastuak barne. Argazkiak ikus-teko: www.euskalnet.net/aguirre. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 630 60 47 75

Arrasate. Erdigunean aparta-mentua ematen da errentan. Bi logela, egongela, sukaldea eta bainugela. Berokuntza zentrala. Bista ederrak. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 628 22 45 09

Arrasate. Erdigunean etxebi-zitza ematen da errentan. Hiru logela. Berokuntza indibiduala. Berritua. Jantzia. Deitu 607 27 66 47 telefonora.

Bergara. Erdigunean guztiz berritutako 84 metro karratuko pisua ematen da errentan. Bi logela handi ditu, sukalde, jan-gela eta egongela handiak eta trasteleku txiki bat etxean ber-tan. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 685 72 51 58

Bergara. Etxebizitza ematen da errentan. Bi logelakoa. 500 euro hilean. 691 74 06 64

Donostia. Alde zaharrean, Abuztuaren 31 kalean, hiru logela, egongela eta sukaldea duen etxea ematen da errentan. Berritzu berri. Asteka edo hila-beteka. 636 14 66 05 edo 619 41 97 10

Oñati. Etxebizitza errentan ematen da Onatiko erdigunean. Hiru logela, egongela, sukaldea eta igogailua ditu. Arratsalde-z deitu: 652 77 87 15

104. ERRENTAN HARTU

Arrasate. Bikote euskaldun eta arduratsua etxebizitza ekono-miko baten bila Arrasateko erdigunean. 615 73 89 13

105. ETXEAK OSATU

Arrasate. Etxebizitza osatzeko logela ematen da errentan. 185 euro gehigastuak. Deitu 699 11 45 14 zenbakira.

Arrasate. Logela ematen da errentan Juan Carlos Guerra kalean. 610 82 02 17

Arrasate. Logela ematen da errentan erdialdean. 120 euro gastuak barne. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 943 77 13 02

Arrasate. Bi pertsona behar dira etxebizitza osatzeko Uribe auzoan. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 610 78 46 50

Bergara. Lagun bat behar da etxea osatzeko Bolun. Prezioa: 250 €, denabarne. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 670 85 86 68 .

4. LANA

401. ESKAINTZAK

Oñati. Emakume euskaldun esperientziaduna behar da adineko gizon bat zaindu eta etxekolanak egiteko. Orduategia goizeko 9:00etatik 13:00etara. Beharrezkoa litzateke gida bai-mena eta kotxea izatea. Inter-e-satuok deitu telefono zenbaki honetara: 688 62 74 89

402. ESKAERAK

Arrasate eta inguruak. Ema-kumea gertu umea edo nagusiak zaindu eta etxeko lanak egiteko. Geriatria laguntzaile titulua daukat eta esperientzia ere bai. Mariaje. 943 25 05 72 edo 658 70 56 94

Arrasate. Emakume euskaldu-na garbitasunak eta plantxa egiteko gertu. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 699 54 17 27

Bergara edo Arrasate. Neska gertu nagusiak zaintzeko. Espe-rientzia handia. Gauak egiteko gertu nengoke. Baita etxean bizi izaten, egunez zein orduka lan egiteko ere. Legezko paperekin. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 674 93 20 47

Bergara, Arrasate edo Aretxabaleta. Haur hezkuntza ikasten dabilen 22 urteko neska euskalduna umeak zaintzeko gertu. Umeekin esperientzia handia daukat. Interesatuok telefono zenbaki honetara deitu: 680 17 33 61

Bergara. Neska gertu nagusiak edo umeak zaintzeko arratsal-dez. Esperientziaduna. Intere-satuok telefono zenbaki hone-tara deitu: 665 75 41 32

Bergaran, Antzuola edo Zumarraga. Bikotea, esperien-tziaduna eta erreferentziaduna, garbiketak eiteko gertu: atari, bulego, taberna, elkarte eta abarrak. Merke. Orduategi arazo barik. 634 91 81 73 edo 943 76 66 24

Debagoiena, Zumarraga edo Legazpi. 6 urteko eskar-mentua duen mutil arduratsua nagusiak zaintzeko gertu: garbitu, oheratu, pasiatu, sukaldatu zein ospitalean egon. Egun osoz, erdiz edo orduka. Asteburuetan ere bai. Orduategi arazo barik eta berehala hasteko gertu. 685 42 72 80 edo 943 76 66 24.

ZURE IRAGARKIAK

IRAGARKIA JARTZEKO BIDEAK:

943 25 05 05 | sailkatuak@goiena.com | [www.goiena.com](http://www.goiena.net/sailkatuak)

Eguazteneko 12:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.
Ordu horretatik aurrera ez da onartuko aldaketarik eta ezta iragarkia bertan behera uzterik ere.
GOIENAK ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

ORDAINTZEKO ATALAK DIRA:

PREZIO BEREZIA GOIENA KLUBEKO BAZKIDEENDAKO

- Etxebizitza Saldu/Errentan. Garajea Saldu/Errentan. Lokala Saldu/Errentan. Irakaskuntza eman. Motorra Saldu/Alokatu. Animaliak/Saldu. Denetarik/Saldu.

Egubakoitzean + Astelehenean: 22 € (BEZ barne).

Astebete baino gehiagoz argitaratu nahi izanez gero, prezio bereziak aplikatuko dira.

- Profesionalen moduluak.

Modulu bakarra egubakoitzean EDO astelehenean: 22 € (+BEZ).

Egubakoitzean + Astelehenean: 29 € (+BEZ).

1. ETXEBIZITZAK 101. Saldu 102. Erosi 103. Errentan eman 104. Errentan hartu 105. Etxeak osatu 106. Bestelakoak	2. GARA-JEAK 201. Saldu 202. Erosi 203. Errentan eman 204. Errentan hartu 205. Bestelakoak	4. LANA 401. Eskaintzak 402. Eskaerak 403. Bestelakoak	6. MOTORRA 601. Saldu 602. Erosi 603. Alokatu 603. Konpondu 604. Bestelakoak	8. DENETARIK 801. Saldu 802. Erosi 803. Eman 804. Hartu 805. Trukatu 806. Galdu 807. Aurkitu 808. Bestelakoak	9. HARREMANAK 901. Agurrak 902. Harremanak 903. Deiak 904. Bestelakoak
5. IRAKASKUNTZA 501. Jaso 502. Eman 503. Bestelakoak					
7. ANIMALIAK 701. Saldu 702. Erosi 703. Eman 704. Bestelakoak					
10. RELAX					

Debagoiena. Emakume ardu-ratsua, euskalduna, haur hezi-keta tituluduna eta eskarmentu handikoa, umeak zaintzeko gertu. Arantza. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 688 65 30 62

Debagoiena. Emakumea gertu garbiketak egin edo nagi-siak zaintzeko. Legezko paperak ditut et esperientzia handia. Interesatuok zenbaki honetara deitu: 672 96 08 22

Debagoiena. Eritzaintza laguntzaile tituludun neska etxean laguntzen jarduteko gertu. Interesatuok deitu tele-fono zenbaki honetara: 686 40 42 03

Debagoiena. Emakumea gertu nagusiak zaitzeko. Ospi-talean gauak egiteko gertu nago. Baita asteburu edo egunez ere. Atariak garbitzen ere lan egingo nuke. Deitu 699 60 91 90 telefono zenbakira

Debagoiena. Emakumea lanerako gertu Debagoienean. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 943 76 52 39 .

Debagoiena. Esperientziadun emakumea gertu nagusiak zaindu edo etxeko garbitasunak egiteko, orduka. Interesatuok deitu telefono zenbaki hauetara: 650 17 74 87 edo 943 76 48 26. Maite

Debagoiena. Goizez haurrak zaindu edo etxeko lanak egiteko emakumea prest. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 649 52 86 54

Debagoiena. Mutil gaztea lan bila dabil. Garbiketa lanak edo pertsona nagusiak zainduko nituzke. Egunez edo gauzez. Eli-kagaiak manipulatzeko karneta daukat. Berehala lanean haste-ko moduan. 622 77 60 65

Debagoiena. Neska arduratsua eta esparientziaduna umeak zaintzeko gertu, garbiketak orduka egiteko edo nagusiekin egon eta pasioan laguntzeko. Deitu 695 73 87 95 edo 943 71 53 74 telefonora.

Debagoiena. Neska arduratsua lanerako gertu: nagusiak zaindu, etxeko lanak egin, sukaldea eta garbitasuna. Deitu 610 99 70 46 telefonora.

Debagoiena. Neska arduratsua nagusi zein umeak zaintzeko gertu. Esperientzia daukat eta baita legezko paperak ere. Intere-satuok deitu telefono zenbaki honetara: 671 64 35 10

Debagoiena. Neska arduratsua, esperientziaduna eta erreferentzia onak dituen, lanerako gertu. Nagusiak zainduko nituzke etxean bertan bizi izaten edo bestela. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 633 34 76 22

Nagusiak zaintzeko prest Debagoienean. Neska gertu orduka lan egiteko, nagusiak zaintzen. Arratsalde-z deitu gauzez. Legezko paperekin. Deitu 630 99 11 85 telefonora.

Debagoiena. Esperientzia eta erreferentziak dituen neska lanerako gertu: nagusiak zaindu edo atari, etxebizitza, taberna eta abarrak garbitzen. Egun osoz, erdiz, orduka edo egun solteak ere bai. Orduategi arazo barik eta berehala hasteko moduan. Interesatuok deitu 634 91 81 73 edo 943 76 66 24 telefono zenbakietara.

Debagoiena. Neska gertu supermerkatuetan lan egiteko edo etxean laguntzeko. Jate-txeetan ere bai, laguntzaile gisa. 630 20 12 03

Debagoiena. Neska gertu ume edo nagusiak zaintzeko eta baita garbiketak egiten zein dendari jarduteko. Orduka, etxean bizi izaten edo bestela. Erreferentziak ditut. Deitu 636 41 98 14 zenbakira.

Nagusiak zaintzeko prest Debagoienean. Neska, klinika laguntzaile tituluduna, lanerako prest. Nagusiak zaindu zein ospitalean gauak egiteko. Inte-resatuok deitu 943 25 02 96 edo 688 80 27 01 telefono zenbakietara.

Zaintza lanak egiteko prest Debagoienean. Pertsona nagusiak edo umeak zaintzen lan egingo nuke, baita garbiketa lanetan ere. Geriatriako titulua daukat. 691 03 25 02 edo 943 54 09 41

Debagoiena. Neska gertu lanerako nagusiak edo umeak zaintzen. Etxean bertan bizi izaten edo bestela. Esperientzia-duna. Interesatuok deitu telefo-no honetara: 722 14 42 86

Haurrak zaintzeko prest. Umeak zaintzeko prest nago, euskalduna eta esperientzia handia dut. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 651 90 40 10

5. IRAKASKUNTZA

502. EMAN

Eskola partikularrak Deba-goienean. Hizkuntzen Psikope-dagogian Lizentziatua eta Haur Hezkuntzan Diplomaturia. Hainbat urtetako esperientzia. Eskola partikularrak ematen ditut Lehen Hezkuntzan eta DBHn. Honez gain, euskara errefortzuak ematen ditut haur zein helduei, eta ikas-keta plan pertsonalizatuak disei-natzen ditut pertsona bakoitzaren beharren arabera. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 646 62 05 15.



Ibargarai 3 • BERGARA
Tel. / Faxa: 943 76 97 97
www.inmokorosti.com

ETXEBIZITZAK SALGAI

BERGARA:

- 150.000€ baino gutxiagotan pisuak salgai egoera onean.
- Barrenkale 90 m², 3 logela. Erabat berritua.
- San Pedro 70 m², 4 logela. Erabat berritua. Garajea aukeran. 150.000 €.
- Bolu 66 m², 2 logela. Trastelekua. Garajea aukeran. Oso ondo. 150.250 €.
- Bidekurutzeta 65 m², 2 logela. Trastelekua. 120.000 € PREZIO JEITSIERAREKIN.
- Zubiaurre 56 m², 2 logela. Igogailua, erabat berritua. 135.000 €.
- Matxiategi 65 m², 3 logela. Berogailua, igogailua eta trastelekuarekin. 150.000 €.
- Koldo Elizalde 74 m², 3 logela. Trastelekuarekin. 160.000 €. Aukera ona.
- Zabalategi 80 m², 3 logela. Igogailua. 154.760 €.
- Azkarruntz 75 m², 3 logela. Berritua. Oso ondo. 144.243 €.
- Zubietta 60 m², 3 logela. 126.213 €.
- Zubietta 70 m², 2 logela. 150.253 €.
- Masterreka 45 m². Logela bat. 150.253 €.
- Ibarra 65 m², 3 logela. Berritua. 150.000 €.
- Bolu 66 m², 2 logela. Trastelekua. Garajea aukeran. Oso ondo. 150.250 €.
- Artzamendi 70 m², 2 logela. Igogailu eta berogailuarekin. 154.760 €.
- Zubiaurre 82 m². Igogailu eta berogailuarekin. Egoera onean. 132.223 €.
- Zabalategin 2 eta 3 lorgeletako pisuak 120.000 € baino gutxiagotan. AUKERA BIKAINA.
- Bidekurutzeta 147 m². Igogailuarekin. 135.000 €. Prezio jeitsierarekin.
- Martzial Agirre 60 m², logela bat. Terraza eta trastelekuarekin. Garajea aukeran.
- Matxiategi 60 m², 2 logela. Igogailua. Erabat berritua.
- Fraizkozuri 100 m², 4 logela, 2 balkoierekin. Igogailua. Prezio jeitsierarekin.
- Fraizkozuri 78 m², 3 logela. Balkoia, trastelekua eta garajearekin. 205.000 €.
- Boni Laskurain 90 m², 3 logela. Trastelekua eta garajearekin. Oso ondo.
- Ibargarai 90 m², 3 logela. Igogailua eta berogailuarekin. 240.405 €.
- Arrizuri 160 m², 4 logela. Igogailua, garajea. Oso ondo.

ANTZUOLA:

- Behoko Auzoa 60 m², 2 logela. Oso ondo. Prezio jeitsierarekin.
- Errekalde 94 m², 3 logela. Igogailu eta berogailuarekin. 120.202 €.
- Zurrategi 83 m². Oso ondo. Prezio ona.
- Sagasti 90 m², 3 logela. Oso ondo. Prezio jeitsierarekin.
- Buztinazuri, Sagasti, Antigua, Zurrategi, Behoko auzoa, Ibarre auzoa, San Josepe, Aiera eta Errekalde. Etxe onak.

SORALUZE:

- Sagar Erreka, Rabal, Atxuri eta Rekalde. Etxe ona.

ELGETA:

- Domingo Iurbe 90 m², 4 logela. 126.212 €. Prezio jeitsierarekin.
- Torrealdea 77 m², 3 logela. Berria. Oso ondo.
- Domingo Iurbe, adosatua 150 m² + 45 m² garajea + 90 m² lursaila.

Ingelesa Bergaran. Bergaran ingeleseko eskolak ematen ditut. Gazte eta helduei. Interesatz gero aholkotasuna bakarrik ere landu daiteke. Goizetan eta eguerditan. Deitu 637 52 89 83 edo 943 76 51 96 telefono zenbakietara.

7. ANIMALIAK

703. EMAN

Artzai txakurrak. Artzai arra-zako txakurkumeak ematen ditut opari. Interesatuok deitu telefo-no honetara: 685 75 86 49

Katuak ematen dira opari. Urtebeteko katuak ematen dira opari. Interesatuok deitu telefo-no zenbaki honetara: 669 72 08 93.

Txakurkumeak. Setter ingeles eta Setter Gordons arteko nahas-keta duten txakurkume bi ema-ten dira opari. Bi hilabetekoak. Interesatuok deitu telefono 605 73 75 30 edo 607 65 53 51 zenbakietara.

Txakurrak ematen dira. Txakurtegia itxi behar dutelako han dauden 33 txakur hil behar dituzte. Hori dela eta, pertsona arduratsuei txakurrak emateko gertu daude. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 629 27 82 38 . Monika.

8. DENETARIK

802. EROSI

Mendi eskirako botak. Men-di eskirako botak erosiko nituzke, 38 zenbakia. Saltzeko badituzu bidali mezu bat: maiderbeltzi@hotmail.com. 639 61 29 49 . Maider.

806. GALDU

Patinetea Bergaran. Irala kalean hila-ren 5ean, eguerdian, patinetea galdu genuen. Oxelo -Freestyle modeloa. Berdea, zuria eta beltza. 660 71 43 98 edo 943 53 30 30

807. AURKITU

Aurkitu. Aretxabaletako plazan, urtarilaren 5ean, arratsaldean, brotze edo apaingari bat aurkitu genuen. 699 86 17 79

Txalekoa Bergaran. Inork ema-kumezko txalekoa, ileaduna, aurkitu badu, dei dezala zenbaki honetara, mesedez: 678 43 31 23

808. BESTELAKOAK

Musikari bila. Arrasate aldean folk musika, irlandarra eta eus-kalduna, gustatu eta jotzen duten musikarien bila gabiltza 'session' batzuetan ekiteko (Uilleann-a jotzen dugu). 645 73 12 16 edo 652 76 11 42



batu-banatu

banaketak neurrira

Tel.: 943 08 10 50

banaketak@batubanatu.com

Banaketa aukera ezberdinak

- Banaketa **masiboa**.
- **Autoz auto** banatzea.
- **Kartelak** ipini.
- Banaketa **pertsonalizatua** (bezero edo hartzaile konkretuei).
- **Goiena paperarekin** batera (astelehenetan eta ostiraletan).

Banaketaren jarraipena eta kalitate kontrola egiten dugu.

Eskatu
aurrekontua
konpromiso barik!

Gure langileak Gizarte Segurantzaz alta emanda daude eta lan-arriskuen prebentzio legedia betetzen dugu.



ASTEA GOIENAN



AMAIA TXINTXURRETA

Arrasateko Ziztaden Jaiaren balorazioa

Bihar, zapatua, ospatuko da Berriaren aldeko Ziztaden Jaia Arrasaten, Amaian. Horren gaineko balorazioa egingo digute antolatzaileek asteleheneko *Magazinea* saioan. Ekitaldia nola joan zen kontatuko digute, besteak beste.

'Magazinea'
Astelehena, 20:17



A.T.

Etxebizitzen merkatua hizpide

Etxebizitzen merkatuaren gaur egungo egoera ezagutzeko aukera izango dugu *AsteOn* saioan. Etxebizitzen prezioak jaitsi egin dira eta horrek krisi ekonomikoan duen eragina ere aztertuko dugu gaur, egubakoitza, eskainiko dizuegun saioan.

'AsteOn'
Egubakoitza, 21:48

GOIENA TELEBISTA

EGUBAKOITZA, 18

12:00 Planik bai?
12:20 Magazinea
13:05 Zorion Agurrak
13:10 Gurean gaur
13:40 Onein
14:17 Bizitegia
14:45 Berriak
15:05 Eguraldia
15:08 Planik bai?
15:28 Erreportajea
15:58 Taula gainean
16:28 Beranduegi.tv
16:48 Zorion Agurrak
16:53 Berriak
17:13 Eguraldia
17:16 Planik bai?
17:36 Erreportajea
18:02 28.Klip
18:34 Beranduegi.tv
18:58 Zorion Agurrak
19:02 Berriak
19:22 Eguraldia
19:25 Planik bai?
19:45 Goierri Creation Center
20:18 Taula gainean
20:48 Gurean gaur
21:18 Bizitegia
21:48 AsteON
22:18 Berriak
22:38 Eguraldia
22:41 Esatea libre
23:56 AsteON
00:26 Planik bai?
00:46 Berriak
01:06 Eguraldia

ZAPATUA, 19

10:00 28.Klip
10:31 Zorion Agurrak
10:36 Ekogune
11:06 AsteON
11:46 Planik bai?
12:06 Onein
12:37 Berriak
12:52 Magazinea
13:52 Erreportajea
14:22 Taula gainean
14:52 Zorion Agurrak
14:57 Berriak
15:12 Onein
15:29 Planik bai?
15:49 Taula gainean
16:19 Zorion Agurrak
16:24 Berriak
16:39 Beranduegi.tv
17:03 Magazinea
18:03 Planik bai?
18:23 Goierri Creation Center
18:56 AsteON
19:32 Beranduegi.tv
19:56 Magazinea
20:56 Planik bai?
21:16 Erreportajea
21:51 Taula gainean
22:21 Iruñako hotsak
22:51 Euskodance 2012
23:22 Planik bai?

DOMEKA, 20

10:00 Hamaika.bit
10:33 Erreportajea
11:08 Zorion Agurrak
11:13 Onein
11:44 Magazinea
2:44 Planik bai?
13:04 Berriak
13:19 Onein
13:36 Ikusmira
13:56 AsteON
14:31 Zorion Agurrak
14:36 Taula gainean
15:06 Ekogune
15:36 Berriak
15:51 Magazinea
16:51 Beranduegi.tv
17:15 Magazinea
18:15 AsteON
18:50 Zorion Agurrak
18:55 Euskodance 2012
19:26 Ekogune
19:56 Magazinea
20:56 Berriak
21:11 Erreportajea
21:41 Esatea libre
22:58 Magazinea
00:38 Berriak
00:58 Eguraldia

ASTELEHENA, 21

12:00 Magazinea
12:45 Gurean gaur
13:15 Zorion Agurrak
13:20 Onein
13:37 Taula gainean
14:07 Ekogune
14:40 Zorion Agurrak
14:45 Berriak
15:10 Eguraldia
15:13 Zorion Agurrak
15:18 AsteON
15:58 Erreportajea
16:28 Zorion Agurrak
16:33 Sakeleketik
16:45 Berriak
17:10 Eguraldia
17:13 Onein
17:44 Iruñako hotsak
18:14 Ekogune
18:42 Goierri Creation Center
19:15 Erreportajea
19:45 Zorion Agurrak
19:50 Berriak
20:15 Eguraldia
20:17 Magazinea
21:00 Gurean gaur
21:30 AsteON
22:00 Harmailatik
22:45 Berriak
23:05 Eguraldia
23:08 Magazinea
23:53 Harmailatik
00:01 Eguraldia

MARTITZENA, 22

12:00 Magazinea
12:45 Gurean gaur
13:15 Zorion Agurrak
13:22 Harmailatik
14:07 Ekogune
14:40 Zorion Agurrak
15:07 Eguraldia
15:10 Harmailatik
15:55 Onein
16:25 Iruñako hotsak
16:55 Berriak
17:15 Eguraldia
17:18 Esatea libre
18:35 Harmailatik
19:18 Taula gainean
19:48 Zorion Agurrak
19:51 Berriak
20:11 Eguraldia
20:15 Magazinea
21:00 Gurean gaur
21:30 Goierri Creation Center
22:03 Berriak
22:23 Eguraldia
22:28 Magazinea
23:13 Bizitegia
23:41 Berriak

EGUAZTENA, 23

12:00 Magazinea
12:45 Gurean gaur
13:15 Hamaika.bit
13:45 Erreportajea
14:15 Bizitegia
14:45 Berriak
15:05 Eguraldia
15:08 Hamaika.bit
15:41 Onein
16:01 Harmailatik
16:46 Berriak
17:06 Eguraldia
17:08 Goierri Creation Center
17:41 Zorion Agurrak
17:46 Beranduegi.tv
18:08 Erreportajea
18:43 Berriak
19:05 Eguraldia
19:07 Magazinea
19:52 Gurean gaur
20:27 Erreportajea
20:54 Berriak
21:14 Eguraldia
21:16 Magazinea
22:01 Harmailatik
22:46 Berriak
22:51 Eguraldia
22:54 Magazinea
23:39 Euskodance 2012
00:16 Eguraldia

EGUENA, 24

12:00 Magazinea
12:45 Gurean gaur
13:15 Erreportajea
13:45 Hamaika.bit
14:15 Onein
14:35 Sakeleketik
14:45 Berriak
15:05 Eguraldia
15:08 Hamaika.bit
15:41 AsteON
16:21 Erreportajea
16:51 Berriak
17:11 Eguraldia
17:14 Onein
17:31 Hamaika.bit
18:04 Planik bai?
18:24 AsteON
19:04 Zorion Agurrak
19:09 Berriak
19:29 Eguraldia
19:35 Beranduegi.tv
19:55 Planik bai?
20:15 Magazinea
20:58 Gurean gaur
21:28 Taula gainean
21:58 Planik bai?
22:18 Berriak
22:38 Eguraldia
22:41 Magazinea
23:26 Erreportajea
23:56 Berriak
00:28 Planik bai?
00:48 Berriak
01:08 Eguraldia

ARRASATE IRRATIA

'Printzea eta ahatea' antzerkirako sarrerak zozketatuko ditugu

Gorakada taldeak datorren zapatuan, hilak 26, *Printzea eta ahatea* izeneko antzerkia eskainiko du Amaia antzokian, 17:00etan. Sarrerak lortzeko deitu 943 25 05 05era edo idatzi *irratia@goiena.com*-era. Protagonista ere elkarriketatuko dugu asteen zehar FMko 107.7ko uhinetan.

Asteko elkarriketak entzungai zapatuan eta domekan

Asteko gainbegiratua egingo dugu bihar eta etzi, 10:00etan. Asteon egin ditugun elkarriketak izango dira entzungai: baserritarren azoka, hilerokoarekin lotutako sinesmenak apurtzeko zientifikoki frogatutako tresna eta Dorleta Kortazarrek –Gazte Bulegoa– kontatutakoak.

GUARDIAKO FARMAZIAK

ARRASATE

Egubakoitza, 18	FERNANDEZ	Maisu Aranbarri, 1	943 79 22 26
Zapatua, 19	IRIZAR	Erguin, 11	943 79 12 39
Domeka, 20	AMEZUA	Sta. Marina, 32	943 79 09 74
Astelehena, 21	ESPAÑOL MORALES	Araba Etorb., 14	943 79 18 65
Martitzena, 22	RUIZ	Nafarroa Etorb., 1	943 79 14 09
Eguaztena, 23	ERKUDEN	Zarugalde, 38	943 77 16 30
Eguena, 24	ALBERTO AZKOAGA	Ferrerías, 1	943 79 15 15

BERGARA

Egubakoitza, 18	ZABALA	Barrenkale, 25	943 76 16 87
Zapatua, 19	GUALLAR	San Antonio, 5	943 76 11 05
Domeka, 20	GUALLAR	San Antonio, 5	943 76 11 05
Astelehena, 21	ESTELLA	Matxiategi, 5	943 76 19 63
Martitzena, 22	ALVAREZ-MOZOS	Iparragirre, 2	943 76 12 15
Eguaztena, 23	URRUTIKOETXEA	Orixondo plaza, 4	943 76 11 74
Eguena, 24	ZABALA	Barrenkale, 25	943 76 16 87

OÑATI

Egubakoitza, 18	ANDUAGA	San Lorentzo, 3	943 78 21 16
Zapatua, 19	ANDUAGA	San Lorentzo, 3	943 78 21 16
Domeka, 20	ANDUAGA	San Lorentzo, 3	943 78 21 16
Astelehena, 21	IGARTUA	Kale Zaharra, 1	943 78 01 22
Martitzena, 22	IGARTUA	Kale Zaharra, 1	943 78 01 22
Eguaztena, 23	GARATE	Kale Barria, 42	943 78 05 58
Eguena, 24	GARATE	Kale Barria, 42	943 78 05 58

ARETXABALETA / ESKORATZA

Egubakoitza, 18	FERNANDEZ	Maisu Aranbarri, 1	943 79 22 26
Zapatua, 19	IRIZAR	Erguin, 11	943 79 12 39
Domeka, 20	AMEZUA	Sta. Marina, 32	943 79 09 74
Astelehena, 21	ESPAÑOL MORALES	Araba Etorb., 14	943 79 18 65
Martitzena, 22	RUIZ	Nafarroa Etorb., 1	943 79 14 09
Eguaztena, 23	ERKUDEN	Zarugalde, 38	943 77 16 30
Eguena, 24	ALBERTO AZKOAGA	Ferrerías, 1	943 79 15 15

Farmazien eskuko telefonotarako 2012 egutegia eskuratzeko, bidali FARMA 25600 zenbakira. Gehieneko kostua 1,9 euro + WAP deskarga, operadorearen arabera, Altiira TICek kudeatuta (www.altiira.es).

EGURALDIA ASTEBURUAN

DEBAGOIENA



Max. 10°
Min. 7°



Max. 11°
Min. 7°

ZAPATUA, 19
Zerua oso hodeitsu eta estalita egongo da. Euri txiki-ertaina egingo du, sarriago eta ugariago egunaren bigarren partean.

DOMEKA, 20
Tenperatura zertxobait igoko da. Hala ere, ez dio euria egiteari utziko eta zerua nahiko estalita izango dugu.

EUSKAL HERRIA



Asteburuan ere euria barra-barra egingo du eta litro asko jasoko da. Giro hezea eta hotza izango da.

GAZTE INFORMAZIOA

LANA

Arte plastikoen eta ondarearen arloko teknikaria. Iruñeko Udala. Baldintzak: lizentziatura (hainbat espezialitatetan). Epea: urtarilak 31.

Irakasle bisitariak. Hezkuntza Ministerioa. 2013-2014 ikas-turterako 236 iraskale bisitari Estatu Batuetako eta Kanadako ikastetxeetarako. Baldintzak: lizentziatura edo gradu titulua izatea, maisu/maistra izatea. Epea: urtarilak 22.

Bitartekaria. Horbel. Haur, nerabe eta gazteen alorrean lan egiteko bitartekaria behar da. Baldintzak: erdi edo goi mailako titulazioa, gizarte, psikologia edo medikuntza zientzien arloan lortua izatea. Curriculumak bidali *asalabe-ria@horbel.org* helbidera urtarilaren 25a baino lehen.

EGA

EGA. Euskararen gaitasun agiria ateratzeko probetan izen-ematea zabaldu da. Baldintzak: 17 urte beteta izatea. Epea: urtarilaren 7tik 21era (bigarren deialdirako epea uztailak 1-15).

Lanbide Heziketa. Hurrengo ikasturtean heziketa zikloak ikasteko sarbide-probarako izen-emate epea: urtarilaren 14tik 23ra. Izena heziketa-zikloak ematen dituen ikastetxeren batean eman behar da.

LEHIAKETAK

Kartelak. Arrasateko Udala. Inauteriak iragartzeko kartel lehiaketa. Derrigorrezko testua: 2013 Inauteriak Arrasate. Saria 400 euro izango da, irabazlearendako. Lanak aurkezteko azken eguna izango da urtarilaren 23a.

INFORMAZIO GEHIAGO NAHI IZANEZ GERO:

Arrasateko Gazte Bulegoa: Biteri etorbidea 3 | 943 25 20 65 | gaztebulegoa@arrasate-mondragon.net
Oñatiko Gazteendako Informazio Gunea: Foruen plaza 4 | 943 71 82 57 | gazteinformazioa@oinati.net





Martzelina eta Manuel

Martzelinak eta Manuelek bihar, zapatua, hilak 19, ospatuko dituzte urrezko ezteiak. Zorionak, familiaren partetik.

HILDAKOAK

Maria Loreto Gabilondo Alberdi. Antzuolan, urtarrilaren 6an. 79 urte.
Jose Antonio Aranguren Beitia. Eskoriatzan, urtarrilaren 9an. 69 urte.
Jesusa Aranburu Kortabarria. Oñatin, urtarrilaren 10ean. 98 urte.
Maritxu Bilbao Arantzabal. Bergaran, urtarrilaren 10ean. 87 urte.
Ana Isabel Fernandez Osuna. Bergaran, urtarrilaren 11n. 46 urte.
Rosendo Perez Marcos. Bergaran, urtarrilaren 12an. 80 urte.
Saturnino Ormaetxea Nieva. Bergaran, urtarrilaren 13an. 83 urte.
M. Angeles Ugalde Iturriotz. Arrasaten, urtarrilaren 13an. 89 urte.
Miguel Oskoz Telletxea. Aretxabaletan, urtarrilaren 14an. 77 urte.
Carmen Kortabarria Galdos. Oñatin, urtarrilaren 14an. 95 urte.
Esperanza Ortubai Beitia. Arrasaten, urtarrilaren 14an. 89 urte.
Bittori Arantzeta Askasibar. Bergaran, urtarrilaren 16an. 91 urte.

URTEURRENA

Felix Berraondo Ceberio



2012ko urtarrilaren 16an hil zen.

Lehen urteurreneko meza domekan izango da, urtarrilaren 20an, 12:00etan, Bergarako Santa Marina parrokian.

Elizkizunetara joango zaretenoi, aldezturik eskerrik asko sendikoen izenean.

URTEURRENA

Anastasia Basauri Markiegi

Jose Asenjoren alarguna



2012ko urtarrilaren 14an hil zen, 78 urte zituela.

Lehen urteurreneko meza domekan izango da, urtarrilaren 20an, 12:00etan, Bergarako Santa Marina parrokian.

Elizkizunetara joango zaretenoi, aldezturik eskerrik asko sendikoen izenean.

URTEURRENA



Julita Lete Urdangarin



Bergaran hil zen 2012ko urtarrilaren 19an, 70 urte zituela.

Maitasuna ez da inoiz itzaltzen, eta inoiz itzaltzen ez delako, gogoan zaitugu.

Bergaran, 2013ko urtarrilaren 18an.

URTEURRENA



Dolores Etxebarria Garaizabal



Arrasaten hil zen 2012ko urtarrilaren 15ean, 86 urte zituela.

Lehen urteurreneko meza zapatuan izango da, urtarrilaren 19an, 19:00etan, Arrasateko San Frantzisko elizan.

Elizkizunetara joango zaretenoi, aldezturik eskerrik asko sendikoen izenean.

URTEURRENA

Lolita Errasti Lezarri



2012ko urtarrilaren 20an hil zen.

Tia Lola, gurekin egunero, gure bizitzan.

Lehen urteurreneko meza domekan izango da, urtarrilaren 20an, 12:00etan, Bergarako Santa Marina parrokian.

Bergaran, 2013ko urtarrilaren 18an.

URTEURRENA

Rufino Arantzeta Arregi



Lehen urteurreneko meza zapatuan izango da, urtarrilaren 19an, 19:00etan, Oñatiko Mikel Deunaren parrokian.

Rufinon senideok eskertzen dizugu zure otoiiza eta oroitzapena. Mila esker.

Oñatin, 2013ko urtarrilaren 18an.

ESKER ONA

Miguel Oskoz Telletxea



Aretxabaletan hil zen 2013ko urtarrilaren 14an, 77 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara etorritakoei eta samin-agurrak bidali dizkiguzuenoi, eskerrik asko sendikoen izenean.

Aretxabaletan, 2013ko urtarrilaren 18an.

ESKELAK JARTZEKO: 943 25 05 05


Egubakoitzean nahiz astelehenean argitaratzeko.

Eskelaren prezioa: 130 euro.
Egubakoitzean eta astelehenean, bietan, argitaratzu gero, 175 euro.
Goiena: irakurriena Debagoienean.

ASTE BARRUAN, BAITA ERE:

ARRASATE Goiena: Oñalora Lizentziaduna 31. 943 25 05 05.
BERGARA Jardun elkarte: Errotalde jauregia (kultura etxean). 943 76 08 19.
OÑATI Biklon publizitate agentzia: Olakua 9. 943 78 10 65.
ARETXABALETA Goiena: Basabe poligonoa E05. 943 25 05 05.
ARAMAIO Kintelena janari-denda: Nardeaga 11. 945 44 50 22.
ELGETA Ugari janari denda: Andra Mari plaza 2. 943 76 80 98.
ANTZUOLA Itzar liburu-denda: Kalebarren 1. 943 76 60 62.

ESKER ONA



Esperanza Ortubai Beitia

Juan Sagasta Elorzaren alarguna

Arrasaten hil zen 2013ko urtarrilaren 14an, 89 urte zituela.

Une honetan gurekin izandakoei, elizkizunetara etorri eta samin-agurrak bidali dizkiguzuenoi, eskerrik asko bihotz-bihotzez familiakoen izenean.

Arrasaten, 2013ko urtarrilaren 18an.

ESKER ONA

Jose Antonio Aranguren Beitia



Apotzagan hil zen 2013ko urtarrilaren 9an, 69 urte zituela.

Une latz honetan elkertasuna eta maitasuna erakutsi diguzuen guztioi, bihotz-bihotzez, eskerrik asko sendikoen izenean.

Eskoriatzan, 2013ko urtarrilaren 18an.

BERGARA 'Tximeletak: etengabeko metamorfosian'

Topatu gazte proiektu komunikatiboko kideek egindako dokumentala eskainiko dute Bergaran. Proiektuan parte hartu du Iraitz Salegi gazte bergararrak. Durangoko Azokan bigarren dokumental salduena izan zen. Euskal Herriko gazte mugimendua jasotzen du lanak.

Gaur, egubakoitza, Zabalotegin 20:00etan.



TOPATU.INFO



MAIDER ARREGI

ANTZUOLA Los Cretinos eta ZZ Blues Band

Antzuolako gaztetxean kontzertua eskainiko dute Arrasateko Los Cretinos taldeak eta Soraluzeko ZZ Blues Band taldeak. Arrasatearrek *Addictos Sonitus* disko berria aurkeztuko dute. Sarrera 3 euro izango da.

Gaur, egubakoitza, Antzuolako gaztetxean, 22:30ean.

MUSIKA**ARRASATE Itxungi Rock 2013 jaialdia**

Arrasateko Itxungi irrati librearen aldeko musika jaialdia. Egubakoitzean, 22:00etan: Metralleta, Psicoterror eta Bar Remigio; zapatuan, 18:00etan: Los Cretinos, Fat Lizzy, Disaster People, Papa-lagi eta Transistores 50.

Gaur, egubakoitza, Arrasateko gaztetxean 22:00etan.

BERGARA DJ jaialdia

Urtarrileko DJ jaialdia Zabalo-tegin. Sarrera doan.

Bihar, zapatua, Zabalotegi aretoan 18:30ean.

BERGARA San Kanuto eguna Laino skate parkean

San Kanuto eguna ospatuko dute Laino skate parkean. Egun osoko egitaraua antolatuko dute: goizean salda eta txorizoa, eguerdian bazkaria eta arratsaldetik aurrera kontzertuak eta DJ emanaldiak.

Bihar, zapatua, Lainon 12:00etan.

OSPAKIZUNAK**ARRASATE Ipuin kontaketa**

Okendoko ludotekak 10 urte betetzen dituela-eta, *Lili eta Lalo*

NON-ZER

Emaiguzue zuen ekitaldien berri eguazteneko eguerdia baino lehen.

Tel.: 943 25 05 05 | kultura@goiena.com | Faxa: 943 25 05 00

Loloren bila ipuin kontaketa eta merienda egingo dute.

Gaur, egubakoitza, Owendoko ludotekan 17:00etan.

ARRASATE Berriaren aldeko Ziztada Jaia

Arrasateko Amaia antzokian *Berria* egunkariaren alde Ziztada Jaia egingo dute. 19:30ean hasiko da ekitaldia, eta Kike Amonarri-zek eta Ilaski Serranok aurkeztuko dute. Ekitaldiaren prezioa izango da: 5 euro nagusientzat eta 2 euro adingabe koentzat.

Bihar, zapatua, Amaia antzokian 19:30ean.

UMEAK**ESKORIATZA Ludoteka zabalik herriko txikiendako**

Zazpi eta hamabi urte bitarteko neska-mutikoendako egongo da zabalik Eskoriatzako Tortolis ludoteka.

Bihar, zapatua, Tortolis ludotekan 17:00etan.

HITZALDIK**ARETXABALETA Pagolak esandakoen gaineko hausnarketa**

Madrilgo 32. Teologia Kongresuan Jose Antonio Pagola teologoak esandakoen gainean hausnartuko dute. Dagoeneko bi saio egin dituzte, eta, arrakastaren aurrean, hirugarrena egingo dute.

Gaur, egubakoitza, Arkupe kultura etxean 19:30ean.

OÑATI Gurasoendako bilera

Txantxiku ikastolako proiektu pedagogikoa eta funtzionamenduaren azalpena. Parte hartzaileak: Haur Hezkuntzako irakasleak eta zuzendaritza taldea. Guraso eta herritar guztiondako zabalik. Txantxiku ikastolak antolatuta, *Txikitxoek jardunaldiak 2013* egitarauaren barruan. Haurtzaindegi zerbitzua egongo da 8 urte arteko umeendako.

Urtarrilaren 21a, astelehena, Txantxiku ikastolako aretoan 18:00etan.

BERGARA 'Fracking'-ari buruzko hitzaldia

Fracking-ari buruz berba egingo du Azaitz Unanuek Irizar jauregian. *Fracking*-a lur azpitik petrolioa edo gasa ateratzeko teknika bat da. Sarrera doan izango da eta herritar guztiak daude gonbidatuta hitzaldira.

Urtarrilaren 22a, martitzena, Irizar jauregian 19:00etan

OÑATI 'Nire haurrak jotzen du, nire haurra jotzen dute' hitzaldia Nerea Mendizabalekin

Nola lagundu agresiboki erantzuten duen haurrari? Nola ikasiko du hori ez duela egin behar? Hizlaria: Nerea Mendizabal psikopedagogo. Guraso eta herritar guztiei zuzendutako hitzaldia. Txantxiku ikastolak antolatuta *Txikitxoek jardunaldiak 2013* egitarauaren barruan. Haurtzaindegi zerbitzua egongo da 8 urte artekoendako.

Urtarrilaren 23a, eguaztena, Txantxiku ikastolako aretoan 18:00etan.

BESTELAKOAK**ESKORIATZA KZguneko tutorea**

KZguneko dinamizatzailea liburutegian izango da.

Urtarrilaren 23a, eguaztena, Liburutegian 16:30ean.

IKUS-ENTZUNEZKOA**OÑATI 'Punka Kuban' dokumentala**

Gaztetxean Kubako punk mugimenduaren gaineko dokumentala eskainiko dute. Ondoren, Josu Trueba egilearekin solasaldia.

Bihar, zapatua, Antixena gaztetxean 19:00etan.

OÑATI 'Sua' filma

XVII. mendean Lapurdin izandako inkisizioaren eta sorginen ingurukoa. Gero, solasaldia.

Urtarrilaren 23a, eguaztena, Antixena gaztetxean 19:00etan.

DEIA**OÑATI 'Su haietatik ke hauek'**

Iñaki Petxarroman kazetariak *Su haietatik ke hauek* liburua aurkeztuko du.

Urtarrilaren 23a, eguaztena, Kultura etxean 19:30ean.

SUPERSWEET PERFORMS TOMMY
+ DJ MANSI - JAIA 60'S
TARTUFO ARETOA
URTARRILAK 19, 23:00 8/10€
SAN JUAN AUZOA 35, BERGARA

BY THE WHO

EL COLUMPIO ASESINO

TARTUFO ARETOA - San Juan auzoa 35, Bergara
Urtarrilak 24, eguena, 22:00etan
Sarrera 15-18 euro. Sarrerak mugatuak dira.
Autobusa 21:30ean Oxirondo azokako geltokitik.

TARTUFO BERGARA
OTSAILAK 2 LARUNBATA

- Slow Dance Club -

Dj Pablo Akaros (Mfcityscene)
Dj's Buda y Rami (Kogollo Party Krev)
Dj's Beba Y Panda (Desguace Music)
Dj Asier Galiano (Aretxabaleta)

Ordutegia 01:00-10:00 sarrera + edaria
12 euro

* Autobusa (Azokako geltokia)
04:00 eta 05:00 (Igotzeko)
08:00 eta 10:00 (Leisteko)



IMANOL GÓÑEZ

BERGARA Supersweet
Donostiako Supersweet taldeak The Who britainiar taldearen *Tommy* rock-opera diskoko abestiak joko ditu Bergarako Tartufo aretoan. Ondoren, 60ko eta 70eko musika. Sarrerak 8 eta 10 eurotan daude salgai. Bihar, zapatua, Tartufon, 23:00etan.

OÑATI Atez atekoari buruzko bilerak
Santa Marina, Moiua, Euskadi etorbide, Kurtzebide, Patrue kale, Lope Agirre eta Lazarragako bizilagunendako. Atarietako ardu-radunak daude, bereziki, deituta bilerara; 10:00etan edota 19:00etan.
Urtarrilaren 21a, astelehena, Santa Ana antzokia 10:00etan..

BERGARA Taila Eskolaren batzar orokorra
Bergarako Taila Eskolak batzar nagusia egingo du.
Urtarrilaren 22a, martitzena, Taila eskolan 19:00etan

.OÑATI Atez atekoari buruzko bilerak
Aita Lizarralde, Martzelino Zelaia, Kale Barria, Foruen plaza, Portu kale, Kalegoiena, Ramon Irizar, Atzeko kale eta San Martin auzoetako bizilagunendako bilera. Atarietako arduradunak daude, bereziki, deituta. 10:00etan edota 19:00etan.
Urtarrilaren 23a, eguaztena, Zuazola institutuan 10:00etan.

IKASTAROAK

ANTZUOLA Fandango eta arin-arina
Fandango eta arin-arin ikastaroa egingo dute.
Bihar, zapatua, Antzuolako gaztetxean 12:00etan.

ESKORIATZA Capoeira ikastaroa
Senzala Euskadi elkarteak hasiberriendako capoeira ikastaroa antolatu du. Langileek 15 euro eta langabeek edo ikasleek, 10 euro. Izena emateko: 625 772 295.
Urtarrilaren 23a, eguaztena, Pilotalekuko gimnasioan 20:00etan

ARETXABALETA 'Dantza gogoz'
Jaiki elkarteak *Dantza gogoz* ikastaroa antolatu du Carla Fernandezekin. Izen-ematea, 40 euro langileek eta 35 langabeek. Saioak eguaztenetan izango dira, 17:30etik 19:30era. Informazio gehiago: 943 53 43 96 edo jaikielkartea@yahoo.es.
Eguaztenetan, Jaiki elkartean 17:30ean.



FORMULATV

ELGETA Ernesto Sevillaren bakarriketak
Elgetan I. Monologo mostra egingo dute hurrengo asteetan. Ernesto Sevillak zabalduko du egitaraua. Gaur, egubakoitza eta bihar, zapatua, eskainiko ditu Sevilla telebistako aurpegi ezagunak bakarriketak. Sarrera 16 euro. Gaur eta bihar, egubakoitza eta zapatua, Espaloian, 22:30ean.

ZINEMA

ARRASATE

AMAIA ANTZOKIA

La parte de los angeles
Domekan: 19:30.
Astelehenean: 20:30.

El alucinante mundo de Norman3D
Domekan: 17:00.

La pequeña Venecia
Martitzenean: 20:30:

GAZTETXEA

Domicilio privado
Domekan: 18:30.

BERGARA

ZABALOTEGI

Ice Age 4
Domekan: 19:30.

Elefante Blanco
Domekan: 17:00.

Nadie sabe
Eguaztenian: 20:00.

OÑATI

KULTURA ETXEA

El hobbit
Egubakoitzean eta zapatuan: 22:30.
Domekan: 19:30, 22:30.
Astelehena: 19:30.

Rompe Ralph
Zapatuan eta domekan: 17:00.

Amor bajo el espino blanco
Eguenean: 20:00:

ARETXABALETA

ZARIAIA ARETOA

La vida de Pi
Egubakoitza eta zapatua: 22:00.
Domeka: 19:30.
Astelehena: 16:00.

Las aventuras de Tadeo Jones
Zapatuan eta domekan: 17:00.

EIBAR

COLISEO

La hija de mi mejor amigo
Egubakoitza: 22:30.
Zapatuan: 19:45, 22:30.
Domekan: 17:00, 20:00.
Astelehenean: 20:30.

Una pistola en cada mano
Egubakoitza: 22:30.
Zapatuan: 19:45, 22:30.
Domekan: 17:00, 20:00.
Astelehenean: 20:30.

COLISEO ANTZOKIA

Lincoln
Egubakoitza: 22:30
Zapatuan: 19:30, 22:30.
Domekan: 20:00.
Astelehenean: 20:30.

El alucinante mundo de Norman
Domekan: 17:00.

GASTEIZ

FLORIDA

Lincoln
Egubakoitzean: 17:00, 19:50, 22:45.
Zapatuan: 12:00, 17:00, 19:50, 22:45.
Domekan: 12:00, 17:00, 19:50.

Astelehenetik eguenera: 17:30, 20:45.

La vida de Pi
Egubakoitzean: 17:30.
Zapatuan eta domekan: 12:00, 17:30.
Astelehenetik eguenera: 17:30.

Volver a nacer
Egubakoitzetik eguenera: 20:00, 22:30.

Jack Reacher
Egubakoitzean: 17:30.
Zapatuan eta domekan: 12:00, 17:30.
Astelehenetik eguenera: 17:30

The master
Egubakoitzetik eguenera: 20:00, 22:30.

Rompe Ralph
Zapatuan eta domekan: 17:00.

Django desencadenado
Egubakoitzean eta zapatuan: 19:00, 22:30.
Domekan: 19:00, 22:00.
Astelehenetik eguenera: 17:30, 20:30.

Amor
Egubakoitzetik eguenera: 17:30, 20:00, 22:30.
Egubakoitzean, baita: 12:00.

El origen de los guardianes
Zapatuan eta domekan: 12:00, 16:45.

Los miserables
Egubakoitzetik domekara: 18:30, 21:30.
Astelehenetik eguenera: 18:00, 21:00.

Las sesiones
Egubakoitzean: 16:50.
Zapatuan eta domekan: 12:00, 16:50.
Astelehenetik eguenera: 17:30.

La noche mas oscura
Egubakoitzetik domekara: 18:30, 21:30.
Astelehenetik eguenera: 20:15.

GORBEIA

Lincoln
Egubakoitzean: 19:00, 22:15.
Zapatuan: 15:45, 19:00, 22:15.
Domekan: 17:15, 20:30.
Astelehenetik eguenera: 19:00.

Django desencadenado
Egubakoitzean: 17:30, 18:45, 20:45, 22:00.
Zapatuan: 15:30, 17:30, 18:45, 20:45, 22:00.
Domekan: 17:30, 19:30, 20:45.
Astelehenetik eguenera: 18:45, 20:00.

El hobbit 3D
Egubakoitzean eta domekan: 21:45.
Zapatuan: 22:45.

La noche mas oscura
Egubakoitzetik domekara: 17:30, 20:40.
Egubakoitzean eta zapatuan, baita: 0:00.
Astelehenetik eguenera: 20:15.

Opera met: Maria estuado
Egubakoitzetik domekara: 19:00.

Jack Reacher
Egubakoitzetik domekara: 18:30, 21:30.
Egubakoitzean eta zapatuan, baita: 0:15.
Zapatuan eta domekan, baita: 15:45.
Astelehenetik eguenera: 19:00, 21:30.

El hombre de las sombras
Egubakoitzetik domekara: 22:15.
Egubakoitzean eta zapatuan, baita: 0:30.
Astelehenetik eguenera: 21:45.

Los miserables
Egubakoitzetik domekara: 19:00, 22:00.
Zapatuan eta domekan, baita: 16:00.
Astelehenetik eguenera: 21:00.

El cuerpo
Egubakoitzetik domekara: 20:15.
Astelehenetik eguenera: 21:15.

El hobbit
Egubakoitzetik domekara: 18:20.
Astelehenetik eguenera: 18:30.

Lo imposible
Egubakoitzean eta domekan: 17:45.
Astelehenetik eguenera: 18:30.

Blancanieves
Egubakoitzean: 0:15.
Zapatuan: 15:30, 0:15.
Domekan: 22:45.
Astelehenetik eguenera: 22:00.

Origen guardianes
Egubakoitzean eta zapatuan: 15:45.

Argo
Egubakoitzean eta domekan: 20:00.
Astelehenetik eguenera: 20:45.

La vida de Pi
Egubakoitzetik domekara: 22:30.
Astelehenetik eguenera: 18:30.

Rompe Ralph 3D
Egubakoitzetik domekara: 18:00.

Rompe Ralph 3D
Egubakoitzean eta zapatuan: 15:45.

Alucinante mundo de Norman
Egubakoitzean eta zapatuan: 16:20.

Grupo 7
Astelehenetik eguenera: 22:00.

BOULEVARD

Lincoln
Egubakoitzean eta zapatuan: 15:45, 19:00, 22:15.
Domekan: 17:45, 21:00.
Astelehenetik eguenera: 19:00.

Django desencadenado
Egubakoitzean eta zapatuan: 15:30, 17:30, 18:45, 20:45, 22:00.
Domekan: 16:15, 17:30, 19:30, 20:45.
Astelehenetik eguenera: 18:30, 19:30.

La noche mas oscura
Egubakoitzetik domekara: 17:30, 20:40, 23:50.
Egubakoitzean eta zapatuan, baita: 23:50.
Astelehenetik eguenera: 20:15.

Opera: Maria estuado
Zapatuan: 19:00.

Volver a nacer
Egubakoitzetik domekara: 17:40, 20:00, 22:20.
Egubakoitzean eta zapatuan, baita: 0:40.
Astelehenetik eguenera: 18:50, 21:15.

El hobbit
Egubakoitzean eta domekan: 17:30, 21:00.
Zapatuan: 15:30, 22:30.
Astelehenetik eguenera: 19:30.

El hobbit 3D
Egubakoitzetik domekara: 18:30.
Astelehenetik eguenera: 18:30.

Jack Reacher
Egubakoitzetik domekara: 18:45, 21:30.
Egubakoitzean eta zapatuan, baita: 00:15.
Zapatuan eta domekan, baita: 16:00.
Astelehenetik eguenera: 18:45, 21:30.

Los miserables
Egubakoitzetik domekara: 18:40, 21:50.
Zapatuan eta domekan, baita: 15:30.
Astelehenetik eguenera: 20:10.

Las sesiones
Egubakoitzean eta zapatuan: 15:30, 0:00.
Domekan: 22:45.

Rompe Ralph
Egubakoitzetik domekara: 17:55.
Zapatuan eta domekan, baita: 15:50.

The master
Egubakoitzetik domekara: 20:00.
Astelehenetik eguenera: 18:30.

La vida de Pi
Egubakoitzetik domekara: 22:45.
Astelehenetik eguenera: 21:15.

El alucinante mundo de Norman
Zapatuan eta domekan: 16:30.

El cuerpo
Egubakoitzetik domekara: 21:45.
Egubakoitzean eta zapatuan, baita: 0:00.
Astelehenetik eguenera: 21:45.

Lo imposible
Astelehenetik eguenera: 21:50.

KRITIKA



THE MASTER ★★★★★

Zuzendaria: Paul Thomas Anderson.

Herrialdea: AEB.

Urtea: 2012.

Aktoreak: Joaquin Phoenix, Phillip Seymour Hoffman, Amy Adams.

Iraupena: 137 minutu.

Harreman enigmatikoak

Paul Thomas Andersonek oso film pertsonalak egiten ditu. *Magnolia*, *Pozos de ambición* edo orain estreinatu den *The Master* sailkatzea nahiko lan zaila da. Film enigmatikoak izaten dira. Ez dira linealak, kontatzen duenari ukitu onirikoa eta subjektiboa ematen dio. Askotan elkartzen dira gertatzen dena eta pertsonaiei buruz duen ikuspuntua. Garrantzi handia ematen dio protagonisten buruan pasatzen dabilenari. Gauzak noiz gertatzen ari diren dakigun arren, istorioan izaten diren denborazko elipsiek filmari sentsazio berezi bat ematen diote. Eszena batzuk iraupen handikoak eta detaile osoz

kontatuta daude; eta beste batzuk zehaztasun gutxiagorekin filmatuta daude. Horrekin kontrastea sortzen da, atmosfera berezi bat sortuz. Eta hori oso ondo datorkio hipnosia, psikoanalisia eta berraragiztatzea erabiltzen duen lan honi.

The Master-en, *Pozos de ambición*-en gertatzen zen bezala, bi pertsonaien arteko norgehiagoka ematen da. Harremanetan erlijioa sartuta dago. Oraingo filmean Phillip Seymour Hoffman erlijioarekin eta psikiatriarekin loturik doan sekta antzeko baten bultzatzaile nagusia da. Joaquin Phoenix bigarren guda mundialean parte hartu zuen gizona da. Bere izaera oso berezia da. Sexuak

eta alkoholak garrantzi handi dute bere bizitzan, eta bere portaera ibiltaria eta oldartsua da. Lehengoak manipulaziorako eta sedukziorako ahalmen handia du, bigarrena nahiko basatia da, eta integrazio arazoak ditu. Hala lehenengoak bigarrena bereganatu nahi izango du. Joaquin Phoenix eta Philip Seymour Hoffman aktore izugarriak dira eta bien artean sortzen den kimika ezin hobea da. Andersonek filmaren detaile guztiak zaintzen ditu: plano guztiak benetan ederrak dira, garaiaren giropena, musikaren erabilera, muntaia ... osagai guzti horiek aberastu egiten dute istorio enigmatikoa.

ANTONIO ZABALA



goiena

2013-01-18

BUKATZEKO

Latinoamerikako soinuen oihartzuna

- ▶ Jon Rodriguez aretxabaletarrak zortzi hilabete daramatza Latinoamerikan barrena bidaiatzen
- ▶ 'El Eco de los Pueblos' proiektuarekin bertako komunitateen ahotsa eta musika jasotzen dabil

ARRITXU BARRUSO | ARETXABALETA
Aretxabaletatik milaka kilometrotara, Jon Rodrigezek zortzi hilabete daramatza Latinoamerikan barrena *El Eco de los Pueblos* izeneko proiektuan buru-belarri lanean. Izenak dioten moduan, Latinoamerikako komunitateen oihartzuna izan nahi dute: "Irabazi asmorik gabeko proiektua da eta helburua da bidean aurkitzen ditugun ahots eta soinuak erregistratzea. Grabazio horiek, gero, gure blogera igotzen ditugu", kontatu digu.

Desagertzeko zorian

Laura Jimenezekin batera mugildu da Rodrigez proiektu horretan eta asmoa da Interneten liburutegi digital bat sortzea edo nork bertara sartu eta batutako materiala entzun edo deskargatu ahal dezan. "Jasotzen ari garen hizkuntza asko desagertzeko zorian daude, ama-hizkuntza alde batera uzten joan direlako espainolaren alde eta baita hezkuntzak eta politikak alde batera utzi dituztelako ere. Labur esanda, nahi duguna da ekarpen txiki bat egitea horren baliotsua eta zaharra den herentziaren zati bat ezagutzera emateko; Uste dugu guztion ondarea dela".



Jon Rodriguez grabagailua eskuan duela lanean. | EL ECO DE LOS PUEBLOS



Rodriguez lanean. | EL ECO DE LOS PUEBLOS



Grabaketa une bat. | EL ECO DE LOS PUEBLOS

Orain arte Mexikoko Oaxaca estatuan ibili dira eta mazatecoak, mixeak, cuicatecoak eta zapotecoak bisitatu dituzte, beste komunitate batzuen artean. Egun, San Cristobal de las Casas-en daude, Txia-

pasko grabaketa prestatzen: "Proiektuak aurrera egin eta iraun dezan geldialdiak egin behar izaten ditugu, lana lortu eta diru apur eskuratzeko. Ofizio berriak ikasten ari gara". Aurreikusitako

bidea luzea da: Mexiko, Panama, Guatemala, Honduras, Salvador, Nikaragua eta Costa Rica.

Herririk herri, Escarabajoan

Rodriguezek kontatu digu aurrez daukatela herri bakoitzaren gaineko informazioa. "Tokira iristen garenean bertako kultura etxearekin edo irati komunitarioarekin harremanetan jartzen gara. Gehienetan, hor topatzen ditugu tokiko musikaren inguruan gehien dakiten pertsonak. Haiekin hitz egin ostean zer nahi dugun badakigunean, Escarabaja [autoa] martxan jarri eta komunitateetara joaten gara grabaketak egitera". Batzuetan, atzerritarrak izanda, mesfidantzaz hartzen dituzte hasieran, baina orain arte toki gehienetan oso harrera ona egin diete: "Bideoetatik dirurik ateratzen ez dugula konturatzen direnean eta ikusten dutenean ez dugula eurekin intenzio txarrekin jokatu, dena aldatzen da. Etxeko ateak irekitzen dizkigute".

Inguruko batzuek esan izan diote "zoraduta" dagoela, beste batzuek "disfrutatze"ko, ikasteko eta, batez ere, "zoriontsu izateko". Horiek guztiak kontuan izanda, oraingo, epe laburrean, ez dauka etxera itzultzeko asmorik.

AZKEN BERBA

IDOIA
ETXEBERRIA



Plastilina

Umetan, ura gara. Ura. Freskoa. Bat-batekoa. Bere kasa doa, ezer inporta gabe. Inguaruarekin ezaxola. Neurrik gabe. Harrapaezin. Dena alaitasun. Dena zipriztin.

Nerabetan, plastilina gara. Plastilina. Moldakorra. Eta era berean moldakaitza. Zaila da plastilinari nahi dugun forma ematea. Eta koloreak nahastutakoan kaka kolorea ez ateratzea. Egin, desegiteko. Orain lotsatu egiten gara. Eta gero harrotu. Deseroso gaude toki guztietan.

Heldu ahala, buztin bihurtzen gara sarri. Buztinak badu uretik. Eta malgua da, baina irmoa. Biguna da, baina gogortzen ere badaki. Goxoa da ukimenerako. Eta exijentea esku horiekin. Egoerara egokitzen da.

Zahartzen goazen neurrian, bada harri bilakatzeko joera ere. Harria gogorra da. Egoskorra. Hotza. Ez da mugitu zale. Eta ur tantei ere ez die sartzen uzten.

Denok dugu pixka bat bakoitzetik. Badira zahartzaroan ur direnak. Dena freskura. Eta ume-umetatik harri direnak ere bai. Petral arraiok. Batzuek ez diote egundo plastilina izateari uzten. Beti konformaezin. Eta nor ez da buztinezkoa? Ederki egokitzen gara bizitzak jartzen dizkigun moldeetara.

HABEko azterketak prestatzeko ikastaroak larunbatetan!



1., 2. eta 3. mailak; baita 4. maila ere!

Noiz: Larunbat goizetan, 08:30etik 14:00etara

Informazioa: Aratz Euskaltegia
945 15 43 41
aratz@ikanet.net
gasteiz.ikanet.net



euskara errazago egiten